

499 ZENBAKIEN LABURPENA



Arrasate

2000.eko
ekainaren 16a
500. zenb.

P R E S S

5000

zenbakia



Ehune

Apainketa



Etxe Txukuna
Txoko Kuttuna

Garibai, 8
Tel: 943 77 11 48
ARRASATE

Bostehungarrenetan aidanez

Bi urte eta bi hilabete daroat *Arrasate Pressen* lanean. Denbora horretan *Arrasate* ezagutzen joateko denbora izan dut, baina oraindik ere asko gelditzen zaidala jakin badakit. Agian, horregatik nuen gaur esku artean duzuen *Arrasate Press* hori egiteko gogoia. Lan talde honek eskaintzen dizuena, *Arrasate Presse* 499 zenbakitan kontatu dizuenaren laburpena da. Oraindik ez daukagu agiritegi elektronikorik eta horrek aldizkariak banan-banan errepasatzera behartu gaitu. Baina, aldi berean, gure ustez, egin beharreko lan bat gauzatzen lagundu digu. Gure lan taldea, kazetariari buruz ari naiz, Mondragoekoak ez garen kazetariak osatzen dugu. Oñati, Plaentzia eta Antzuolako kazetariak gara. Eta horrek zuen herria behar bezala ez ezagutzea dakar. Horren aurrean, inguruan eta laguntzen, *Arrasate*ko jendea daukagu: Maider Osa GOITBko aurkezlea,

Joxe Aranzabal GOITBko arduraduna, Sergio Azkarate *Arrasate Presse*ko zuzentzailea eta nola ez, gure publizitate saileko neska: Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla eta Arantzazu Arroiabe atxabaltarra. Beno, Agurtzane Gainzarain eta Ane Berezibar ere gurekin ari dira, administrazioan, baina eurek ere parte hartzen dute, kalean ezer entzuz gero, guregana etortzen dira eta, kontatzera.

Eta hori dena gutxi balitz, *Arrasate Press* irakurtzeko ohitura duzuen guztion laguntza paregabea daukagu. Aitortu behar dut, aurkezpenetarako "*Arrasate Presstik*" esateak lagundu egiten duela eta, horri esker, elkarrizketaren bat eskatzerakoan, erreportaje baterako informazio bila joaterakoan edo bestelako kontuengatik galdetzerakoan, asko laguntzen digula. Eta hori aurreko zenbakietan lanean aritu diren profesionaleri eta zuei, irakurleeri, zor dizuegu.

Horregatik, *Arrasate Presse* 500 zenbaki kaleratu ditu. 1988ko abenduaren 2tik hona euri asko egin du — badakit hori topiko bat dela, baina horrela da—, eta aldizkariak efer itxura aldaketa handia izan du lehenengo zenbaki haietatik. Goio Aranak zeresan handia dauka horretan. Bera izan zen aldizkariaren maketatzaile eta disenatzailea urte luzez. Baina, nik ez nuen berarekin lan egiteko aukerarik izan. Ni hasi nintzenean Txos Azurmendi zegoen bere ordean eta berak erakutsi zidan aldizkariaren itxura eta nondik norakoak.

Gaur egun, Maddi Trutxuelok egiten du lan hori eta beste hainbat ekarpen ere egin dizkio dagoeneko aldizkariari.

500. zenbakiaren itxura berea da, neurri handi batean.

Horrela, bada, zuek guk baino gehiago disfrutatuko duzue zenbaki horrekin, zuetako askok bizi izandako kontuak direlako jaso ditugunak.

Eskerrik asko!

Marijo Deogracias

Arrasate Press irakurtzeko ohitura duzuen guztion laguntza paregabea daukagu

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Marijo Deogracias. **Kazetariak:** Ubane Madera, Maider Osa, Leire Kortabarria eta Gorka Etxabe. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arroiabe. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90). **Disenatzailea:** Maddi Trutxuelo. **Asteburuetako berriemakilea:** Lorea Agiriano. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Karmele Perez, Nekane San Migel, Iker Ezpeleta eta Udaleko Gazteria A.S.I.A. **Banaketa arduraduna:** Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.600. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Franko kontzertatua.** **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubi-llaga, Oñati). **Arrasate Irratia:** 943 71 17 31

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Trutxuelo.





ONDOKO ARGAZKIAN

Leire Kortabarria
Sergio Azkarate
Maider Osa
Ane Berezibar
Agurtzane Gainzarain
Arantzazu Lagunilla
Nerea Zallo
Arantzazu Arroiabe
Maddi Trutxuelo
Ubane Madera
Marijo Deogracias

AURKIBIDEA

- 499 zenbakiak motzean. 4/64
- *Arrasate Presse*ko kazetari ohiak. 65
- *Arrasate Presse*ko publizista ohiak 66

aurrez aurre



Hizkuntza oztupo bat dela aitortuz, pentsatzen dut badagoela horren atzetik jarrera historiko bat irritearen aurkako. Orain gutxi arte, kanpora joatea nork bere burua saltzea zen. Eta egon dira hemen ateratzeko posibilitatea izan dutenak eta atera ez direnak. Nik hori errore historikotzat dut.

RUPER ORDORIKA

Kantaria
1988.12.9

AUKEA sariak

(7/10.or.) 1989.1.25



Lehenengo aldiz AUKEA sariak banatu ziren herriko kirolari onenen artean. Arrasateko Udaleko Kirol Erakunde Autonomoak (AUKEA) banatu zituen. AUKEA 1988an sortu zen, apirilaren 29an, kirol arloko erabaki eta egitasmoak bateratzeko, kirol

elkarteen parte hartzarekin. Sariak Antonio Caballero eta Rafa Aspe—aurreko urtean Seuleko Joku Olinpikoetan aritzeagatik boxeoa eta jaurtiketan— eta Arrasate Atletiko Taldea—probin-tziako lehen mailara igo zelako— izan ziren.

Erdur elkarrekin ondasunak banatu

(33/13.or.) 1989.9.22

Uztailaren 26an egindako bileran, Erdur euskal kultura elkarrekin ondasunak banatzea erabaki zuten irakasleek. Honela, 9 milioi Bortziri, Malarreka, Errioxa eta Iparraldeko AEDren artean bana-

tu ziren. 4 milioi AED, Idolaz eta Jardun euskara elkarrekin ematea erabaki zuten. Erdur kaleko pisua eta Bergarako, berriz, AEKri eman zizkioten. Sokoia kafetegia, berriz, AEDri.

Ramon Jauregi

AUKEAko gerentea

“AUKEA kirol erakundea 1988an sortu zen, apirilaren 29an hain zuzen ere, Arrasateko Kiroldegia Fundazio Publikoa ordezkatzuz. Estatutuen arabera hiru dira Aukea Kirol Erakundearen helburuak:

- Arrasateko kirolgintzaren garapena bizkortzea, planteatzen diren ahaleginak eta inizatibak ikuspegi orokorrean koordinatuz, entitate bakoitzari dagozkion ahalmenen kaltetan izan gabe.

- Eskola eta zaleen kirolgintza bideratu eta bultzatzea.

- Kirol modalitateak egin ahal izateko herritar guztiei benetako aukera eskaintzea, helduen aktibitate fisikoa (denontzako kirola) bultzatzeko arreta berezia jarritz.

12 urte hauetako balantzea positiboa dela uste dugu, batez ere Arrasaten AUKEA Kirol Erakundea erreferentzi izatea lortu dugulako, burutzen diren ekimen eta jardueren gehiengotatik. Horretaz gain, Udal kirol instalazio guztiak gestionatzen ditugu, modu horretan gestio bateratu eta koordinatua lortuz.”

1988

■ Antoñako kiroldegia
(6/18.or.) 1988.11.24

Antoñako pabilioa ireki zen, bost squash jokalekuekin, gimnasio txiki batekin eta araututako saskibaloi kantxarekin. Pabilioa 40 milioi kostan zen.



1989

■ Inesen momia
(12/6.or.) 1989.2.24

San Joan parrokiaren koroaren azpiko nitxo batean egon zen “Santa Ines” 1946tik



eta Aranzadi elkarteok Zumarragako Ospitalean gorpuaren azterketa egin zuten; astebetez, erakusgai jarri zuten.

■ Agur Gurea, agur
(19/10.or.) 1989.4.21

Agur Gurea Asanbladako kideek, martxoaren 1ean, Gaztetxea ospitale zaharrerako lokaletan ipintzeko proposamena egin zioten Udalari. Proposamena ez zen onartu eta AGAK Gurea zinemako giltzak entregatu zituen.

■ Lanbide Eskola
(21/14.or.) 1989.5.21

Debagoieneko Mankomunitatearen babesean, Lanbide Eskola ireki zen Araba etorbidean.

■ Argi berdea TBri
(31/11.or.) 1989.7.31

AEDk telebista abian jartzeko asmoa zuela eta,

Udalarekin akordioa sinatu zuten Usatorrek eta Joxemari Mujikak.

■ Atxiloketak Arrasaten
(32/11.or.) 1989.9.15

Joseba Korta, Igor Letona eta Xabier Atxa gazte mondragoetarrak atxilotu zituzten Ertzaintzak. ETAko “Jatorra” komandoa osatzea leporatu zieten. 1990eko uztailaren 17an askatu zituzten.



■ Ferixalekuko pilotalekua arkeztu
(34/11.or.) 1989.9.29

Javier Ortega arkitekto bilbotarraren Ferixalekuko pilotalekuaren proiektua ezagutzera eman zuen Arrasate Pressek. 330 milioi pezetako gastua zuen eta 1.100 ikuslerentzat araututako pilotalekua.

■ Arrasate Telebista aurrera
(37/12.or.) 1989.10.15

Urriaren 11n Gobernu Batzordeak ATBrendako izan zen MCM Metalurgia lantegi zaharraren lokalaren egoikitzapenerako dirua onartu zuen. Bestalde, urriaren 1ean hasi ziren lanean ATBko lau

Corporacion: UCEM SA

(38/13.or.) 1989.10.27

Union Cerrajerako akziodunen batzar nagusiak elkarteari izena aldatzea erabaki zuen; Corporacion UCEM SA izena jarri zioten. Roneo, Union Cerrajera, Saltos Olate, Salto de Bergara eta Ucem sistemak batu ziren elkartean.

Bide batez, Union Cerrajeri elkartetan banatu zuten:



Cerrajería SA (zerrailagintza) eta Transformados Metalicos SA (kamioientzako gurpilak eta hotzean burututako lamina-zioa).

Ordurako, hasia zen Roneoko lantegi berria: 2.000 milioiko inbertsioa zuen eta 1990eko lehenengo hilabeteteetan abian jartzekotan ziren.

Jokin Zaitegi omenduz

(44/12.or.) 1989.12.15



Jokin Zaitegi Arrasateko seme kuttun izendatu

zuten bere garaian, baina 1989ko abenduaren 8an Arrasateko Udalak beste omenaldi bat egitea erabaki zuen: Roneoko etxe berrietako plazari bere izena jartzea eta Monterron jauregiko liburutegiari ere bere izena ematea. Liburutegia, gainera, abenduaren 8an inauguratu zuten.

Ferialeko ikastola

(41/14.or.) 1989.11.17

Pilotaleku berriaren lanek arazo handiak sortu zituzten San Frantzisko Xabier ikastetxean. Hango 310 neska-mutikoek jolasorduan lekurik barik egon ziren lanek iraun zuten

bitartean. Horren kontura, bilerak ere egin zituzten Ikastolako zuzendariak udal ordezkariekin eta baita lanek egiten jardun zuten enpresako ordezkariekin.

Dorleta Arana

SFXko irakaslea

“Ez zen samurra izan, gelako zaretaz gain, kanpoko zarata, eta kanpoko zarataren ondorioz, gelako elkarrizketak gero eta ozenagoak. Horrez gain, jolas-tokira irteteak ez zituen gauzak konpontzen, gure ikastetxearen alboetan egurrezko horma bana, ikasleentzat “obren mundu zoragarria” gordetzen ahalegintzen zirenak; askotan pentsatzen genuen nahita botatzen zituztela baloiak hesi barrura bila joateko eta mundu horri begiradatxo bat emateko.

Tira... inauterietan, irakasle guztiak langile mozorroturik, desfilera atera ginan...”

aurrez aurre



Nire izena, idazle ospetsua izateko, iruditzen zitzaidan ez zela egokia. Eta zergatik aukeratu nuen Bernardo? Bada, eskolan nengoela bazegoen mutil bat asko estimatzen nuena, Bernardo deitzen zena eta haren izena aukeratu nuen.

BERNARDO ATXAGA

Idazlea

1988.12.23

ALDI BATERAKO KONTRATUAK

Arrasateko Udalak, aldi baterako, lanpostu hauek kontratatatu nahi ditu:


- ARKITEKTO TEKNIKO (egun erdiz)
 - INGURUMEN TEKNIKARIA
 - INFORMATIKA MONITOREA
- Interesdunak Arrasateko Udaletxera etorri behar dira ekainaren 21ean, goizeko 10etan, euskara proba, praktikoa eta elkarrizketa egiteko.
- Hautaketa prozesua arautzen duten oinarri-arauak Arrasateko Pertsonal Sailean jaso daitezke.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■

Gizonak
Emakumeak



Jantziak

Erdiko kale, 32 • ARRASATE • Tel.: 943 79 16 12

aurrez aurre



Euskal Herrian ditugun alderdiak, edo erdaldunak dira erabat, edo sasi-euskaldunak. Denok dute erdara nagusi. Egun, gai honek kezkatzen gaitue-na baino gehiago kezkarazi beharko gintuzke.

Egoera hau aldatzen ez den bitartean, ezin daiteke euskararen izenean mintza, euskarak dituen neurriak orain behar dituelako; euskararen bizitza kolokan dago eta arriskuan orain dago.

TXEPETX
1989.1.20

Goikobalu abesbatza eratu zen

(46/18.or.) 1989.12.29

SUDCek bultzatuta, Goikobalu abesbatza eratu zen Luis Ignacio de Alegriaren laguntzarekin. 100 lagun agertu ziren lehenengo deialdira eta 78 lagunekin osatu zuten abesbatza. Orduko lehendakaria Jose Ignacio Agirre zen.

Iñaki Maidagan

Goikobalu abesbatzako zuzendaria

"SUDCek ikusi zuen Arrasaten abesbatza tradizioa bazegoela. Deialdia egin zen eta jende askok eman zuen izena. Laster sortu zen Goikobalu Abesbatza, Luis Ignacio Ruiz de Alegriaren zuzendaritzapean. Ilusio handia zegoen, eta jende gazte ugari (horietariko askok utzi egin behar izan duten arren). 50 kide inguru gara eta hasierako ilusioarekin dihardugu. 10 urtetan gauza garrantzitsu asko egin ditugu: Beethovenen "Bederatzigarren Sinfonia", Carl Orffren "Carmina Burana"... Espainiako hainbat lehiaketa ere irabazi ditugu. Gauza politak egin ditugu, baina gehiago egin nahian gabilta."

Urontziko rocka

(47/11.or.) 1990.1.5

Udalak, herrian zeuden musikariora zaharra egokitzea erabaki zuen. Planen arabera, urtarillaren bukaera alderako prest egongo zen.

"1991n 7.867.150 pezeta inbertitu zituen udalak Epeleko loka-la egokitzeke. Zortzi urte geroago, lokalen egoera kaskarra zen benetan. 5 lokal zeuden Epelen bi solairutan banatuta. Lokalik handienak 30 m² ditu, txikiak, berriz, 10. Batez beste 14 musika taldek erabiltzen zituzten".

Arrasate Press
2000.3.24

Tu Lankidek zuzendari berria

(47/17.or.) 1990.1.5

Javier Marcos izendatu zuten Tu Lankide aldizkariko zuzendari, J. Antonio Moraren ordeez.

Javier Marcos

Tu Lankideko zuzendaria

"MCCk urte hauetan egin duen jauzi kuantitatiboa izugarria izan da. 1989an 253.000 milioi pezetako salmentak gauzatu zituen; iaz, 1,04 bilioioak: lau bider orain dela 10 urtekoak. Esportazioak ere nabarmen hasi dira. 1989an, saltzen genuen 100 pezetatik 18 kanpoan saltzen genituen. Gaur egun saltzen dugun 100 pezetatik 47 saltzen dugu kanpoan. Mundura abiatu gara eta erritmo onean goaz. Duela 10 urte 22.000 langile ginen; gaur egun 47.000. Hori MCCri dagokionez. Eta Arrasaten dauden MCCko kooperatiben gainean, zer? Bi datu: 7.600 pertsona gabilta MCCren Arrasateko kooperatibetan; 1989an baino ia 2.000 gehiago. Denon artean 155.000 milioi pezetako salmentak egin ditugu, duela 10 urte baino 100.000 milioi gehiago".

langileak Eskoriatzako Irakasle Eskolakoek utzitako materialarekin.

■ **Fagorrek txirindularitza utzi**
(40/22.or.) 1989.11.10

Fagorrek txirindularitza profesionala babesteari utzi zion. 1988-89ko denboraldian uneko txirindularirik onena fitxatu zuen Fagorrek: Stephen Roche. Rochek ez zuen ezer onik egin.

■ **UCEMeko ekonomatua itxi**
(41/11.or.) 1989.11.17

Ucem enpresa, garai hartan egiten ari ziren aldaketak zirela eta, ekonomatua itxeko aukera

aztertzen hasi zen.

■ **Amaia zinema udalarendako**
(41/14.or.) 1989.11.17

Azaroaren 9an Amaia zinemaren jabegoa aldatzeko agiriak sinatu zituen Arrasateko Udalak. Trukean, Ferixalekuan eta Musakolako Elkano kalean lur azpiko apartakalekuak egiteko eta ustiatzeko baimena eman zien Amaia jabeek.

1990

■ **Udaletxea ekainerako**

(47/16.or.) 1990.1.5
1988ko udan hasi ziren lanak Udaletxean eta 90eko

ekainerako prest egongo zirela aurreratu zuten urtarillan.

■ **ATB Murugainen**
(47/16.or.) 1990.1.5

Urtarillaren 2an Gobernu Batzordeak ATBri Murugaineko instalazioetatik emititzeko baimena eman zion.

■ **"Pinpo" askatu**
(49/16.or.) 1990.1.26

Agustin Bergaretxe "Pinpo" urtarillaren 17an irten zen Lannemezango espetxetik. 1985eko otsailaren 25ean atxilotu zuten Angelun.

■ **ATB, Arrasate Pressen**
(49/37.or.) 1990.1.26

Arrasate Pressekk ATBri buruzko lehenengo orria atera zuen. Orduetik aurrera, astero-astero eman izan du herriko telebistaren berri.

Otsailaren 13an hasi zen emititzen UHFko 23. kanalean.

■ **"Jazten" AEDren aldizkaria kalean**
(63/11.or.) 1990.5.10

AEDk soziolinguistika aldizkariaren bigarren zenbakia argitaratu zuen. 300 pezetan saltzen zen eta Julen Arexolaleibak egiten zuen.

■ **Saihesbidearen inaugurazioa**
(66/11.or.) 1990.6.8
Ekainaren 3tik 9ra bitartean, Arrasateko

saihesbidea zirkulazioari zabalduko zela iragarri zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak. Apirillean euriteek lur-jausiak eragin zituzten eta horrek atzeratu egin zituen lanak.

■ **Euskaldunon Egunkaria Arrasaten**
(68/9.or.) 1990.6.15

Arrasaten ere "Egunkaria Sortzen" batzordea eratu zen Euskaldunon Egunkariaren



Lagun Aro-Fagor taldea

(49/22.or.) 1990.1.26

1990eko urtarrilaren 13an aurkeztu zen Lagun Aro-Fagortxirindulari taldea. Dorletako Ama Txirindulari Elkarteak lehendakaria Javier Garcia zen. Hirugarren denboraldia izan zen taldearentzat eta 4,6 milioiko aurrekontua izan zuen. Taldean Josu Roteta eta Bittor San Jose arrasaterrak zeuden.

Jose Frutos

Lagun Aro-Fagorreko zuzendari ohia

"Dorletako Ama eskolatik afizionatu talde bat eratzeko asmoa sortu zen, gazte mailaren ondoren non aritu izateko. Zuzendari hasi nintzen, Jon Ander Juldain diruzain eta Jon Sasiain mekaniko. Medikua Sabino Padilla izan zen. Artean txirindularitzan aritu barik zebilen eta gurekin hasi zen. Taldean Guenetxea, Lazpiur eta Odriozola izan genituen, hirurek profesioaletara pasatzea lortu zuten. Bi urte politak izan ziren. Gauzak lortu genituen, baina amateurrak izan arren, dedikazioa eskatzen dizu horrek eta laga egin behar izan genuen".

Beronika Garai askatu zuten

(49/10.or.) 1990.1.26

Hilabete egin zuen Caraban-chelgo espetxean "Araba" komandoko kide zelakoan. Otsailaren 13an askatu zuten.

Beronika Garai

Amnistiaren Aldeko Batzordeko kidea

"10 urte hauetan presoan egoera gogortu egin dela esango nuke, estatu espainoleko eta frantseseko espetxeetan daude sakabana-turik, euren herrietatik ehunka kilometrora horrek dakarrenarekin (bisitak egiterakoan, zigorra familiarentzat ere izaten da). Bestalde, jipoiak, (trasladoetan eta funtzionarioen esku), aislamenduak, zigorrak... eguneroko ogia dira. Estatu espainiar eta frantziarrak bahu-tu politiko gisa erabiltzen dituzte; euren legedia ere ez dute betetzen. Ikusiko duzue egoera larria da eta horren aurrean Euskal Herriak eman du hitza, orain errespetatzea eskatzen dugu.

Udaleko euskara plana

(57/9.or.) 1990.3.23

Joxefe Diez de Tuesta

Udaleko euskara teknikaria

"Arrasate desberdina omen da. Euskararen erabileraren normalizazioari gagozkiola, Arrasate erreferentzia omen da. Kooperati-bismoak eta euskara biziberritzeko egindako saioek egiten omen dute desberdina. Zein da, baina, euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez, Arrasateren berezitasuna? Bere egoera soziolinguistiko latzari aurre egiteko halako gogoia, kemena, eta baliabideak jarri izana, agian. Herri bateko hizkuntza politika, ordea, ez da inprobisatzen: hizkuntza politika ez da kasualitatearen ondorio. Hizkuntza baten etorkizuna eraiki egiten da. Hortaz, Arrasateko hizkuntza politikaren elementu eta gertaerarik funtsezkoenak orain arte berariaz sortuak izan diren bezala, datozen urteotako orain planifikatu beharra dugu. Horixe da Arrasateren erronka: datozen urteotako hizkuntza politikaren lehentasunak eta ildo nagusiak finkatu eta erabakitzea".

aurrez aurre



Oraindik Baga, biga... ematen ari ginela, leporatzen ziguten profesionalak ginela, herriaren kontura bizi nahi genuen xurgatzaileak... Eta orduan dator, hori dela eta, "Ez dok amairu"ren usteltzea, korrante hori hasten da pipia bezala taldearen barrua jaten eta azkenik taldea desegin egiten da 72.aren inguruan.

BENITO LERTXUNDI,

Kantaria

1989.4.17

alde. Hilaren 16an, Egunkaria Eguna ospatu zen; Egunkariaren zortzi orri bete ziren.

AED lehiaketa liburuak

(69/14.or.) 1990.6.22

Ekainaren 20an Jokin Zaitegi Itzulpen Laburren sariketan eta Arrasate 89 lehiaketetan saritutako lanen liburuak aurkeztu zuen AEDK Monterronen.

Arantzazuko seminarioa itxita

(71/11.or.) 1990.7.6

Ikasturtea amaitzearekin batera, itxi egin zuten betiko Arantzazuko seminarioa. 1968an ireki zen eta Kantauri aldeko frantziskotar guztien

erabakiz itxi zuten seminarioa. 70. hamarkadan izan zituen ikasle gehien eta bere azkenengo ikasturtean 7. eta 8. mailako ikasketak eskaini zitzaizkien 30 ikasleri.

Saskibaloi taldea etorkizunari begira

(74/22.or.) 1990.7.28

Arrasateko saskibaloi taldeko presidentek eta entrenatzaileak taldeko babesle berria aurkeztu zuten: Central-Jet enpresa. Bigarren mailara igo ziren hurrengo denboraldian. Jose Mari Balzategi zen lehendakaria eta Txus Brizuela entrenatzaile berria.



Edertu

Ile apaindegia • Solariuma

Eskaintza berezia:
solariumeko 10 saio 6.500 pta.
San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28
ARRASATE



ARRASATE

GARBIKETAK S. COOP.

Zorionak!

Uribarri, 20 ARRASATE
Tel. eta Faxa: 943 79 70 39



ARRASATE

AUTOZERBITZUA

Prestatu zaitez Sanjuanetarako!

Uribarri, 20 ARRASATE
Tel.: 943 79 52 76

aurrez aurre



Gizarte honek ez du koderik, dena konpetentzian oinarriturik dago, oihan antzeko bat da eta oihan horretako muga zoroa da, balio duen giza balore bakarra irabazlearena baita.


LEOPOLDO MA. PANERO

Idazlea
1989.4.29

Mojategiko atletismo pista

(62/11.or.) 1990.5.4.

Udala Mojategiko atletismo pistak egiteko lurren jabeekin harremanetan ipini zen, lurak desjabetze bidez hartzeko. 1986an egin zen Mojategiko atletismo pistaren aurreproiektua, baina udalak ez zuen onartu.



Fernando Zufiria

Arrasate Kirolak Atletiko taldeko entrenatzailea

"Mondragoeko atletismoa ezagutzen dudanetik, 37 urte, beti izan dira eta oraindik ere badaude izen handiko kirolariak, gehienak atletismoari lotutakoak. Agian ez gara hain ezagunak, baina guk betiko gogoia eta karisma gordetzen dugu.

Mojategi oso garrantzitsua da guretzat; bailarako atletismoa batu lezake. Entrenatzaile eta begirale nahikoa dugu, gertu gaude etorri daitekeenari aurre egiteko. Edozein froga mota antolatu behar izanez gero ere, baditugu epaileak.

Euskal Herriko beste taldeek oso ondo baloratzen dituzte Mondragoeko atletak. Herrikoek, aldiz, ez. Oso harro gaude pista barik lortu dugun mailarekin, nahiz eta jende askok "pista barik atletismoan nola segitzen dugun galdetu arren".

Arrasate Musikal pribatua

(67/15.or.) 1990.6.8

Udalak ez zuen Arrasate Musikal bere eskuetan hartzea onartu, eta pribatizatzearen alde egin zuen; baina, lokalak hornitzeko konpromisoa hartu zuen.

Marta Izagirre

Arrasate Musikaleko zuzendaria

28 urte daramatzagu kaleak eta aretoak musikaz alaituz. Orduko musikazale batzuen gogoia pizturik dago oraindik. 1972an eman ziren lehen urratsak. Denbora gutxian maila ona lortu zuten ikasleek eta Gazte Orkestra ere sortu zen. Herrian hainbat kontzertu antolatzen ziren, musika kultura areagotuz.

Gaur eskola heldua bihurtu dugu, 500 ikasle inguru eta 35 irakasleekin. Musika taldeak sortu dira eskolan, eta ekintzak ugaritu egin dira. Ikasturtean 50 kontzertu ematen dira. Oraindik gure bilakaera ez da amaitu eta urte berrietara moldatzen joan behar gara. Gure herri maiteari momentu alaiak eskaintzen eta musika zaletasuna indartzen jarraituko dugu.

1991

■ Herri-prentsaren I. Jardunaldiak

(98/12.or.) 1991.3.8

AEDK herri-prentsari buruzko Lehenengo Jardunaldiak aurkeztu zituen. Azaroaren 11, 12 eta 13an egin ziren.

■ Euskadiko Xake Txapelketa Arrasaten

(99/26.or.) 1991.3.15

Apirilaren 1etik 7ra bitartean, Euskal Herriko Xake Txapelketa Arrasaten jokatu zela adierazi zuen San Andres Xake taldeak. 30 taldek eta Nazioarteko Maisu Handiek hartu zuten parte, Felix Izeta

tardean. Berak irabazi zuen txapelketa. San Andres Xake taldetik Jose Javier Vallinok jokatu zuen.

■ Larreako proiektua geldituta

(110/9.or.) 1991.6.7

Ekainaren 3an, Gobernu Batzordean, Larreako babes ofizialeko etxebizitzaren proiektua egin zuen arkitektoarekin, Santiago Aristimuñorekin, sinatutako kontratua bertan behera uztea erabaki zuten. Proiektuan akats batzuk antzeman ziren eta udalak enpresa bat kontratatu zuen proiektu hori aztertzeko. Azterketaren arabera egindako proiektuan zenbait gauza ez ziren kontuan

hartu. Kontuak kontu, etxebizitzaren proiektua dezente atzeratu zen.

Larreako lur saillean 110 etxebizitza egitea aurreikusitako eta etxe berria eskuratze-ko 498 lagunen eskariak onartu ziren.

■ Jainkoari otoi eginez, eta beharri eginez

(113/18.or.) 1991.7.5

Kontzeziñoko mojek hamahiru urte bete zituzten Kontzeziñoko komentuan. Orduan 22 moja bizi ziren komentuan.

■ Asuncioneke mojei agurra

(114/12.or.) 1991.7.12

Hirurogei urtean eskolak

eman eta gero. La Asuncion ikastetxeko mojek Arrasatetik alde egingo zutela esan zuten. San Viatorrek 15 urterako alokatu zuen eraikina.

La Asuncion ikastetxea



1931ko maiatzaren 28an zabaldu zen eta garai hartan Arrasatek 5.000 biztanle inguru zituen. Lehenengo ikasturte hartan 75 bat neska hasi ziren ikastetxean.

■ Iturripe inauguratuta

(121/14.or.) 1991.10.11

Urriaren 5ean inauguratu zuten Iturripeko kiroldegia. Ekitaldian Eli Galdos, orduko alduen nagusia, Xabier Zubizarreta alkatea eta beste hainbat udal ordezkari egon ziren. Eurria egin zuen eta zorua oso labainkor zegoela ikusi zuten, atletismo pistako eta kanpoko jolasguneetako marrak margotzeko erabilitako pinturagatik.





Beatriz

oinetakoak

1946-2000

*Urteetan bidea elkarrekin egin dugulako
eskerrik asko eta zorionak Arrasate!*

Erdiko kale, 11 • ARRASATE • Tel.: 943 79 14 33



3.000.000 ibilgailu baino
gehiago aseguratuta,
lasai-lasai errepidean



Problemarik gabe

Egin kontuak! 2.400 bulezo, 12.000 lagun zure zerbitzura, 4.000 konponketa gune



MAPFRE

Lehenengoak auto aseguratuta

Garibai Etorbidea, 16 • Tel.: 943 79 89 00 / 943 79 67 22 • Arrasate Pasealekua, 37 • Tel.: 943 79 71 31 / 943 77 03 04




ALDIBI AUTOAK, S.A.



Nissan Almera berria

Ibilbideaz goza ezazu



Zigarrola kalea, 1
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 20 02
Faxa: 943 79 65 65
e-maila:
aldibi@nortekar.com

Olaso kalea, 23
20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 74 20 37
Faxa: 943 75 35 24
e-maila:
aldibelgoibar@nortekar.com

Ingurugiro Eskola zabalik

(92/12.or.) 1991.1.18

Urtarrilaren 16an ireki zen Udalako Ingurugiro Eskola. Haurrei ingurumenaren inguruko ezagupen zabala emateko helburuarekin ireki zen.

Kandi Fernandez

Udalako Ingurugiro Eskola

Duela bederatzita urte zabaldu zituen ateak eskolak eta garapen nabarmena izan dugu:

- Ikasle kopurua gero eta handiagoa izan da (bederatzita ikasurte daramatzagu eta hamar bat mila pasatu dira eskolatik).
- Hasierako ikasturtean Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleekin bakarrik egiten genuen lan eta gaur egun LHko maila guztiak eta DBHko lehen ziklorako programak dauzkagu.
- Eskolaren jardueran ekintza berriak sartu ditugu urte hauetan (Udalaxpetik, Ingurugiro Boletina, Zaborraren problematika aztertzen kanpaina, erakusketak...).
- Eskolaren talde pedagogikoan ere garapen hau nabarmena izan da, baina momentu honetan sendotzen ari gara (aurten irakasle finko bat izango dugu)".

Gureak tailer berria ireki

(70/10.or.) 1990.6.29

Ekainaren 25ean inauguratu zen Gureak tailer berria. 50 lanpostu berri sortzeko asmoarekin ireki zen, ASAM lan-

tegiari erositako zati batean. Denetara 800 gutxitu fisiko zein psikikori ematen zien lan Gureak tailerrak.



Gureak lantegia

"Urte hauetan izan dugun garapena ikusita, Gureak lantegiaren jardunak balorazio positiboa merezi du. Sortu zenean 50 langilerentzako lantegia izatea aurrez ikusi zen; orain, aldiz, 98 langile eta 5 begirale ditugu lanean.

Datorren urtera begira, Bergaran beste lantegi bat zabalduko da, Mondragoekoaren lana arintzeko eta orain dauzkagun eskaerei aurre egiteko".

LKS sortu zen

(73/13.or.) 1990.7.20

Lan Kide Aurrezkiaren Enpresaritzaren saileko aholkulari eta ingeniari sailek bultzatuta, LKS, Lan Kide Sustaketa, kooperatiba sor-

tu zen, ingeniari eta aholkularitza zerbitzuak jorrazteko. Kanpanzarko tunela ikertzea izan zen bere lehenengotariko lana.

aurrez aurre



Sabino Arana-Goiri euskal herrialdeen federalismoaren aldekoa zen eta, horren ondorioz, sei euskal Estatu osatu behar zirela esango zuen. Estatu bakoitzak bere nortasunari eutsi beharko zion eta nortasun horren ezaugarri nagusienetako bat, pentsatzeko denez, euskalkia zen. Sei euskalki lantzea zen, bada, Aranaren nahia eta ez denontzako euskara bakar bat egitea.

KOLDO ZUAZO

Irakaslea

1989.5.12

1992

Rafa Etxabe kalean

(137/12.or.) 1992.2.7

Otsailaren 3an askatu zuten Rafa Etxabe preso mondragoetarra. Langraitzeko espetxetik irten zen baldintzapeko askatasunean, hiru urteko kartzela zigorra bete ondoren. Etxabe 1989ko irailean atxilotu zuten. Alcalá, Herrera, Iruñea eta Langraitzeko kartzeletan egon zen.

SFX, 25 urte

(137/16.or.) 1992.2.7

San Frantzisko Xabier ikastolak 25 urte bete zituen. Hori ospatzeko aurreko asteburuan afaria egin zuten

aspaldiko ikasle eta irakasleek. Orduko andereño beterranoen artean Ana Mari Arana, Maria Luisa Lizarralde eta Izaskun Pujana ere afarian izan ziren.

"Antzinakoak" liburuaren aurkezpena

(139/12.or.) 1992.2.21

Karmelo Urdangarinek "Antzinakoak" liburua aurkeztu zuen Otalora jauregian. XVIII. mendeko lanbideak XX. mendean bizirik dirautela ikustearren ondorioa omen zen liburua, idazleak adierazi zuenez.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M

MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

ML

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

aurrez aurre



Herri honekin beti oso kezkatuta egon naiz eta nago, baina oraingo partiduetan ez daukat batere esperantzarik; herri honetako gehiegioarekin ez dut konfiantza handiegirik. Uste dut nahiko kontserbadorea dela eta zenbait gauza ez direla gehiegi aldatu, hala nola elizak giza erlazioetan daukan eragina edota elkarte gastronomikoen inguruko giza jokabideak.

IMANOL

Kantaria

1989.11.10

Umezaintzak eskola berria

(92/15.or.) 1991.1.18

Hau eskolako ikastetxe berria San Josepen egitea erabaki zuen udalak. Horretarako 100 milioiko aurrekontua onartu zuen.

Ordura arte Altamiran zegoen Umezaintza eta eraikin berrian jantokia egitea erabaki zen, aurreko ikastetxeak ez zuen zerbitzua.

Epeleko zabortegia irailerako

(92/14.or.) 1991.1.18

Gasteizko gobernuak Epelen hondakin geldoak jasotzeko zabortegia eraikitzea erabaki zuen eta Moyua enpresa aukeratu zuen horretarako. Zabortegeiak bailaran sortutako hondakin solidoak jasotzeko baimena zuen eta ez

kutsakorrek edo toxikoak. 1.817 metro kubikoko gaitasuna izatea aurreikusi zen. Zabortegei hau eraikitzeko asmo nagusia legez kanpo zeuden 36 zabortegei irtenbidea ematea zen.

Datu batzuk:

- 1993ko abuztuan ireki zen.
- 1.817.100 m³ko edukiera zuen.
- 30 urteko biziraupenarekin.
- Urtean 250 egunez ireki izan da ordutik.
- 1999an 50.254 tona hondakin batu ziren, m³/ 70.785 tona.
- Epelen zegoen zokogune bat aprobetxatzen da hondakinak jasotzeko. Hondakinak bota ondoren, estali egiten da; belarrak eta lurragi laguntzen du horretan.
- Eusko Jaurlaritzak hilero lixibatuen analisia egitera derrigortzen ditu mota honetako hondakindegiko arduradunak: euria egitean aztertu egiten da zabortegiko uren kalitatea.
- Zabaldu zenetik hona, 275 metroko luzerara iritsi da; guztira, 380 metro izatera irits liteke.

Arrasate Press
2000.4.7

Arantxa Lejarraga

Umezaintzako zuzendaria

"Heziketa eta zerbitzuen arloan paper garrantzitsua bete du Umezaintzak azkenengo 30 urteetan zehar Arrasaten. Proiektu honek aurrera egin du familiek, udalak, beste ikastolek eta gizarteak eskaini dioten laguntzari esker -eraikin berriaren eraikuntza, momentu zailtan ekarpen ekonomikoak...- eta bertako profesionalen inplikazio eta esfortzuegatik.

Bide luze honetan, eskaintzen diren hezkuntza zerbitzuak hobetu, zabaldu eta kalitatezkoak izateko helburuarekin egin dugu lana. Momentu honetan, hain zuzen ere, bailarako beste ikastolekin batera, haur-hezkuntzarako proiektu berri eta aberats baten lehenengo pausoak ematen ari gara Arizmendi proiektuaren barruan, haur eta familien beharrei erantzun eta denontzako eskuragarri izan nahi duena.

Dudarik gabe, erronka handia denontzako, Instituzioen onarpena eta babesa behar duena, bailarako etorkizuna hor baitago."

Jon Belar hilik aurkitu

(141/10.or.) 1992.3.6

Martxoaren 3an, martitzena, goizeko 8ak aldera, hilik aurkitu zuten Jon Belar, Martuteneko futbol zelaian. Dirudienez, bere buruaz beste egin zuen, soka



batetik zintzilik aurkitu omen zuten eta. Zinemagintzan eta pinturan aritzen zen eta 57 urte zituen. Arrasaten denbora

luzean bizi izan zen, pinturak egitekin batez ere. "Katuska" eta "El Caserio" zarzueletan eta "Ander eta Yul", "El reino de Victor" eta "Terranova" filmeetan hartu zuen parte. Azken aldean, ETBk eskaini zuen "Bi eta Bat" telebista saioan aritu zen.

Udal Euskaltegiaren 10. ikasturtea

(142/12.or.) 1992.3.13

1981-82ko ikasturtean ireki zen Arrasateko Udal Euskaltegia. Orduan lau irakasle eta 55 ikaslerekin ekin zion bere ibilbideari. 1992ko ikasturtean 550 matrikula egin ziren.

Santa Barbaran gaztelua aurkitu

(144/13.or.) 1992.3.27

Arkeolan elkarteko partaide batzuek Santa Barbarako gazteluaren harresia aurkitu zuten, gazteluaren horma eta dorre batzuk, hain zuzen ere. Adituek adierazi zuten, XVII. mendean Santa Barbara izeneko ermita eraiki zen bertan.

**ARKOren lehen batzar orokorra**

(145/11.or.) 1992.4.3

Arrasate Komunikabideak Elkarteak, ARKOk, bere lehen batzar orokorra egin zuen. Orduan Mikel Irizar zen ARKOk lehendakaria.

Eskubaloiko atezaina hil zen

(146/25.or.) 1992.4.10

Ibon Abasolo, Arrasateko Eskubaloi taldeko atezaina, apirilaren 6an hil zen. Hilaren 3an lanean ari zela erori egin zen. Ibonen hileta elizkizunak apirilaren 7an egin ziren Frantziskotarren elizan.

Eskubaloi taldea Gipuzkoako txapeladuna

(153/20.or.) 1992.6.5

Arrasate Kirolak eskubaloi taldeak berriz ere Gipuzkoako Federazioko Txapelketa irabazi zuen. Manuel Ruizek zuzentzen zuen taldea orduan eta jokalariek honako hauek ziren: Jose Antonio Moreno, Josu Epelde, Jesus Santacristina, Pako Salterain, Jon Iraola,



Hondakinen Biltegi Alternatiboa

(96/14.or.) 1991.2.22

Garagartzan jarri zen Hondakinen Biltegi Alternatiboa. Lanek eragindako atzerapena zela eta, apirilera arte ez zela abian jarriko aurreikusitako Mankomunitateak. Biltegiak 8 edukiontzi izango zituela ere aurreikusitako zen.

Ordura arte Takolon biltzen ziren hondakinak jasotzeko egin zen.

"Ibarretan egin zen, enpresa handiek ez, beste guztiek eta partikularrek erabiltzeko. Txartarra eta kartoiak erabiltzen dira bereziki; obretako hondakinak, esate baterako. 1998an etxeko tresna txikiak batzen hasi ziren eta fluorezenteak ere bertara botatzen dira. Batzen den material guztia Indumental eta Recipilas enpresen artean banatzen da. Bateriak, ordenagailuak eta horrelakoak Recipilaserak eta beste guztia Indumentalera".

Arrasate Press
2000.4.7

Eskubaloiko entrenatzailea kanporatua

(93/26.or.) 1991.1.25

Arrasate Eskubaloiko taldeko entrenatzaile lanetan Javier Jimenez Eleta zebilen, baina denboraldian izandako emaitza txarrekin entrenatzailea aldatzera eraman zuen taldeko zuzendaritza. Entrenatzaile

berria aurkitu bitartean, taldea Jesus Mari Herrerok hartu zuen bere gain. Herrerok aurretik ere egin zuen lan hori eta berarekin izan zituen Arrasateko Eskubaloiko taldeak garaipenik onenak.



Jesus Mari Herrero

Arrasate Eskubaloiko taldeko entrenatzailea

"Lehenengo mailan izan gineneko garaia esperientzia zoragarria izan zen. Jokalariak beste hiri batzuetan jokatzeko ilusioa zuten; izan ere, Mondragoeko herri bakarra. Baina, arazo handi bat zuten: jokalariei profesionalen maila eskatzen zitzaizkien eta hori ordaindu egin behar zen. Beste maila batean ari ginen, Madrilen menpe geunden.

Ekonomikoki asko sufritu genuen. Hirugarren denboraldian jokalariek beste talde batzuekin fitxatzen hasi ziren eta guk ez genuen harrobirik. Hori gabezia handia da. Aurten, behetik hasi gara. Jokalariak esperientzia eza ordaindu dute, baina datorren urteari begira talde sendoa egin dugu. Gure maila bigarrena da".

aurrez aurre



Euskal selekzioa sortzearen ametsa zoragarria da, nik neuk ere txikitatik izan dudana ametsa. Baina, ez dakit, agian gaur egun arazo hori politikarientzako esku dago, eta ez gurean. Eta kontuz, Euskadiko selekzioa sortuz gero, ez litzateke talde makala izango.

ANDONI ZUBIZARRETA

Bartzelonako atezaina
1990.1.5

Jose Andres Urrutia "Galarra", Angel Moraleja "Moro", Mikel Loiti "Aker", Igor Ansoategi "Ansu", Fernando Rodriguez "Fertxu", Jose Luis Borbolla eta Luis Miguel Olivenza "Oli".

Aurreko denboraldian, Arrasate Kiroiak eskubaloiko taldeak maila galdu zuen, Espainiako federazioak talde kopurua murriztu egin zuen eta. Gauzak horrela, territorialean aritu ziren mondragotarrak.

Pilota liburua kalean

1992.6.19

ARKOK Arrasateko pilota eta pilotari buruzko historia jasotzen zuen "Pilota" liburua argitaratu zuen.

Zerbitzu berria buruko kolpeentzat

(166/11.or.) 1992.10.16

Aita Menni Ospitaleak

buruko kolpeendako zerbitzua ireki zuen: "Burmuineko lesioak" zerbitzua. Espainian ez zegoen garai hartan horrelako zerbitzua eskaintzen zuten ospitalerik. Ordura arte, horrelako kasuetan gaixoa atzerriera eraman behar izaten zen.

Azokaren inaugurazio ofiziala

(167/9.or.) 1992.10.23

Horrenbeste buruhauste sortarazi zuen azoka inauguratu zen urriaren 16an.

Aldaiko azken Domusantu eguna

(168/12.or.) 1992.10.30

1992ko azaroaren lehena izan zen Aldaiko kanposantuko azken Domusantu eguna.

Arrasate, frantsesen menpeko garaian

(171/9.or.) 1992.11.20

Arrasate Zientzia Elkarteak partaideek, bi urteren ondoren, "Arrasate frantsesen menpeko garaian" liburua aurkeztu zuten, udaletxean. Egileak Jabier Balanzategi, Jose Angel Barrutiabengoa, Javier Egizara eta Inazio Olaizola izan ziren. Juan Luis Aranbarri eta Jesus Mari de la Fuentearen laguntza ere izan zuten.

Senideak elkartean urteurrena

(171/12.or.) 1992.11.20

Monterronen prentsaurrea egin zuen Senideak elkarteak, bere lehenengo urteurrenaren. Besteak beste, Jesus Mari Zabarteren 40 eguneko hirugarren gose greba izan zen kontuan.

Agiritegia prest

(171/13.or.) 1992.11.20

ASA elkarteak osatu zuen Arrasateko argazkien agiritegia. 409 argazki bildu zituen. Agiritegiaren aurkezpena 1993ko urtarrilaren 21ean egin zen udaletxean. ASA elkartearekin batera, Arrasate Zientzia Elkarteak aritu zen lanean.

Santa Barbararen inaugurazioa

(173/12.or.) 1992.12.4



Egun horretan bertan inauguratu zen Santa Barbarako parkea eta bertan agintari asko elkartu ziren. Lanek urtebete iraun zuten.

aurrez aurre



Euskaldunon Egunkaria

EEEBben bahitura ekonomikoak eta EEEko estatuen elkartasun ezak, Nikaraguar bere ahalmen ekonomiko ezin garatu izana ekarri dio. Are gehiago, bere aberastasun eskasak nerri handi batean gerrari eskaini behar izan dizkio. Egoera horrek hamabi urtetan txirotze handia ekarri dio herriari; nikaraguarren lormena hiru laurdenetan jaitsi da.

**ROBERTO SANPEDRO
"PITOTE"**

HBko parlamentaria
1990.4.20

Mondraren 25. urteurrena

(112/18.or.) 1991.7.20

Mondra futbol taldeak 25 urte bete zituen urte horretan. Izan ere, 25 urte lehenago, Mondra Kirol Elkarteak, Mondra Futbol Elkarteak bihurtu zen. Jose Letonaren "Pequeña historia del fútbol en Mon-

dragón" liburuak kontatzen duenez, 1910. urteko udan madrildarrek ekarri zuten futbola Arrasatera. 1913an, berriz, herriko gazteek Club Deportivo Mondragon sortu omen zuten.

**Jose Luis ezkurra***Mondrako lehendakaria*

Bigarren bueltan berriz ere taldearen zuzendaritza kargua hartu genuenok ilusioarekin geunden. 3. mailan zegoen taldea, bigarren B mailako promozioa jokatzeko, eta geroztik gauzak okertzen joan dira eta erregionalean dago orain. Aldaketa handia izan da denon aldetik. Lehen herritar asko joaten zen partidak ikustera, eta ekonomikoki aukera gehiago eskaintzen du horrek. Orain goiko mailetakoko taldeak ere larri dabilta mailari eusteko. Hor ditugu Elgoibarko taldea eta Turing, adibide bezala. Bazkideak ere gero eta gutxiago ditu taldeak. Lehen etxeko jokalariez osatutako taldea eskatzen zen, eta orain etxeko jokalariekin dabil Mondra, baina hori aitzakia da kanpotik. Berriz taldea 3. mailara heltzen bada, etxeko jendearekin helduko da.

**Iñurrategitarak
Makalu gainean**

(121/28.or.) 1991.10.28



Felix eta Alberto Iñurrategi eta Felipe Uriarte pasaitarrak irailaren 30ean Makalu mendiko tontorra egin zutela jaso zuen Arrasate Pressek 121. zenbakian. Makalu mendiak 8.463 metro luze ditu eta munduko bosgarren mendi garaiena da; Himalayako nekezenetarikoa.

Makalu	1991.9.30
Everest	1992.9.25
K-2	1994.6.24
Cho Oyu	1995.9.11
Lhotse	1995.9.27
Kangchenjunga	1996.6.5
Shixha Pangma	1996.10.11
Broad Peak	1997.7.13
Dhaulagiri	1998.5.22
Nanga Parbat	1999.7.29
Manaslu	2000.4.25

1993**■ Txotxueneko udala-
Brues akordioa**

(176/12.or.) 1993.1.15

Txotxueneko etxeak egiten ari zirela eta, arazoak sortu ziren eta kalteak eragin. Construcciones Brues eta kaltetatuko bizilagunek udalarekin akordioa sinatu zuten: hurrengo hamar urteetan etxebizitza arteko oinezkoendako pasabidea zabaltzea.

**■ Arrasateko Margo
Elkartea**

(176/32.or.) 1993.1.5

Urte berriarekin batera, Arrasateko margozaleek

Arrasate Margo Elkarteak eratu zuten. Garai hartan herrian 15-20 margolari zeuden.

**■ Irazolak ezin
Belokirekin**

(178/9.or.) 1993.1.29

Juan Luis Irazola Arrasaten ari zen taxilari, eta Belokiren aurka jokatu zuen bigarren mailako pilota txapelketako finala. Taxilariak, ordea, ezin izan zuen Belokirekin. 22 eta 10 galdu zuen.

**■ Fitz-Roy
mendia garaitu**

(178/24.or.) 1993.1.29

Fitz-Roy mendia (3.441 m.or.) igo zen Txus Martin, lagun durangar batekin, eskalatzen. Mendi horrek

munduko eskalada tekniko zailena duela diote. 200 kilometro orduko abiadurako haizea izan zuten aurka bi eskalatzaileek.

**■ Saskibaloi taldeko
lehendakariak
kargua utzi**

(179/24.or.) 1993.2.5

Jose Mari Balzategik saskibaloi taldeko lehendakari izateari utzi zion. Ekainean egingo zuela iragarri zuen. Urte horretan arazo handiak izan zituen Balzategik taldea aurrera ateratzeko.

**■ Enrike Alonsok
bizikleta utzi**

(180/28.or.) 1993.2.18

17 urte egin zituen

txirindularitzan eta azkenengo urtean Lotus taldearekin ibili zen. 27 urte zituen erabakia hartu zuenean, 1993ko denboraldia hasi aurretik.

■ Peixoto atxilotu

(181/13.or.) 1993.2.19

Jose Manuel Pagoaga "Peixoto" eta beste bost lagun atxilotu zituen polizia frantziarrak otsailaren 16an, Baigorriin. Pagoagak 48 urte zituen. 60ko hamarkadan Iparraldera egin zen ihes. 79an atentatua jasan zuen Donibane Lohizunen eta hiltzorian egon zen. 82tik errefuxiatu politiko estatutua eta betirako erresidentzia baimena izan zuen. 90eko hamarkadan, euskal errefuxiatuen

bozeramailea zen.

**■ Zaldibarko etxe
zaharra erre zen**

(189/9.or.) 1993.4.23

Zaldibarko frontoi pareko Mendikutearren etxe zaharrean sutea piztu zen apirilaren 11n. Biteri kaleko 10. zenbakiko etxea hutsik zegoen aspalditik eta eraikina ere botatzeko erabakia hartua zegoen.



**(absolu
sentsazio biluztua)**

DIM

**(goza ezazu
dohain**

Ikus promozioiko oinarriak

Casa Peciaga

Maalako Errabala,3
ARRASATE
Tel•Faxa: 943 791262

 Clio Renault Sport 2.0 i 16v 172 c.v.

MECA

ARRASATE
Tel.: 943 71 21 67

BERGARA
Tel.: 943 76 40 68

TOLOSA
Tel.: 943 65 28 43

tarjeta **gazte**kutxa txartela



Bizitza abentura handi bat duzu. Eta zuku osoa atera nahi badiozu, hementxe daukazu **GazteKutxa**

Txartel berria. Doakoa da,

handik eta hemendik lasai asko ibiltzeko erabil dezakezuna, eta denetarik egin eta nahi duzun guztia erosteko ere aukera emango dizuna. Orain, gainera, abenduaren 31 arte, erosketak musutruk egin ditzakezu "Dohainik Erosi" sustapenaren baitan.

Besterik behar, ala?

www.gaztekutxa.net
e-mail: gaztekutxa@kutxa.es
900 40 41 42

Egin klik! hemen,
abenturan jarraitu eta sariak
irabazi ahal izateko.



gaztekutxa

EMAKUMEON TXOKOA

San Joan Jaiak

Eraso sexistarik ez!
Ez zaitetz pasa... ezta pasatzen utzi ere
Disfruta Itzan hire herriko jaiak!

Arrasateko komiki ez sexisten III. lehiaketa

"Komiki ez sexistak, gizarte ez sexista"

- **Epea:** 2000ko uztailak 21.
- **Sariak:** Komiki onena 90.000 pta.
Aukera berdintasuna lantzen 60.000 pta.
Emakume egilearentzat 60.000 pta.
Gazte Saria: 30.000 pta.
Euskara Saria: 30.000 pta.

Argazki lehiaketa

"Gazteak eta arrazakeria"

- **Epea:** 2000ko urriak 11.
- **Sarien artean, emakumezkoen** ikuspuntua/mundua/errealitatea hobekien islatzen duen argazkiari sari berezia.

Emakumeen kontseiluaren bilera

- **Uztailaren 4ean, arratsaldeko 16:00etan.**
- **Arrasateko Udaltxeko 3. solairuan.**
- **Bilera irekia:** aukera berdintasuna eta emakumeen partehartzea bultzatzeko.

Hartin aldizkaria edo/eta sexologia zerbitzuko triptiko informatiboa etxean ez baduzu jaso gurekin jarri harremanetan.

Informazio gehiago, Arrasateko Udaleko Emakume Sallean, deitu 943 79 09 00 edota 943 79 41 39 telefonostara. Gerturatu Arrasateko Udaltxera, herriko plazara.
Helbide elektronikoa: emakume@arrasate-mondragon.net



ARRASATEKO UDALA

Emakume Salla ■

Errugbi zelaia konponduko da

(124/24.or.) 1991.11.1

Udal agintariek Garagartzako errugbi zelaiaren egoera penagarriari irtenbidea emateko 410.000 pezetako aurrekontua onartu zuten konpontze lanak egiteko.

Joseba Maidagan

Arrasate Errugbi taldeko jokalaria

"Orain dela 10 urte, Arrasate Rugby Taldeak Iturripeko "zelaian" jokatzeko zuten. Garagartzaldera bidali zuten, behin-behineko "zelaian" jokatzera, bi-hiru urtera benetako errugbi instalakuntzak egin behar zituztela eta; gaur egun entzuten den proiektuaren lursail berberetan, kiroldegi eta Mojategi artean.

Urte hauetan kirol "celebre" honek eskaintzen dituen arazoak gairitu. Jende ugari egiten du kirol hau eta azken bi urteetan maila ona erakutsi dugu.

Hau dena esanda, animue, umorie eta ea egixe den, penaz bada be, Garagartzatik alde eta benetako belar baten eitzen ditugun gure eginbeharrekoak."

Eguneko ospitalearen inaugurazioa

(126/11.or.) 1991.11.15

Azaroaren 18an inauguratu zuten Uribe auzoko Eguneko Ospitalea. Bertan izan ziren, besteak beste, erakunde psikiatrikoaren ordezkariak, Osakidetza buru osasuneko zuzendariak eta Osasun sailburua, garai hartan Iñaki Azkuna.

Ospitalea irailean hasi

zen lanean. Santa Agedan sartzeko besteko larritasunik ez duten gaixoentzako ireki zuten Uribeko ospitalea. 20 pertsonako talde bat sortu eta eurekin aritzea zuten helburu. Horretarako sendagile bat, hiru psikologo, gizarte laguntzailea eta begirale bat hasi ziren lanean.



Juan Carlos Aristorena

Aita Menniko prentsa arduraduna

"Aita Menni Eguneko Ospitaleak 1991n hasi zuen bere jardura. Zerbitzu berri honekin ospitaleak lehenengo urratsa eman zuen Arrasateko komunitatean buru-osasuneko zerbitzuak zabalteko. Proiektu horrekin, Debagoienean nabaria zen behar bati erantzuna eman zitzaion, ospitale psikiatriko eta buru-osasuneko zentroen arteko hutsunea betetzearekin batera. Modu horretan, ospitalean egoteko beharrik ez zuten gaixo psikotikoen buru-osasuneko zentroek eskaini dezaketena baino laguntza orokor eta trinkoagoa jaso dezakete".

aurrez aurre



Zientzia gizona, lasaitzeko egina dagoen bezala, artea gizona larritzeko da. Liburu batek ona izateko, bere buruaz eta bere existentziaz sortarazi behar dizkio galderak.

ANDU LERTXUNDI

Idazlea
1990.5.25

■ Kartel eta pintaden araudia

(192/12.or.) 1993.5.14

Otsailean onartu zen kartel eta pintaden araudia. Pankartak, kartelak eta pintadak debekatzen zituen araudiak, hauteskunde garaian izan ezik. Araudia Euskal Udalen Elkarteak onartu zuen. EAJ eta PSeren aldeko botoekin onartu zen, baina EAJK berak ere alegazioa aurkeztu zuen: pintadak debekatzea, baina kartelak baimentzea proposatu zuen.

■ Kataideko zubia inauguratu

(193/13.or.) 1993.5.21

Maiatzaren 15ean inauguratu zuten Kataideko

zubi metalikoa. Errepidea arriskurik gabe igarotzeko egin zuten zubia Eroskiren ondoan.

■ Motorzaleen bilkura

(193/25.or.) 1993.5.21

San Isidroak zirela eta, Arrasateko Motorzale elkarteak motorzaleen bilkura antolatu zuen. Euskal Herriko motorzaleez gain, Sevilla, Girona, Valladolid eta Burgostik ere etorri ziren Musakolara motorzaleak. 300 bat lagun guztira. 1988tik ez zen egiten herrian horrelako bilkurarik.

■ Informatika gela Monterronen

(193/33.or.) 1993.5.21

IMI proiektuaren jarraipena

izateko asmoz, Monterronen informatika gela jarri zuten 10-12 ordenagailurekin. Begirale lanetan, Iñigo Esnaola hasi zen.



■ "Okupak" kalera

(197/17.or.) 1993.6.18

Garai batean eskautak oso ezagunak egin ziren Euskal Herrian eta Arrasaten ere horrela gertatzen zen. Baina, euren egoera ere aldrebestu egin zen, udalak euren etxeak utzi behar zituztela esan

zienean. Ferixalekuko ikastetxearen goiko solairuan bizi ziren "okupei" euren etxebizitzak uztaileko utzi beharko zituztela agindu zien. Bi urte lehenago sartu ziren bertara bizitzera. Bi pisu okupatu eta konpondu zituzten.



■ Koadrilek jai egitaraua boikoteatu

(197/26.or.) 1993.6.18

San Joan jaietarako

egitarauan ez zutela parte hartuko erabaki zuten herriko koadrilek. Ordura arte, koadrilak arduratzen ziren makala plazaraino ekarri eta jartzeaz. Horri uko egin zioten. Hamabost koadrila elkartu ziren egitaraua aberasteko asmoz, azken urteetan San Joan jaiak gainbehera zetozela eta. Baina, eurek aurkeztutako aurrekontuaren erdia onartu zien udalak.

■ San Juan parrokia berritzeko

(198/18.or.) 1993.7.2

San Juan Bataiatzailearen eliza, Getariko elizarekin batera, Gipuzkoako aztarna gotikorik garrantzitsuenaren eta 1993an eraberritzen

aurrez aurre



Ni ez nago dialektoen aurka, bakoitzak bere sistema duelako. Ni, orain, batua izenez ezagutzen denaren kontra nago, hori ez delako egiazko batua.

FEDERIKO KRUTWIG

Euskaltzaina

1991.3.8

Mertzedariak 100 urte


(142/11.or.) 1992.3.13

1892ko maiatzaren 1 In iritsi ziren Mertzedariak Arrasatera. 1992an, beraz, 100 urte bete zituzten herrian. Hori dela eta, hilaren 30etik apirilaren 5 arte, ospakizunak antolatu zituzten.

1892an, bost mertzedaria etorri ziren Arrasatera, Bergarako Genoveva Untzueta buru. Frantziskotarren komentuko eraikuntzan gorde zieten tokian sartu eta ospitale, eskola eta egoitza bihurtu zuten. Ospitale Zaharrean,

mertzedariak tuberkulosi gaixoak zaindu zituzten garai batean. 1984an Iturbide egoitza zabaldu zen eta ospitale zaharrean zeuden erretiratuak hara eraman zituzten.

1992an 30 mojetatik bederatzik Eskualde Ospitalean ari ziren; bost Santa Agedan, bat Iturbide egoitzan, eta hamazazpi La Merced ikastetxean. Azken hauetatik sei ari ziren orduan eskolak ematen. Ikastetxean 531 haur ari zen ikasten.



Uarkapekoak Azatzakoen zain

(154/11.or.) 1992.6.12

Uarkapeko etxebizitzek zeresan handia sortu zuten herrian eta luze ere jo zuen kontu horrek. Ekainean *Arrasate Pressen* jaso zenez, esaterako, lanak berriz ere hasi ziren, epaileak horretarako baimena eman zuelako.

Uarkapeko etxebizitzaren erosleek prentsaurrea eskaini zuten ekainaren 10ean, Azatzakoen erantzunaren zain zezudela adieraziz, arazoak konpontzeko. Eraikuntza enpresek eta udalak hitzarmena sinatu zuten eta horren arabera Azatzakoei 40 milioiko kalte ordaina ematea jasotzen zen. Azaldu zutenaren arabera, lanak bi urtez atzeratzeak 1.000 milioiko galerak sortu zituen.

Lanak denbora luze egon ziren geldik, lur mugimenduak egon zirela eta. Hori dela eta, lurra eusteko horma bat egiten hasi ziren, baina horrek ere arazoak izan zituen eta lan horiek ere atzeratu egin ziren.

hastea erabaki zuten. Horretarako, herritar talde bat hasi zen lanean Jose Mari Astigarraga parrokoak bultzatuta. Talde eragile horretan hamalau lagun hasi ziren lanean. Lehenengo proiektuak 81 milioiko aurrekontua izan zuten, Mikel Lasa arkitektoak egindakoa.

■ Hezurak agertu ziren Roneoko lanetan

(199/11.or.) 1993.7.11

Roneoko etxeetan egiten ari ziren lanak zirela eta, hainbat pertsonaren hezurak aurkitu zituzten langileek. Forentseek XVIII-XIX. mendeko hezurak izan zitezkeela adierazi zuten (1810. urteko Independentzia Gerrakoak),

Hezurak trenbide zahararen azpian agertu ziren. Trenbidea 1864tik 1967ra egon zen martxan. Inguru berean guardia zibilaren kuartela eta mojen komentua egon ziren.



■ Lehenengo auzolandegiak

(200.18.or.) 1993.7.16

AEDk lehen aldiz antolatu zituen auzolandegiak. Lapurdiko Kanbo herriko

Xalbador ikastolan lan egiteko asmoz antolatu zituen.

■ Escatuko negozio berriak aurki abian

(202/11.or.) 1993.9.3

San Andres auzoko Escatu eraikuntzaren berriztapena ia amaituta zegoen eta bertan extremaduraren elkarteak Corazon de Encina egoitza egiteko tokia izan zuen.



■ Ivan Sanchez Quetzal Rutan

(202.15.or.) 1993.9.3

Hamasei urteko arrasatearra aukeratu zuten, Quetzal Rutan parte hartzeko. Honduras, Guatemala eta Mexikoko basoetan barrena zebilen ordurako Ivan Sanchez urriaren 10a arte.

■ "Arrasate Gure Herria" liburua

(204/28.or.) 1993.9.17

Iñigo Ramirez de Okariz antzuolarrak eta Irakasle Eskolako irakasleek aurkeztu zuten "Arrasate Gure Herria" liburua. Udalaren laguntzaz argitaratu zen herriko historia.

■ Arrasate, euskalgintzaren hiriburua

(210/11.or.) 1993.10.29

AEDk antolatutako Euskara elkarteei zuzendutako I. Jardunaldiak egin ziren urriko azken asteburuan herrian. AEDren 10. urteurrenaren inguruan antolatu ziren jardunaldiok eta 140 lagun matrikulatu ziren bertan parte hartzeko. Guztira 50 herritako ordezkariak elkartu ziren LKSren egoitzan.

Udalak MCM erosi zuen 200 milioitan

(159/11.or.) 1992.7.24

MCMko lantegia erostea erabaki zuen udalak osoko bilkuran. Eraikuntzak 3.700 m² zituen eta udalak 500 m² INEMi ematea erabaki zuen. Beste 3.200 m², Debagoieneko udal elkarteentzat izango zirela aurreikusi zuen. Horrela, bada, Debagoieneko Mankomunitateak Lanbide Eskola bertan jartzea erabaki zuen.

UREA ZINEMA

Egun horretako osoko bilkuran bestelako erabakirik ere hartu zen, Gurea zinema botatzea, hain zuzen ere. Urtebete lehenago zinema inguruan bizi ziren auzotarrek eraikinaren egoera kaskarra salatu zuten udaletxean. Hirigintza batzordeak adierazi zuen eraikuntzaren barne egitura txarto egoiteaz gain, osasun baldintzak txarrak zirela eta instalakuntza elektrikoa gaizki zegoela.

Gauzak horrela, 10 milioi ordainduta, abuztuan botako zutela erabaki zuten eta apar-kalekuak jarriko zirela.

Lanpostu gutxiago eta erretiro gehiago

(165/11.or.) 1992.10.9

Garai txarrak bizi izan ziren Arrasaten urte horietan eta horren adibide izan ziren Fagorren 50 lanpostu gutxitu zirela bulego orokorretan, 36 Fagor Automotionen eta Fagor Arrasate, Fagor Automotion, Fagor Elektratresnak, Fagor Ederlan eta Fagor Elektronikan egutegi mugikorra jarri zutela.

Kooperatibetatik kanpo

egoera ere ez zen batere ona. UCEMeko Transformados Metalicos enpresan 109 langileetatik 70 erregulazioan zuden (6 hilabetez langabezian). Zentzu horretan, enpresa itxi eta beste elkarte berri bat sortzeko egitasmoa zegoen. Elkarre berrian 52 langile arituko lirateke. Polmetasan, bestalde, 178 langileetatik 40ri kontratua eten zieten.




Uarkapeko auzia konponbidean

(174/15.or.) 1992.12.18

Azata kooperatibak eta udalak azkenean akordioa sinatu zuten eta, horrekin batera, Azatzako biztaleek jarritako eragozpen guztiak bertan behera gelditu ziren.

Horri esker, hormaren lanak eragozpenik barik egin ahal izan ziren eta zerbait gertatuz gero, udala 250 milioiko abala jartzeko prest agertu zen.

aurrez aurre



Arrasate Presseko hasierak kaotiko samarrak izan ziren, beti presaka. Ni erakustera joan nintzen, eta kazetariak eta ideia sortzaileak nahiko presaka zebiltzan zero zenbakia ahalik eta azkarren ateratzeko. Lanpetuta nenbilenez, bezperan joan eta gaupasak egiten nituen, hiru edo lau, 36 ordu segidan.

JOSE LUIS AGOTE

Itzultzailea eta maketzailea
1991.3.22

■ "Dragoi" k Bideo Lehiaketa irabazi

(210/32.or.) 1993.10.29

Euskal Herriko 6. Bideo

Lehiaketa irabazi zuen Dragoi Bideo produkzio-etxeak.

Iban Ayesak, Josu

Galdosek eta Xabier Elduaienek sortu zuten enpresa eta Udalako Ingurugiro Eskolari buruzko bideo batekin irabazi zuten lehiaketa.

gero igartzen ziren zuloak, baina 1730eko erretoa zela kontuan izanik, ezin zitekeen horrela utzi. Urriaren 18an eliza itxi egin zen fumigatzeko.



■ San Frantziskoko erretaulako sitsa

(210/33.or.) 1993.10.29

Bost urte lehenago iritsi

zen Aita Agirretxe San Frantzisko elizara eta ordurako erretoa zuloz beteta zegoela kontatzen zuen berak. Erreतालatik 30 cm.ra egonez

■ Txalaparta taldeak lokalik ez

(211/33.or.) 1993.11.3

Lau urte lehenago udalak txalaparta ikastaroa antolatu zuen eta ordutik lagun talde bat txalaparta jotzen ari zen

Focus TDdi

Injekzio zuzena
1.975.000 pta.

Prever plana
eta deskontuak barne

MUGARRI

943 79 07 44

HIES BERRIA

Tel.: 943 79 26 99


U N Z U E T A

J A T E T X E A

- Eguneko menua
- Espezialitatea: Txuleta parrilan
- Karta

Zabola auzoa. ARAMAIO • Tel.: 945 44 50 95

aurrez aurre



Euskal Herria txikia da eta ezin dugu gaur hemen eta bihar aldameneko herrian kantatuz ibili. Horregatik, uste dut inportantea dela kanpoan ere kantatzea, batez ere gazteentzat, nahiz eta Estatuan zailtasun handiak dauden. Agian orain Europan...

MIKEL LABOA

Kantaria
1991.6.14


Arrasate Txirrindulari Elkarte

(174/15.or.) 1992.12.18

Herriko Txirrindulari elkarte desargertzeko arriskuan egon zen, baina zuzendaritzak

ordezkoak aurkitu zituen.

Joseba Etxagibel lehen-dakari izendatu zuten.

**Jorge Markiegi***Arrasate Txirrindulari Elkarteko lehendakari ordea*

"Urte batzuk pasatu dira, 8 hain zuzen ere, Arrasateko Txirrindulari Elkarte sortu genuenetik eta ekintza asko antolatu ditugu urte hauetan:

- Euskal Herriko Itzuliaren irteera 1994. urtean eta horrekin batera aste kulturala.
- Euskal Herriko Itzuliaren bukaera, 1997. urtean.
- Gazte mailako mundial aurreko proba handia.
- Gipuzkoako Txapelketak 1999. urtean.
- Nekez ere, 35 lasterketa, hainbat mailatakoak.

Eta, batez ere, gure herritik erantzun handia izan ez duen afizionatu taldea. Talde horri esker, Ivan Sastre goiko mailan dago, Festina taldean.

Nahiz eta aurrekoa garrantzitsua izan, berriro zoriondu nahi zaituztegu euskararen alde egindako lanagatik eta guri emandako laguntzagatik. Eskerrik asko".

Aldi bereko itzulpenaren estreinaldia

(167/13.or.) 1992.10.23

1992ko urriaren 23an jarri zen abian osoko bilkuran aldi bereko itzulpen zerbitzua.

Zerbitzua erabili ahal izateko inbertsioa 2,8 milioikoa izan zen.

Karmelo Uribarren*Udal itzultzailea*

"Atzera begiratu eta urrun samar ikusten ditut orduko gorabehera hareik. Tresnak-eta material biltzeko gelatxoan dagoz: tb monitorea bi, mahai gaineko tresneria eta aurikularrak, entzun eta berba egiteko; aretoan, barrez, kamerak eta alboetako pantallak. Hori guztioi zertarako baina? Euskaraz aditu (ulertu) eta egiten ez dauien politikariei euskaraz esaten dana gaztelaniaz adierazteko. Buruhauste galantak izan nituen euskeraz esandakoa erderaz esateko; izerditan, artegajoaten nitzen. Berbetan hasi orduko gorriak ikusten nituen. Orain beste kontu bat da. Esan neike lasai eta tenplau egoten nazela".

herrian, baina lokalik barik geratu ziren hilabete bat lehenago. Ordura arte Telefonikako eraikin zaharrean egon ziren.

II. Jardunaldiak

(214.or.) 1993.11.27
ARKOk herri-komunikabideen II. Jardunaldiak antolatu zituen.

**Kristina Zeziaga askatu zuten**

(218/11.or.) 1993.12.31
Aste horretako asetelehen askatu zuten Kristina Zeziaga arrasatearra. 1989ko irailean atxilotu zuten. Carabanchel, Yeserias, Avila, Lugo eta Logroñoeko espetxeetan egon zen.

Urkuluko ura ordaindu behar

(218/13.or.) 1993.12.31
Foru Aldundiak erakunde berri bati pasatu zion eskuldeko urtegien kontrola. Gipuzkoako uren partzuergoa hasi zen gestionatzen Urkuluko urtegia. Ondorioz, Arrasateko Udala ur horren erabilera ordaintzen hasi zen.

Uraren kuota %10 garestituko zela aurreikusitako udalak. Prezio berria: metro kubikoko 43 pezeta.

1994**ATBri AUKEA saria**

(219/25.or.) 1994.1.14
Arrasate Telebistak, Arrasateko kirolari egindako jarraipenagatik, AUKEA saria jaso zuen 1993an. Saria Iñigo Andola kameralaririk jaso zuen. Publikoaren sari berezia ere egon zen, Arrasate Presseko orrialdeetatik hartutakoa: Luis Mari Lopez Rekarte futbolariari eman zioten.

San Andres auzorako parrokia

(222/12.or.) 1994.2.4
San Andres eta Uribarri auzoek parrokia-barruti berria osatu zuten eta eliza berria egiteko asmoa erakutsi zuten. San Andres eta Uribarriko parrokia berriak orduan 9.000 biztanleko eremua hartuko luke. Parrokiak eliza ere aurreikusten zuen, Asuntzionisten eraikinean, San Viator Txiki ikastetxearen ondoan.

Arrasate Musikalek kamara-musika taldea

(222/29.or.) 1994.2.4
Luis Ignacio Ruiz de Alegria aspalditxo zebilen horrelako talde bat eratzeko asmoz eta, azkenean,

"Arrasateko Kamara-musikako Taldea" eratu zuten.

Abenduaren 29an egin zuten lehen kontzertua Urrethun eta urtarriaren 2an Arrasaten.

Legargaineko etxeak

(223/13.or.) 1994.2.11
Osoko bilkuran Legargainen etxeak egiteko baimena eman zuten udalak. Hala ere, erabaki hau eztabaidatua izan zen. Garai hartan Arrasateko biztanleria gutxitu egin zen eta zenbait zinegotzik ez zuten beharrezkoa ikusten etxe gehiago egitea.

Intsumisioaren aldeko plataforma

(224/11.or.) 1994.2.18
Arrasateko Antimilitaristen

JANTZIDENDA

LASAGABASTER

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

ETXE APAINKETA



Analisi klinikoentzako odol ateratze zentro berria, Arrasaten



Orain, Mendia zentru medikoan, odol ateratze zentro berriaren zabalera

- Azterketa hematologikoak eta medikuntza prebentiboko ikerketa biokimiko, hormonal eta serologikoak,... egiten dira.
- Enpresa, talde eta partikularren analisi klinikoak egiten dira.
- Aseguru konpainia nagusiekin hitzartutako zentroa: LAGUN-ARO, PREVIASA, AEGON ...
- **Odol ateratze ordutegia:**
Astelehenetik ostiralera: 7 1/2tik - 10etara
Larunbatak: 8 1/2tik - 10etara.



Medikuntza Zentroa. Mendia jauregia
Erdiko kale, 22 • ARRASATE. Tel.: 943 79 72 16

Erla
Analisi
klinikoak

Nº Registro sanitario 859/96

**Arrasateko Udala ere pozten da Arrasate Pressekin
argitaratu dituen 500 zenbakiengatik**

Eskerrik asko eta ale askotarako

500. zenbakia

**Zorionak Arrasate Press
Zorionak Arrasate**



ARRASATEKO UDALA

San Josepe ixteko hitzarmena

(179/13.or.) 1993.2.5

Ingurumenean eragin nabarmena zuela eta, udala eta San Josepe harrobiko arduradunek hitzarmena sinatu zuten. Aurrera egingo balu, harrobiko lanak gelditu beharko lirarteke eta harrobia itxi.

Jabier Abalde

Ekologista

“Gipuzkoan dauden hamasei harrobietatik hiru gure herrian daude eta, seguru asko, aparteko onura aterako diete egokitu zaizkigun azpiegituretan faraonikoei esker. Naturaren lege logikoak behin eta berriz alde batera utzi eta produkzioan oinarritutako bizimodua daramagu. Ez dugu ahaztu behar denok galtzen ateratzen garela harrobiekin: zarrata, hautsa, lurzorua galtzea, fauna eta flora desagertzea, produktu arrisksuak isurtzea, berritzen ez den kare-harria galtzea eta paisaia horren hondamena, ezi-nezkoa da leheneratzea”.

Arrasate Press / 2000.6.9

Seber Altubeko ludoteka zabalik

(176/33.or.) 1993.1.15

Urtarrilaren 11n ireki zituzten Seber Altubeko ludotekaren ateak. AEDren ekimena izan zen ludoteka eta hasiera batean, OHoko 4. maila-

tik 8. mailara arteko umeei zuzendu zen. Umeak bazkide egiteko aukera zuten eta bi funtzio nagusi zituzten: pedagogikoa eta ludikoa.



Langabeziaren datuak Debagoiengan

(189/22.or.) 1993.4.23

	Guztira	Industria	25 ↓	25 ↑
1992 (azaroa)	2.944	1.132	1.127	1.817
1993 (urtarrila)	3.028	1.227	1.135	1.893
1993 (otsaila)	3.037	1.219	1.136	1.901

aurrez aurre



Osorik beharrezkotzat jotzen dut, batez ere, euskarazko prentsa; uste dut euskaren alde seriozki lan egitea nahi badugu, prentsa lokalak baduela bere esparru berezia, alde askotatik begiratuta; esate baterako tokian tokiko hizkuntzaren berezitasunak lantzeko aukera ematen du”.

GORKA KNÖR,

Kantaria

1991.11.15

Taldeak, herriko bi-intsumisio epaitu behar zituztela eta, plataforma bat eratzea erabaki zuen, gizarte-plataforma bat. Helburua, kartzeleratutako intsumisioei eta soldadutzari uko egiten dietenei elkartzasuna adieraztea zen. Garai hartan bi urte baino gehiagoko kartzela zigorrak ipintzen zizkieten intsumisioei.

■ AEDren gazte lokalak auzoetara

(225/11.or.) 1994.2.25

Urteko batzar orokorra egin zuen AEDk eta bertan aurkeztutakoaren arabera, 1994. urterako asmo berrien artean, auzoetan gazte lokalak jartzeko izan zen. Gazte Txokoak izango lirarteke eta

Santamainako esperientzia auzoetara zabaltzea zen helburua. San Andres eta Musakolan ia prest zeuden Gazte Txokoak proiektua aurkeztu zenean eta Erguin-Uribarrin ere beste bat egiteko gogoia agertu zuten AEDko kideek.

■ Juan Kruz Guridiren errautsak etxeratu

(225/24.or.) 1994.2.25

Juan Kruz Guridi pilotari arrasatearraren errautsak Arrasaten lurperatu zituzten. Azken urteetan Mexikon bizi izan zen zesta puntako pilotaria. 1908an jaio zen eta 1926an Ameriketara joan zen.

■ Hezurak San Joan parrokian

(227/12.or.) 1994.3.11

San Joan parrokiaren berritze lanak zirela eta, eliza azpitik milaka hezur agertu ziren. XVI-XVIII. mendeetan hilerri bezala erabili omen zen elizaren beheko lurra.

■ Erreka estali behar Maalan

(228/12.or.) 1994.3.18

Aramaio erreka estali beharra ekarri zuen Maalan egin zen biribilak. Lanek 30 milioi pezetako aurrekontua izan zuten.

■ Maltzaga-Urbinao IGPak amaitu ziren

(230/10.or.) 1994.3.30

Interbentzio Gune Partehartzailleen prozesua amaitu zen martxoaren 24an Gasteizen. Urtariletik hamalau gune bildu ziren, 25 laguneko lan taldeetan.

■ Euskal Herriko Itzulia Arrasaten

(230/12.or.) 1994.3.30

Apirilaren 4an Arrasaten hasi zen Euskal Herriko Itzulia. Bere 34. aldian zuen Itzulia eta lehenengo etapan 117 kilometro egin zituzten 20 taldeetako 160 txirrindulariek.

■ Museo industrialaren proiektua

(231/11.or.) 1994.4.15

Arrasateko museo industrial bat izan dezan, sei hilabeteko beka bati esker, museo horren proiektua egin zuen Isabel Aramendiak. Arrasateko etnografia, historia eta industria ondarea gordetzeko asmoz egin zen museoaren proiektua.

■ Adore Taldea

(233/8.or.) 1994.4.29

Droga trafikokoaren inguruan ustelkeria salatuzko sortu zen Adore taldea. Sei hilabete lehenago sortu zen eta Arrasateko Askagintza eta Hies Ekimena taldeak ere hortxe sartu ziren, Hego Euskal Herriko 49 taldeekin batera.

aurrez aurre



Euskaldunon Egunkaria

Geroa eta oraina, dena du herri-prentsak. Estatu Batuetan nazio mailako lau egunkari baino ez daude. Profesionaltasuna, seriotasun informatiboa eta kalitate teknikoa eskainiz gero, ez dut uste porrot egin lezakeenik herri-prentsak.

MATIAS ESCRIBANO

Kazetaria
1991.11.23

Tunantes del Nortek lan berria

(190/32.or.) 1993.4.29

“Una de casas” izan zen Tunantes del Norte antzerki talde mondragoetarrak aurkeztu zuen lan berria. Taldea Mentxuk, Kermik, Iñigok, Lorillok, Anderrek, Albertok, Santik, Joxemak eta Rubenek osatzen zuten eta

azken hau, taldeak egiten zuen seigarren muntaia handia izan zen. Inoren testuak erabili barik, euren lan propioak egiten zituzten eta antzerki alternatiboa egiten zuten, batez ere, mugitzen ziren lekuak kontuan izanda.

**Merkatarien kezkak jasotzeko zerbitzu berria**

(191/22.or.) 1993.5.7

Ibai-Artek (Erdi Aldeko merkatarien elkarteak), Mankomunitateak eta Eusko Jaurlaritzak lagunduta, Debagoieneko merkatariei zuzendutako zerbitzua ireki zuen Arrasaten. Hiru helbururekin hasi zen lanean bulegoa: dendariei informazioa eskaintzea, aholkularitza teknikoa ematea eta ikastaroen bidez, formazioa osatzea. Garai hartan Olatz Muruamendiaraz zen zerbitzu horretako arduraduna.

Gazte mobidaren lehen pausoak

(195/26.or.) 1993.6.4

1992-93 ikasturtearekin batera, AEDn talde berri bat hasi zen lanean: Gazte Mobida. Han elkartu ziren gazteek Arrasate Presi adierazi ziotenez, talde hau sortzeko arrazoiak jendea ezagutzeko aukera, giroz aldatzeko, tabernetatik ateratzeko, euskararen arloan zerbait egiteko eta, azken batean, beste alternatiba bat izatearren izan ziren. “Sekta Pandereta” gaitzizena ere jarri zioten garai batean talde honi Arrasaten. Giro ezberdinak bizi ziren seinale.

**Roneo zaharra bota**

(233/11.or.) 1994.4.29

Zigorrolako Roneoko lantegi zaharra bota eta merkatal zentro bat eraikitzeko asmoa agertu zuen Viuc SA enpresak. Asmoa lehendik bazegoen ere, eraikina oso egoera txarrean zegoenez, bota eta berria egitea erabaki zuen jabetzak.

Roneoko lantegia 1964an eraiki zuen Olanar arkitekto



ezagunak eta porlanezko egitura trinkoz egin zuen (2.500 metro beheko solairuan eta 4.100 goikoan). Roneoko lantegia urteak zeramatzen hutsik.

“Arrasate” gaztelua aurkitu

(233/28.or.) 1994.4.29

Santa Barbaran “Arrasate” gazteluaren aztarnak aurkitu zituzten, XII. mendekoa, adituen esanetan. Lau langile ibili ziren indusketa lanetan, Mertxe Urteaga eta Maria del Mar Lopez Colonen zuzendaritzapean.

Agur 695 eserleku urdine

(244/25.or.) 1994.9.2

Hamabost urte luzez Amaia antzokiak izan zituen eserleku urdinak kentzeko erabakia hartu zuen udalak. Abuztuan hasi ziren konponketa lanak. Ordutik, antzokiak 40 eserleku gutxiago ditu.

David Scott amerikarra

(245/22.or.) 1994.9.9

Urbina-Maltzaga saskibaloi taldeak David Scott jokalaria amerikarra kontratatu zuen. Hegal pibot bezala jokatu zuen berak eta ordura arte, Indianako Graceland Christian taldean aritu zen. Berarekin

batera, beste lau fitxaketa egin zituen taldeak: Alvaro Coca (Caja Bilbao.or.), Iñaki Arrue (Señorio de Zuasti.or.), Iñigo Pastor (Askatuak.or.) eta Iñaki Txintxurreta (Basconia-Taugres.or.).

Ferixalekuaren inaugurazioa

(246/9.or.) 1994.9.16

Aste horretako astelehenean ireki zituen ateak Ferixalekuko ikastola berriztuak. Ekitaldian, SFXko lehendakari Joxemi Arregi eta Antonio Campos ikastolen federazioko lehendakaria izan ziren.

Autoentzako zerbitzua gunea ia gertu

(246/11.or.) 1994.9.16

Autoak garbitu eta zenbait konponketa egiteko zerbitzua gunea prestatu zuen udalak Garagartzan. 300 m² zituen guneak eta 5,4 milioi pezetako gastua izan zuen.

“Langai” Lanbide Hastapenean

(248/12.or.) 1994.9.30

1999a arte hartu zuen Langaik Lanbide Hastapenaren ardura. 1994-95 ikasturtean 16-18 urte bitarteko 89 ikasle matrikulatu ziren.

Kirol bakoitzari erantzun bat



ARRASATE
KIROLAK

aurrez aurre



Erakusketa honek izugarrizko gastua suposatzen du.

Askotan neure buruari galdetzen diot ea merezi duen horrenbeste gastu egitea. Bestalde, profesional modura begiratuta, kultura, teknologia eta beste hainbat alderdieta-tik gertakizun oso garrantzitsua dela uste dut.

ENRIKE FORONDA

Kultur Bideetan proiektuaren buru Expo 92an
1991.11.29

Eskola Politeknikoak 50 urte

(196/18.or.) 1993.6.11

1943ko urrian ireki zuen Jose Maria Arizmendiarretak Eskola Politeknikoa. Hogei ikaslerekin hasi zen proklama kaleetan, 43ko abuztuaren 2an. Biteri egoitzan tokia lortu zuen eta 1952an Zentro Asistentziala izan zen

tokira joan zen. Egoitza hartan 150 ikasle aritu ziren.

1963-64. urteko ikasturtean Iturripeko eraikineren joan ziren. 1957. urtean eratu zen formalki heziketa profesionala Eskola Politeknikoan.

Jabier Retegi

Eskola Politeknikoko zuzendaria

"Mondragon Eskola Politeknikoak 1993an bere 50. urteurrena ospatu zuenetik, aldaketa handi eta esanguratsuak gertatu dira bere baitan:

1995 eta 1996. urteetan zehar, Mondragon Unibertsitatea buru-belarri aritu zen Oñatiko ETEO eta Eskoriatzako Irakasle Eskolarekin, unibertsitate-proiektua diseinatzen. Lan eskerga horrek bere ordaina izan zuen 1997ko maiatzean, Euskal Legebiltzarrak Mondragon Unibertsitatea unibertsitate pribatu bezala onartu zuenean.

Hori erronka itzela zen MEPentzat: ordura arte Industria Ingeniaritza Teknikoko Eskola izan zena, hau da, 1. Zikloko ikasketak baino eman ez zitzaizkeena, Goi Eskola Politekniko izatera pasa zen; hau da, Ingeniaritza Teknikoetz gain, Goi Ingeniaritzak eta Doktoradutzak eman zitzaizkeen. Beraz, irakas-kuntza maila altuagoak eman ditzake orain eta ikerketari bultzakada berria eman zaio harrezkero.

2000-2001 ikasturteari begira, titulazio eta doktoradutza programa ugari eskainiko ditu Mondragon Eskola Politeknikoak".

Errementari dantza

(197/38.or.) 1993.6.18



1993ko San Joanetarako herriko dantzariak ikuskizun berri bat prestatu zuten: Errementari dantza. Arrasate Musika-Ingurua gorpuztu zen asmoa eta Lore Gazteak eta Arrostitz dantza taldeek dantzatzeko zutela erabaki zuten. Dantza horretarako herriaren

sinbolo izango zen 10 metroko dragoi mugikor bat egin zuten. Jon Iñaki Izarzelaiak Errementari dantzaren koplak egin zituen eta dantza koordinatzen Jose Ramon Vitoria ibili zen. Udalak 600.000 pezetako dirulaguntza eman zien proiektua gauzatzeko.

■ Gestore berria Cerrajeran

(248/13.or.) 1994.9.30

Hilabeteetako negoziazio-ondoren, Consulting Zubizarreta izendatu zuten Cerrajera eta Transformados Metalicos enpresetako gestorea. Bideragarritasun plana egitea izan zuen lehen lana aholkularitzak. Cerrajeran 82 lagun ari zen lanean eta Transformadosen, berriz, 94.

Udalak inguru horretan Enpresa Berritzaileen Zentroa egiteko asmoa ere agertu zuen garai horretan.

■ ASaren lokal berria

(249/9.or.) 1994.10.7

Aurreko asteko ostegunean ireki zen ASA, argazki

taldeko lokal berria. Erguin auzoan kokatu zuten egoitza.

■ Arrasateko udal egitasmo orokorra

(250/9.or.) 1994.10.14

Urriaren 17tik azaroaren 18ra bitartean jendaurrean ipini zuen udalak Arrasateko udal egitasmo orokorra. Harresi aretoan aurkeztu zuen eta bitartean hitzaldiak ere eman ziren.

■ Gorostiza baserria monumentu

(251/11.or.) 1994.10.21

Uribarri auzoko Gorostiza baserria monumentu izendatu zuen Eusko Jaurlaritzak, Erdi Aroko dorretxeek zituzten ezaugarriak zituelako. 1530.

urte aldera eraiki omen zen etxea eta 1700. urte inguruan egiten zen Asentzio eguneko erregutea, Gorostiza baserriko kaperatik pasatzen zen.

**■ XVI. mendeko Arrasate ikertzen**

(253/11.or.) 1994.11.11

David Zapirain eta Juan Carlos Morak XVI. mendeko Arrasateren azterketa aurkeztu zuten. Arrasateko

udalaren dirulaguntza jaso zuten lana egiteko eta herriko agiritegiko eta Tolosan dagoen Gipuzkoako Agiritegi Orokorreko dokumentuak erabili zituzten ikerketa lana egiteko.

■ 140 milioi parrokia konpontzeko

(256/11.or.) 1994.12.2

San Juan Bataiatzailearen parrokia konpontzeko batzorde eragileak 140 milioi batu zituen. Etxerik etxe 6.000 gutun banatu zituzten. Parrokiaren berritze lanak 420 milioioak zirela bazekiten.

■ 80 urte parrokian

(257/19.or.) 1994.12.16

Abenduaren 15ean bete zituzten 80 urte San Joan parrokiako organoak eta baita azken urteetan organojole izan zenak, David Arzamendik. Arzamendi azken 62 urteetan ibili zen organoa jotzen. Omenaldira Erroman bizi den Julian Sagasta organojole mondragoetarra ere etorri zen.



Emakumeentzako zerbitzu berria abian

(224/12.or.) 1994.2.18

Arrasateko emakume taldeen eskaerari erantzunez, udalak emakumeentzako zerbitzua jarri zuen abian. Isabel Zua-

zubiskar zinegotzia buru zela. Emakumearen berdintasunerako agente bat ere kontratatu zuen udalak: Rosa Mon-

dragon. Bere lana, udaleko batzorde eta zerbitzuetan emakumearekiko inplikazio handiagoa sortzea da.

Olatz Azpeitia

Sexologia bulegoko teknikaria

"Badira sei urte, herriko emakume taldeen ekimenez, lanean ari dela udaleko Emakume Saila, eta hiru urte gizezkoen eta emakumezkoen aukera berdintasunerako Arrasateko I. udal plana abian dela.

Badira egun batzuk New York-eko konbentzioan bildu direla munduko hainbat herrialdeko emakumeak: jasaten ditugun injustiziak eta gutxies-

ten gaituzten politikak eta jarrerak salatu dituzte.

XIX. mendearen atarian, "emakumeen mendea" deritzaion horretan, badago motiborik sexuen arteko aukera berdintasunaren alde lan egiteko: langabezia tasak, lan baldintzak, etxeko tratu txarrak, eraso sexistak, etxeko eta familia arduren banaketa, arlo publikoan parte hartzea... eta horrela, bi mila arrazoi".

Maltzaga-Urbina herri-plataforma

(216/11.or.) 1993.12.17

Maltzaga-Urbina aldeko Debagoieneko herritarren plataformak manifestu bat aurkeztu zuen, errepide hori lehenbailehen egiteko bailararen onurarako izango zela argudiatuz. Plataforman, jende ezagun askok hartu zuen parte: Alvaro Arregi, Joseba Arregi edo Jose Ramon Gorosabel esaterako.



aurrez aurre



Euskaraz egiten den kazetel-hizkuntzak arazo ugari dituela esan dezaket, bizio asko daude eta irtenbideren bat aurkitu behar zaie. Euskaraz egindako kazetagintzaren tradiziozik ez da ezagutzen eta agian hori izan daiteke abiapuntua, hizkuntza aldaketa behar-beharrezkoa da eta.

JON SARASUA

Bertsolaria

1992.1.17

■ "Made In Arrasate" erakusketa zabalik

(258/11.or.) 1994.12.23

Aste horretako eguaztenean ireki zen museo industrial sortzeko bidean prestatu zen erakusketa, Monterronen. "Made In Arrasate" izena jarri zioten. Bertan, Bixente Barandiarani, herrian gelditzen zen errementari bakarrari, omenaldia egin zitzaion.

■ Emakunde eta Arrasate Press

(258/16.or.) 1994.12.23

Arrasate Pressek 252. zenbakian emakumeen lanaldi bikoitzari buruzko erreportajea landu zuen. Arantzazu Loidik idatzi zuen eta Emakunde urte horretako Emakunde

sarietan, aipamen berezia egin zion erreportajeari. Sari banaketa abenduaren 14an egin zen Gasteizen.

1995

■ Biteriko aparkalekua urbanizatu nahian

(261/11.or.) 1995.1.20

Udalak Biteriko aparkalekua urbanizatzeko plana aurkeztu zuen. Etxebizitzak eta lorategia egingo zirela adierazi zuen. Lursail hori Hotel Arrasatekoena zen eta plan horien aurka zeudenez, asmoen aurka agertu ziren.

■ Larrialdietarako zerbitzua

(264/9.or.) 1995.2.10

Larrialdietarako zerbitzuaren asmoa mahai gainean geratu zen aurreko ostiraleko osoko bilkuran. Gaia aurreko urteetan hasi ziren azterten, baina zinegotzi batzuek aztertu zutela eta, egun horretan ez zen onartu.

■ ATBk bost urte bete zituen

(264/29.or.) 1995.2.10

Otsailaren 13an bete zituen bost urte Arrasate Telebistak. 1994an ARKOk audientzia neurketak egin zituen eta datuen arabera, 20:00etatik 20:30era bitartean, hau da,

Berriak saioa eskaintzen zen tarte horretan, gehien ikusten zen hirugarren katea zen ATB, TVE1 eta Tele5en atzetik.

■ Biteri egoitza: ikasle-egoitza nagusi

(265/11.or.) 1995.2.17

Eskola Politeknikoaren Biteri egoitza, egoitza nagusi izendatzea erabaki zuen Euskal Herriko Unibertsitateak. Otsailaren 23an izendatu zuen Egoitza Nagusi.



Biteri egoitzan, une horretan, Eskolan ikasten ari ziren ikasleetatik 320 bizi ziren.

■ Casa del Pueblori eraso

(271/9.or.) 1995.3.31

Aurpegia estalita zuten lau ezezagunek hainbat kalte eragin zituzten Casa del Pueblon hilaren 26an, domekan. Gaueko 21:30ean, tabernan sartu ziren eta makilekin gauzak apurtzen hasi ziren. Lekukoek adierazi zuten, minutu bat baino gutxiago egin zuten barruan, baina telebista, telefonoa, garagardoa ateratzeko makina eta jolas-makina apurtu zituzten.

aurrez aurre



Telebista handituz joan den neurrian, esan daiteke asko despertsonalizatu dela. Hasieran, politagoa zen; ilusioz betetako lagun talde bat besterik ez ginen, bata bestearengandik ikastera behartuta geunden taldea.

MAITE ITURBE

ETBko produkzio zuzendaria
1992.3.22

Krisiaren Aurkako Taldea

(216/13.or.) 1993.12.17

Herriak bizi zuen egoera ekonomiko larriak bultzatuta, Arrasateko Krisiaren Aurkako Taldea eratu zen. Abenduaren 16an aurkeztu zen taldea Portaloian. Aldi berean, UCEM Korporazioak Arrasateko Cerrajera eta Transformados Metalicos lante-

giak beste toki batean kokatzeko proposatu zien langileei. Horren arabera, Cerrajerak Arrasaten dituen lurrak saltzea eta diru horrekin enpresak beste nonbait jartzea jasotzen zen. Planaren arabera bi enpresetan 50 lanpostu galduko lirateke.

Epele-Kanpanzar errepidea zabaldu zuten

(235/13.or.) 1994.4.13

Aste horretako astelehenean ireki zuten Epele-Kanpanzar errepidea. Bertan izan ziren Eli Galdos, orduko Aldun Nagusia, Roman Sudupe, orduan Gipuzkoako lan publiko eta azpiegitura diputatua,

eta Xabier Zubizarreta alka tea, beste hainbat udal ordezkarekin batera. Errepidea 5 kilometrokoa egin zuten eta hiru karril egin zizkioten. 1.500 milioi pezeta kostatu zen proiektua.

**Txatxilipurdik izaera propioa**

(227/11.or.) 1994.3.25

AEDtik atera zen Txatxilipurdi eta izaera propioa hartu zuen, ARKOK bere garaian egin zuen bezala. Txatxilipurdik haurren aisialdirako ekintzak antolatzen segitzeko asmoarekin egin zuen hori, baina AEDtik aparte. Nerea Alzola izendatu zuten lehendakari eta Urri Urizar dinamizatzaile.

Errukane Aperribai*Txatxilipurdiko idazkaria*

"Izaera propioa izateak indarra eman digu, bai guri zein beste-lako taldeei ere, batez ere, zuzendaritza batzorde batek lan handia egin zuelako hori lortzeko. 1994an sei langile hasi ginen lanean. Aisialdia euskararen garapenerako tresna moduan nola erabili pentsatzeko aukera eman zigun Txatxilipurdik.

Ordutik hona, asko handitu da gure elkarte eta poliki-poliki euskaraz funtzionatzen duten esparru gehiago eskaintzen ari gara herriko gazteei".

Judo txapelketa Arrasaten

(271/22.or.) 1995.3.31

Euskal Herriko judo txapelketa jokatu zen Arrasaten apirilaren 2an. Musakolako kiroldegian Arrasateko judokak ere aritu ziren. Txapelketa, senior eta 17 urte azpiko judoek jokatu zuten.

Goikobaluk konpak-tua aurkeztu zuen

(271/28.or.) 1995.3.31

"Euskaldunon kantak" izeneko konpaktua aurkeztu zuen Goikobalu abesbatzak apirilaren 2an. Horretarako Amaia antzokian kontzertua eskaini zuen. 17 kantu bildu zituzten bilduman. Garai

hartan Ruiz de Alegria zen abesbatzako zuzendaria.

Goio Etxabe atxilotu zuten

(273/7.or.) 1995.4.12

Apirilaren 10ean

Ertzaintzak Goio Etxabe atxilotu zuen, ustez ETAko komando legal bateko kide zelakoan. 1994an Bakuben aurkitu zuten zuloarekin zerikusia izango zuela ere leporatu zioten.

RIPek disko berria aurkeztu zuen

(275/8.or.) 1995.5.5

Hiesak jota hil zitzaizkien lagunak omentzeko asmoz kaleratu zuen RIP taldeak lan berria. Zuzeneko diskoa izan

zen eta Arrasateko punk-rock taldeek hartu zuten parte. Tartearen, "Enamorado de la muerte" RIPen kantu ezagunaren bertsio akustikoa sartu zuten. Lan horretatik



aterako zuten diruaren zati bat Arabako Batzorde Hirutarrari emango ziotela adierazi zuten eta beste zati bat Arrasateko Hies Ekimenari. Diskoa maiatzaren 4an aurkeztu zuten Gasteizko Zuloa dendan.

Alkoholiko Anonimoak taldeak 20 urte

(275/14.or.) 1995.5.5

Maiatzaren 6an, 20 urte bete zituen Arrasateko Alkoholiko Anonimoak taldeak. Martitzenero biltzen zen taldea.

Eskubaloi taldeak lehen mailan

(275/28.or.) 1995.5.5

Ezarririk asmoa bete zutela adierazi zuten eskubaloi taldekoek denboraldi amaieran. Gauzak horrela, lehen mailari eustea lortu zuen Imanol Alvarezek entrenatzen zuen taldeak.

Omenaldia "Kermi"ren borroraki

(275/33.or.) 1995.5.33

Hies Ekimenak eta Tunantes del Nortek bi hilabete lehenago hiesak jota hil zen Jose Ramon Hermida "Kermi" omendu nahi izan zuten. Horretarako, "Kermiren Omenezko Festa" antolatu zuten maiatzaren 6an.

Jon Salaberri hil egin zen

(276/14.or.) 1995.5.17

Maiatzaren 9an, asteartean, hil egin zen Jon Salaberri 15:00etan, 34 urte zituela, bere etxean zegoela. Oso ezagun egin zen Euskal Herri osoan, bere gaixotasunaren esperientzia ezagun egin

Ongi etorri Aurrezkiaren Festara

Eta ospatzeko, interes guztia mahai gainean jartzen dugu



Anima zaitetz Euskadiko Kutxak eskaintzen dizun aurrezki-promozio berrian parte hartzera. Aparteko interes-tasari uko egin gabe, goza ezazu lehen unetik zure aurrezkiaren emaitzaz eta opari zoragarriez. Ontziteriak, mahai-tresneriak, kristalariak... Zure mahaia dotoreziaz janzteko behar duzun guztia. Eta gogoan izan sarrera formalizatu ondoren aukeratutako oparia gustatzen ez bazaizu, beste baten ordezkari truka dezakezula eta, bestela, eragiketa baliogabetu.

Informazio gehiagorako, Euskadiko Kutxaren
sukurtsal-sarea edo Telebankaren
901 333 444 telefonoa.

aurrez aurre



Nire ustez gaztetxea Euskal Herriko azpiegituran dagoen pieza klabea da. Gu, adibidez, gaztetzietan hasi ginen eta talde berri asko ere ibilbide bera jarraitu dute. Musikagintzarako gaztetxea beharrezkoa izan da eta oraindik beharrezkoa da.

FERMIN MUGURUZA

Kantaria
1993.4.23

Krisia gainditu MCCn

(240/19.or.) 1994.6.17

Aurreko urtean 29.000 milioiko irabaziak izan zituen MCCk, krisia asko igarri zuen urtean. 1994ko lehen hilabeteetan 1.500 lanpostu sortu zituen, gehienak ere, 1.200,

banaketaren sektorean.

Horrela, bada, urte horretan 12 hipermerkatu zabalduko zituztela adierazi zuten prentsaurrekoan MCCko arduradunek.

Kamioi elektrikoa landu zuten Eskolan

(254/11.or.) 1994.11.18

Kamioi elektrikoaren arlo elektronikoa landu zuten Eskola Polikitenkoan. Motor elektrikoaz ibilgailuak ez zuen zaratarik ateratzen. Bi urte lehenago Iberdrola eta Energiaren Euskal Erakundeak, Valladolidedeko enpresa bati

arlo mekanikoa eta Eskolari elektronikoa egitea agindu zieten. Kamioiak Getxon erabiltzeko egin zituzten.

Ordurako Eskolan auto elektrikoa lantzen ere hasiak ziren; azpiko argazkian duzue, hain zuzen ere.

**Antonio Cancelo**

MCCko lehendakaria

"On Jose Maria Arizmendiarririk bultzatutako eta gaur egun MCCn batzen den kooperatibismoak hainbat garai jasan ditu eta horiek egoera bakoitzean erantzun bat aurkitzera eraman dute.

Egoera ekonomiko txarren aurrean eraginkorra izan da eta gai izan da beste edozein helbururen aurrean lana bultzatzeko barne mekanismoak abian jartzeko.

Egoera horietan kooperatibistek erabaki gogorrak, baina aldi berean elkartasun erabakiak, hartu zituzten; beste edozein enpresatan pentsaezinak.

Gaur egun, aldi oparoa bizi dugu eta hurrengo urteetan ere horrela izaten jarraituko du; horren adierazle da enplegu berrien sorrera etengabea.

Baina, beste erronka batzuk ditugu, horietako asko nazioarteko zabalkundearekin lotuak; baina, horie ere, kooperatibistok erantzun egokia emateko gai izango gara uste dut".

nahi izan zuelako, beste gaixoei laguntzeko asmoz Ekainaren 4an, Gatzagan zabaldu zituzten bere errautsak; berak eskatuta, kutsatu gabeko errekatxo batean. Ondoren, zuhaitz bat landatu zuten bildutakoek. Itsasoan, Saran eta mendian ere botatzeko agindua utzi zuten berak.

**■ Musakolako ermitaren mende erdia**

(276/28.or.) 1995.5.17

1945eko maiatzaren

15ean ireki zuten Musakolako San Isidroko eliza. Orduan, Jose Luis Iñarrak eman zuen meza. 50 urte gerago, elizaren urrezko ezteiak Pablo Barrenak ospatu zituen.

**■ "Carmina Burana" Amaia antzokian**

(277/29.or.) 1995.5.19

Maiatzaren 28an eta 29an

Carmina Burana obra estreinatu zuen Goikobalu abesbatzak. Errusiako Orkestrarekin batera egin zuen hori. 165 abeslarik hartu zuten parte eta 100 musikaririk.

**■ Baserri-auzo bideen liburua**

(279/12.or.) 1995.6.3

Gotzon Arzelus bergararrak egin zuen baserri-auzoetako bide zaharren liburua.

■ ARKOk egoitza berria

(280/14.or.) 1995.6.9

Hamaika milioiko aurrekontuarekin, ARKOk egoitza berria izan zuen. Ospitale zaharra utzi eta Otalora kalera joan zen.

Beheko solairua eta lehenengoa utzi zizkion udalak. Beheko solairuan ATB jarri zuten eta lehenengo solairuan, berriz, Arrasate Press.

■ Arrasateko toponimiari buruzko lana

(280/29.or.) 1995.6.9

Jose Luis Ormaetxeak, "Txipik", Arrasateko toponimiari buruzko lana egin zuen. Lau urte lehenago udalak beka bat eman zuten horretarako. 2.000 leku izen jaso zituen lan horretan. Lana, gainera, Euskaltzaindiaren "Onomasticon Vasconiae" liburu bildumaren barruan sartu zuten.

■ Egunkariaren jai arrakastatsua

(281/9.or.) 1995.6.16

Euskaldunon Egunkariaren IV. jaietan, 20.000 lagun inguru bildu ziren antolatzaileen esanetan.

San Andres eskolak 25 urte

(256/13.or.) 1994.12.2

San Andres Herri-Eskolak 25 urte bete zituen.

Haren sorrerarekin desageru egin ziren Gazteluondo eta Viteriko eskola zaharrak eta baita Udala, Gesalibar, Bedoña eta Garagartza auzo-etaokoak ere.

1994an Xabier Arruti zen eskolako zuzendaria.

3. merkataritza gunea

356/11. or. 1997.3.21

Continente sareko Dia supermerkatuko lanak hasi ziren. Obrak amaitzerakoan, Aretxabaletako muga ondoan 967 m² eraikina izango zen, elikagaiak eta etxerako tresneria saltzeko. Autoentzako 57 aparkaleku ere egingo zituzten. Supermerkatu berriaren eraikuntza lanek 43.250.000 pezetako aurrekontua izan zuten.

Lanen aurretik, Meca atze-kaldean zegoen eraikina eta autoen gunea bota zituzten.

Urbina-Maltzaga saskibaloit taldea

(244/13.or.) 1994.9.2

Saskibaloit taldeak Urbina-Maltzaga izenarekin hasi zuen denboraldi berria. EBA ligan jokatu zuen denboraldia.



Jon Ander Juldain

Urbina-Maltzaga saskibaloit taldeko zuzendaritzako kidea

"1994an Arrasate Saskibaloit taldea EBAr aigo zen. Zuzendaritzakook ilusioz beterik geunden; zailatasunak berehala iritsi ziren. Babeslea behar genuen; taldearen aurrekontua hamar aldiz handiagoa zen. Urbina-Maltzagaren laguntza lortu genuen, ez kritika gabe. Ondorengokoa, talde lehiakorra osatzea zen, eta horretarako hainbat jokalarit fitxatu genituen: David Scott, Alvaro Coca, Txintxurreta... Tau-Baskoniarekiko loturak puntako jokalarit iazteko aukera eman zigun. ACB txapelketan sendo diharduten taldeen aurka jokatu genituen play-offak. Zaleek primeran erantzun zuten eta egoerak hiru urte iraun zuen. Diru larritasunek eta txapelketa erdi-profesional bateko beharrek maila galarazi ziguten.

Aurten taldeak autonomia-mailan dihardu, baina aurten bigarren mailara igotzeko postua lortu du. Bizpahiru izan ezik, jokalarit guztiak arrasatearrak dira, eta zuzendaritza batzordeko batzuk ere jokalarit dira. Bi garai horien arteko desberdintasuna zera izan daiteke, lehen, jokalarien kalitateagatik, ikuskizun biziagoa zegoela."

aurrez aurre



Sistemak beti erabili du droga, kontrol bat izateko eta jendeak aldaketen eragile izan daitezkeen bide alternatiboak hartu beharrean, bide pasiboak har ditzan; azken batean, ihesbidearen bideak. Droga-trafikoaren atzean, interes ekonomiko eta politiko handiak daude.

TXUS CONGIL

Askagintzako kidea
1993.4.30

Munduko lehenengo giltza elektronikoa

(281/12.or.) 1995.6.16

Ikerlanek munduko

lehenengo giltza elektronikoa egin zuen. "Mecatronic" izena jarri zioten eta Aretxabaletako Azbe Zubia enpresan egin zuten.

Primitiva eta ONCE Arrasatera

(283/9.or.) 1995.7.7

133.697.805 pezeta

irabazi zituen arrasatear batek loteria primitiboan. San Andresko Garai administrazioan erosi zuen zenbaki saritua. Once sariak ere eman zuen aste horretan dirua: 175 milioi pezeta irabazi zituen beste arrasatear batek, San

Andresko Lizarra tabernan saldutako 55.340 zenbakiarekin.

Jessi Harris Urbina-Maltzagan

(286/18.or.) 1995.9.1

Jessi Harris amerikarra fitxatu zuen Urbina-Maltzaga saskibaloit taldeak. Ohioko pibota zen eta 26 urte zituen. NBAko Indiana Pacers taldearen ikusmiran egon zen, baina aurreko urtean El Ejidoko Almerimar taldean aritu zen.

Jose Angel Samaniegok entrenatzen zuen taldea eta 13 jokalarit izan zituen bere aginduetara 95-96 denboraldian: Alvaro Coca, Juan Pedro Cazorla, Jorge Fernandez,

Ander Gutierrez, Iñaki Gomez, Pedro Rodriguez, Juan Jose Sampedro, Joserra Garai, Iñaki Arrue, Jorge Garbajosa eta Jessi Harris. Jagoba Gamarrak eta Ander Mallabiarrenak ere EBA ligan jokatzeko aukera izango zutela iragarri zuen entrenatzaileak.

Amerikar berria Urbina-Maltzagan

(288/21.or.) 1995.9.15

Jessi Harrisek taldea utzi eta Maltzaga-Urbinak beste amerikar bat ekarri zuen saskibaloit taldera. Clinton Holtz pibota ekarri zuten taldera. 25 urte zituen eta Canadako unibertsitatean egin zituen ikasketak.

Berriz ere ONCE saria

(295/19.or.) 1995.11.3

Lau hilabetetan ONCEk

100 milioi banatu zituen Arrasaten. Hamaika kupoi saltzaile zeuden Arrasaten orduan.

Txikizioak Santa Barbaran

(296/9.or.) 1995.11.10

Beste hainbat asteburutan bezala, berriz ere txikizioak eragin zituzten Santa Barbarako parkean. Zuhaitzen adarrak, huntza hazten zen paretetan hostoak apurtu eta lurtean botilak eta zakar asko agertu ziren.

Paco Bedia Numantzian

(297/21.or.) 1995.11.17

Soriako Numantzia taldeko jokalaria zen urte horretan Paco Bedia arrasatearra. 31 urte zituen eta erdilari bezala jokatzan zuen.

Eskola Politeknikoarentzat ISO 9001

(298/9.or.) 1995.11.24

Heziketan lortu zuen kalitateagatik, ISO 9001 ziurtagiria jaso zuen Eskola Politeknikoak, azaroaren 10ean. AENOR-ek eman zion. Estatuan horrelako ziurtagiria jasotzen zuen lehenengo eskola izan zen.

aurrez aurre



Esatzen dutenez eta nik ikusten dudanez, euskal dantza giroa oso ondo dago. Nik entzun dudanez, elkarterik onena eta biziena Euskal Dantzarien Biltzarra da, zazpi probintzietan. Uste dut gaur egunean 20.000 euskal dantzari egongo direla eta 340 bat talde.

**GAIZKA
BARANDIARAN**

Folklorearen ikerlea
1993.6.4

Ospitaleko lehenengo harria

(259/13.or.) 1994.12.30

Debagoieneko ospitalearen eraikin berriaren lehenengo harria jarri zuten Iñaki Azkunak eta Eli Galdosek aste

horretako astelehenean.

Planen arabera, 1996. urtean amaituta egotea espero zen.


Ekin Emakume Taldea erakundetu zen

(266/12.or.) 1995.2.24

Leire Aperribai

Ekin Emakume Taldeko eragile

“Arrasateko EKIN taldea 1985. urte inguruan jaio zen, AED elkartearen baitan, emakumeek hurrenganako hizkuntza transmisioan duten garrantzia kontuan hartuta, eta, jakina, euskaldun izatea osotasunean bizi ahal izateko aukerak eskaintzeko asmoz. Hitzaldiak (etxeoandreei zuzenduak) eta mintza praktikak (emakume euskaldun zahar eta berriei zuzenduak, asteroko maiztasunaz eta aurrez adostutako gai zehatzen inguruan) antolatu ziren hasiera batean; geroago, arlo orotako

ikastaroak jarri ziren abian. Dinamika bera jarraituz, 1995. urtean taldea elkarte bihurtu zen, Ekin Emakumeak izena hartuz eta helburu gisa emakumearen garapena eta euskararen normalkuntza izanik. V. urteurrena ospatzen dugun urte honean, elkartearen bitzitza hasi besterik ez dela egin esan daiteke: Ekin Emakumeak elkarte bost urteko plangintzaldian sarturik dago, ildo berriak landuz eta Arrasatear oroingana iristeko asmoz, ametsa eraikiz joan gaitezen”.

Takoloko bidegurutzea
(298/12.or.) 1995.11.24

Foru Aldundiak Takoloko bidegurutzea hobetzeko plana bidali zion udalari. Proiektuak 153 milioi aurrekontua zuen.

**Salaberri gogoan
Hiesaren Egunean**
(298/13.or.) 1995.11.24

Abenduaren lehenean ospatu zen Hiesaren Egunean, Jon Salaberri omendu nahi izan zuen Debagoieneko Hies Ekimenak. Horretarako, Amaia antzokian ekitaldi berezia egingo zutela aurreikusien zuten Iñaki Telleriak, Hies Ekimeneko partaideak. Ekitaldi hori abenduaren 2an egin zen.

Shot estudioen urteurrena
(298/22.or.) 1995.11.24

Abenduaren 5ean bete zuen urtea Shot estudioak. Pello Aldabek eta Iñaki Bengoak sortu zuten grabaketa estudioa. Besteak beste, RIP taldeak lan egin zuen estudio horretan lehenengo urtean.

**Gaizka Aranegi:
lehen gerriko beltza**
(299/25.or.) 1995.12.1

Judoan aritzen zen eta Arrasateko lehenengo gerriko beltza berak eskuratu zuen, 19 urte zituela.

Nikela berreskuratzen JMAN
(301/9.or.) 1995.12.22

IHOBEK “Metal Zero” plana jarri zuen abian JMAN. Helburua, erabili ondoren hondakin gisa gelditzen den nikela berriz ere erabili ahal izatea zen. JMA enpresa izan zen metal astunen birziklapena egiten hasi zen lehenengo enpresa.

1996
INEMeko egoitza berria
(303/25.or.) 1996.1.12

Tren geltoki zaharrean egin zuen INEMeko bulego berria.

Carlus Croves jokalaria amerikarra
(303/20.or.) 1996.1.12

25 urte zituen Carlus Croves jokalaria amerikarrak Urbina-Maltzaga taldera ekarri zutenean. Atlantako jokalaria izan zen eta aurreko denboraldian ACBko Leongo taldean aritu zen.

Suteak 38 hektarea erre zituen
(306/12.or.) 1996.2.2

Urtarrilaren 21ean haizeak sutea eragin zuen Arrasate inguruko basoetan. 38 hektarea erre ziren; Bedoñan 26, Udala eta Garagartza tartean 12. Sute handiena, hala ere, Aretxabaletan gertatu zen:

260 hektarea erre ziren Urkulu eta Galarrixan.


Zeramika taldeak lokal berria
(309/9.or.) 1996.2.23

Otsailaren 21ean inauguratu zuen Arrasateko Zeramika taldeak lokala. Labe elektriko berria ere erosi zuten Lanbide Eskolan lortu zuten lokalean ipintzeko. Taldeak 30 bazkide zituen orduan.

UCEM Arrasate SAL sortu zen

(260/12.or.) 1995.1.13

Pezeta baten truke Cerrajera eta Transformados Metalicos lantegien orubeak eta akzioak UCEM Korporazioak langileei saldu eta bi enpresen gestioa langileen esku geratu zen.

J. Ramon Garai

UCEM Arrasateko langilea

"Debagoieneko hainbat belau-naldiren lanari esker jasotako lantegia, Union Cerrajera, 4 lantegitan banatuta dago: Arrasaten, Union Cerrajera Arrasate eta Mecanicas; Bergaran, Labe Garaiak; eta Oñatin, Oñatiko ur-jauziak.

Euskal Herrian berari loturik egon zen jendeak sortutako beste industria ekimen askok ere hor dihardute: Fagor, MU, Gelma, Patricio Etxebarria, Azbe, Metalurgica Cerrajera, IFAM, Roneo, Escurra, Cerrajera Valle de Leniz, Esmaltaciones San Ignacio... Union Cerrajera, "historia" da gaur egun, baina Arrasateko herria etorkizunean beste ekimen bat sortzeko gauza bada: Industria Museo; arrasatearren bost belau-naldiren ahaleginek merezi dutelakoan nago".

Alkatetza Xabier Zubizarretari

(282/8.or.) 1995.6.23

Bi boto zurik alkatetza eman zioten Xabier Zubizarretari, HBko hautagaiari. Alderdiaren disziplinari eta dirudienez, adostutakoaren kontra joz, bi zinegotzik zuri eman zuten botoa alkatea hautatzeko osoko bilkura berezian ekainaren 17an. Jose Mari Loitiri boto bakarra fal-

ta izan zitzaion kargua lortzeko. Orduan hasi ziren zentsura mozioak aurkezteko ekimenak.

Uztailaren 14ko osoko bilkuran guztiz antolatu barik gelditu zen udal gobernua. Hirukoa ez zen ados jartzen eta ezinezkoa izan zen aurrea jotzea.

Hamabi familia etxetik kanpo atentatuaren ondorioz

(296/13.or.) 1995.11.10



Ferrerias zortzi bis-eko hamabi familia, urik, berogailurik eta saneamendurik barik geratu ziren Argentariako sukursalaren aurka egindako era-

soaren ondoren. Azaroaren 3an egin zuten sabotaiak. Urta-rrilean jakin zen sabotaiak ia bederatziko milioiko kalteak eragin zituela.

aurrez aurre



Harroegiak gara euskaldunok gure sukaldaritza dela eta, batez ere gipuzkoarrak. Hori ez diat nik esaten, hori estatu mailan esaten zidatek niri: hi, gipuzkoarrak la ostia dituk, etortzen dituk eta esaten ditek, hau nola prestatu duzue, ba hola eta hola, ba guk hala, esplikazioak ematen gipuzkoarrak. Makina bat bider amorratzekoak dituk gipuzkoarrak.

CARLOS ARGIÑANO

Sukaldaria
1993.11.26

Goikobaluk zuzendari berria

(311/16.or.) 1996.3.8

Iñaki Maidagan izendatu zuten Goikobaluko zuzendari.

HBk epaitegira, hirukoaren aurka

(312/13.or.) 1996.3.15

Hirukoaren erabakiaren balio eza eskatzeko epaitegira jo zuten HBk. EBZren jarraipena egiteko batzordea eratzea proposatu zuen EAJK eta sozialisten laguntzarekin onartu egin zen. HBren iritziz, hirukoak alkatetzari konpetentziak kentzea zen EAJren asmoa.

Arrasate Irratia abian

(312/21.or.) 1996.3.15



107.7an hasi zen emititzen Arrasate Irratia. 1994ko azaroan entzun zen lehen aldiz, probak egiten ari zela. 1995eko otsailean, berriz, kazetariak hasi ziren lanean. Urtebetean kolaboratzaile ugari izan zituen udal irratiak.

Ines eta Naiara txapeldun

(314/26.or.) 1996.3.29

Ines Osinaga eta Naiara Okina arrasatearrek Euskadi Irratiak antolatutako Trikiti Pieza Berrien Txapelketako finalera iritsi ziren pouporri sailean, eta irabazi egin zuten.



Arizmendiari buruzko bideoa

(315/16.or.) 1996.4.3

Kooperatibismoaren

sortzailea izan zen On Jose Maria Arizmendiari buruzko bideoa egiten hasi zen MCC. Horretarako, Irakasle Eskolara jo zuten eta, bide batez, herritarrei garai horretako argazkiak lagatzeko eskatu zieten.

"Aizkora" etxea bota zuten

(316/9.or.) 1996.4.19

Azpian izen bereko taberna zuten etxea ezagutzen zen "Aizkora" bezala. 1575ean eraiki zuten eta Zeziaga familiarena zen. Hauek Hirurok enpresari saldu zioten.

Errugbi taldea Euskal Ligan

(316/24.or.) 1996.4.19

Arrasateko errugbi taldeak Euskal Ligara igotzeko txartela lortu zuen. Patxi Gorosabel zen taldeko zuzendaria. Gipuzkoako ligan hasi zuten denboraldia eta oso denboraldi ona egin zuten.

Mondrako emakume taldea txapeldun

(318/18.or.) 1996.5.3

Liga irabazi zuen Mondrako emakume taldeak, Juanina Garairen zuzendaritzapean.

Pankartak Jose Luis Inarran

(320/8.or.) 1996.5.17

Sei urte ziren Jose Luis

aurrez aurre



Euskarak oso problema handiak dauzka orokorki eta bertso-laritzan horiek islatzen dira, baina ez gramatika kontua bakarrik, espresio kontua da. Oso espainolistak gara hemen eta erdaratik, grazia egiteko erregistro asko hartzen ditugu, txispa emateko erdarazko klitxeak erabiltzen dira eta horrek ez dit ematen pozik. Ondo dago eztabaida zabaltzea, euskarari ateratzeko etelina, indarra eta espresioa.

XABIER AMURIZA


Bertsolaria
1993.12.31

Hil amaierarako bukatuko da Uarkapeko horma

(304/13.or.) 1996.1.18

Urtarrilaren amaieran bukatzea espero zen horrenbeste buruhauste eragin zituen Uarkapeko horma.

Hormarekin batera, Jose Luis Iñarra kaleko bidea ere konpondu behar izan zen eta SFX ikastolaren ondoan Ferixalekuko pilotalekua egiteko tokia utzi.

**Zigorrolako bizilagunak "ijitoekin" ados ez**

(310/9.or.) 1996.3.1



Nomada batzuk Kiroldegi aurreko aparkalekuan hila-bete eta erdi zeramatzen eta bizilagunek udaltzainei deitu zieten "asko zirela eta". Musakolako bizilagunek 825

sinadura bildu zituzten udalean aurkezteko asmoz. Hartutako erabakiaren arabera, ijitoak berriz agertuz gero, udala eurekin harremanetan jarriko zela erabaki zuten.

Txirrindulari Talde berria

(307/24.or.) 1996.2.9

Arrasateko Txirrindulari elkar-teak afizionatu mailako talde berria aurkeztu zuen otsailaren 2an. Josu Estevez zen zuzendaria eta Eneko Garai bigarren zuzendaria. Txirrindulariak Oscar Askasibar, Roberto Fraile, Iban Sastre, J. Angel San Miguel, Xabier Lizaso, Aitor Larrea, Enrike Dieguez, Jagoba Arranz, Jon Azkorra, Roberto Cuartero, J. Miguel Benedited eta Sergio Frutos. Arrasatearrak Oscar Estevez, Gorka Malgañon, Jon Aperribai eta Felix Zugasti ziren. 5 milioiko aurrekontuarekin ekin zion denboraldiari talde berriak.

Iñarra kalea autoentzako itxita zegoela eta bizilagunek protesta egiteko pankartak jarri zituzten Uarkape inguruan.

Robles eta Agirre, 15 urte kartzelan

(320/12.or.) 1996.5.17

Amnistiaren Aldeko Batzordeak omenaldia antolatuzien Pako Robles eta Jon Agirrerri. Biek 15 urte bete zituzten espetxean eta oraindik "barruan" zeuden omenaldia egin zieten.

Joseba Ezpeleta, AEDko lehendakari

(320/15.or.) 1996.5.17

AEDko lehendakari berria aukeratu zuten batzar orokorrean. Miren Arregiren

partez, Joseba Ezpeleta hasi zen lehendakari bezala.

Mondra preferentera jaitzi zen

(320/24.or.) 1996.5.17

Hirugarren mailari agur esan zion Mondra futbol taldeak 95-96ko ligan. Denboraldi txarra egin zuen orduan Zivojevick entrenatzen zuen taldeak.

Juan Jose Etxabe Hendaian atxilotu

(321/13.or.) 1996.5.24

Maiatzaren 22an Hendaian atxilotu zuten Juan Jose Etxabe, beste hiru lagunekin batera. Atxiloteta Laurence Le Verte epailearen aginduz egin zen; ETaren finantzetan eta

diru zuriketan parte hartzen zutela argudiatu zuten.

Jon Arexolaleibari ongi etorria

(322/9.or.) 1996.5.31

la hamar urte preso egon ondoren, aske geratu zen Jon Arexolaleiba. Maiatzaren 25ean iritsi zen Arrasatera 32 urteko aramaioarra.

Bestalde, Juan Jose Etxabe Parisko kartzelan sartu zutela jakin zen eta baita Enrike Pagoaga deportatu politikoa Belgikako polizia atxilotu zuela. Peixotoren anaia zazpi urtez Venezuelan egin zen erbesteratua.

Manteca Herrena Alacanten hil zen

(322/9.or.) 1996.5.31

Juan Manteca Cabañer, 29 urteko arrasatearra, maiatzaren 24an hil zen Alacanteko ospitalean hiesak jota. "Manteca Herrena" ezagun egin zen Madrilen 1987an ikasleek egin zituzten kale agerraldietan parte hartu zuelako eta bere irudia komunikabide guztietan irten zuelako. Gaztetan Arrasateko txirrindulari taldean hartu zuen parte.

Hiru arrasatear Ande eta Alpamayora

(322/24.or.) 1996.5.31

Miikel Arana, Bitor Amozarrain eta Josu Pereda

Andeetako Huascaran eta Alpamayoko mendietara joan ziren maiatzaren 31n.

Alkatea atxilotuta deklarazera

(323/8.or.) 1996.6.7

Maiatzaren 31n eraman zuten atxilotuta Xabier Zubizarreta Bilboko Auzitegi Nazionalera, epaiketara ez zelako agertu.

Armadarekin ez kolaboratzea egotzi zion epaileak.

Horren harira, aldeko 11 botorekin EUDIMAn, Euskal Udai Intsumituen Mankomunitatean, sartzea erabaki zuen osoko bilkurak.

Udaleko hartuemanak moztuta gelditu ziren

(317/13.or.) 1996.4.26

Heri Batasuna eta Ezker Batua euren kabuz hasi ziren hirukoaren aurrekontua aztertzen, honek ez baitzion hori egiteko eskatu. Ez hori eta ez bestelakorik, bi aldean arteko harremanak moztuta egon ziren garai hartan eta, udal-txean.

Aste horretan egin zen osoko bilkuran ez ziren onartu 1996ko aurrekontuak. Aurkako 13 boto egon ziren. Hirukoaren aurrekontu proposamena ez zen bozkatu, gobernu taldeak denbora eskatu zuen eta, berau aztertzeko.

Horren harira, PSE-EEK alkatearen dimisioa eskatu zuen osoko bilkuran. Ordez-kari sozialistek, "Arrasateko alkatea ez da aurrekontuak adosteko gai izan" esan zuten eta horregatik bere dimisioa eskatu zuten.

Altamirako etxeak hipotekatuta eta ingurua urbanizatu barik

(321/12.or.) 1996.5.24



Udalak 15 eguneko epea eman zion Giro-Leku enpresari Altamirazpin egin gabe utzi zuen urbanizazioari ekiteko. Horrekin beteko ez balu, uda-

lak berak amaituko luke urbanizazioa eta enpresaren abalarekin geldituko zela iragarri zuen. Egin gabeko lanak 6,2 milioioak ziren.

Adierazpen askatasunaren alde

(322/9.or.) 1996.5.31

Arrasateko Ezker Abertzaleak prentsaurrekoa eman zuen asteartean, azken hiru hilabete horietan Ertzaintzak izandako jarrera salatu eta adierazpen askatasunaren aldeko manifestua aurkezteko. Ezker Abertzalearen ustez, ertzaindegira arduradun berria etorri zenetik, herriko egoerak

okerrera egin zuen. Ordura arte arazo barik egin omen ziren kale agerraldiak eta bestelakoak eta Ertzaintzak istiluak zeudenean bakarrik hartzen zuen parte.

Horrez gain, adierazpen askatasuna garrantzitsua dela eta, horren aldeko manifestua atera zuen.

aurrez aurre



Itrenbide elkarrizketatua-ren aldeko jarrera gizartean orain lehen baino askoz nabariagoa da. Ez da Elkarriri esker bakarrik, baina neurri handi batean bai. Bestalde, aurrerapauso garrantzitsuak eman dira; adibidez, Arantzazun hasi eta Maroñon bukatu den prozesua. Uste dut benetan interesgarria eta erreferentzia izan dela eta hortik atera den akordioa benetan garrantzitsua dela.

JONAN FERNANDEZ

Elkarriko
koordinatzailea
1994.2.25

■ Dimititu egin zuen Uribarriko zuzendaritzak

(323/13.or.) 1996.6.7

Ekainaren 4ko bileran dimisioa aurkeztu zuten Uribarriko erretiratuen etxeko zuzendaritzakoek. Euren egoitza berrizteko dirulaguntza ez zen onartu azkenengo osoko bilkuran eta horrexegatik dimititu zuten zuzendaritzako 10 kideek.

■ Jose Mari Pagoaga itzuli zen

(323/13.or.) 1996.6.7

Euskal Herrira itzuli ziren hamar deportatuen arten, Jose Mari Pagoaga arrasatearra ere itzuli zen. Cabo Verdetik etorri zen bere

emaztearekin. Bera eta beste deportatua Baionako katedralera joan ziren. Apirilaren 4an, ordea, baldintzarik gabeko espetxeratzea agindu zuen epaileak. Ostiralean Baionako katedralean atxilotu eta hurrengo egunean Espainiako polizia eskutu ondoren hartu zuen erabakia epaileak.

■ Txatxilipurdiren liburua aurkeztu zen

(323/35.or.) 1996.6.7

9 urteko esperientzia jaso zuen Txatxilipurdik "Iragana, Oraina eta Etorkizuna" liburuan.

Urri Urizar elkarteko teknikariak eta Julen Arexolaleiba Irakasle Eskolako

irakasleak idatzi zuten.

■ "Arrasateko Toponimia" liburua

(325/11.or.) 1996.6.21

Ekainaren 14an, Euskaltzaindiako Onomastika Batzordeko kide batzuk Arrasaten izan ziren, "Arrasateko Toponimia" liburua aurkezpenean. Jose Luis Ormaetxeak egin zuen liburua eta 2.000 leku izen bildu zituen.

■ Zigorrolako Santa Teresak 25 urte

(325/23.or.) 1996.6.21

San Joan Bezperan, zilarrezko ezteiak bete zituen Zigorrolako Santa Teresa elizak.

Pablo Barrena zen orduan elizako abadea.



■ Eguzki Laru lehenengo aldiz Arrasaten

(325/45.or.) 1996.6.21



Ekainaren 25ean iritsi zen Arrasatera lehenengo aldiz Eguzki Laru. Txatxilipurdiko begiraleak Anbotoko Marirekin topo egin zutela eta, berak agindu zien San Joanetarako Eguzki Laruren bisita, haurrentzako jaietan gauza gutxi egoten zirela eta.

■ Karnet elektronikoak Monterronen

(327/23.or.) 1996.7.5

Urritik aurrera Monterronen erabiltzen hasi ziren karnet elektronikoak erakutsi zituzten. Liburutegian 23.000 liburu zeuden orduan eta gutzira 6.000 bazkide.

aurrez aurre



Gara

Ez da ahaztu behar talde independenteok ere laguntzak behar ditugula. Laguntza ekonomikoak orekatuagoak egon beharko lirake. Nire ustez, inbertsio honi ez litzaioke ezer kendu behar, baina beste antzerki taldeei zerbait eman beharko litzaieke.

MIREIA GABILONDO

Aktoera
1994.2.25

Enpresa eta Berrikuntza Zentroa aurkeztu zen

(327/13.or.) 1996.7.5



Arrasateko Enpresa eta Berrikuntza Zentroa (EBZ) aurkeztu zen udaletxean. Guillermo Etxenike, ekonomia eta turismo diputatua, Jabier Retege, industria sailburua eta alkatua egon ziren aurkezpenean.

EBZ zen zen Saiolako gerenteak, Armin Isastik azaldu zuen. Zentroaren lehengo partaideak Danka multimedia, Isea, Almis informatika finantzieroa eta Abeiki enpresa izan ziren.

Armin Isasti*Saiolaneko zuzendaria*

“Gaur egun, zaharberritutako azalera guztia enpresez beteta dago. Beheko solairuan bi industria-enpresa daude: ABEKI-k poltrusio bidezko beira-zuntzeko ertzak egiten ditu eta LURKOI-k egurrezko hiri altzariak, umeentzako jolastokiak etab.

Lehenengo solairuan, berriz, bost zerbitzu enpresa ditugu, gehienak ere informatikaren inguruan lanean ari direnak: ALMIS, burtsa eta finantza kudeaketarako softwarea; DANKA, software multimedia garapena eta SOME, enpresa kudeaketarako softwarea: kalitatea, ingurumena, lan osasuna; eta besteak ICTE, hirugarren adinekoei zerbitzuak eta LAINTZ, eraikinen zaharberritzea, antzinako etxeak...”

Zaborrak Lapatxera

(332/13.or.) 1996.9.20

Gipuzkoako Foru Aldundiak aurreko astean AKEIko zaborrak, hau da, Debagoieneko zaborrak, Sasietako mankomunitatearen zabortegira eraman beharko zirela adierazi zuen. Horren orde, aldiz, Azpeitiko Lapatx zabortegira joango zirela azaldu zuen hurrengo astean..

Sasietako zabortegian denbora eramango zuten lanak egin behar zirela adierazi zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Kontua zen Gipuzkoa osoko zaborrak erretzeko labeak 25.000 milioiko inbertsiopublikoa beharko lukeela eta hori gehiegizkoa zela.

Debagoienean orduan 118 m³ zabor jasotzen zen eta Lapatxera zaborra eramango zuten kamioiak 50 m³ eramateko gaitasuna zuen. Hala ere zaborra kamioi horietara pasatzeko 65 milioi pezetako inbertsioa egin beharra zegoen. Lan horiek aldundiak finantzatuko zituela iragarri zuten diputazioko arduradunek..

■ Juan Joxe Etxaberi agurra

(329/8.or.) 1996.7.19
Uztailaren 16an egin zitzaion azken agurra Juan Joxe Etxaberi. Milaka lagun etorri zen San Frantzisko eliza ingurura, han egin zelako hileta elizkizuna. Uztailaren 12an hil zen Urruñan, bihotzkoak jota.

■ Batzokia erasotu

(329/8.or.) 1996.7.19
Uztailaren 14an Batzokia erasotu zuten. Leihoak apurtu eta koktelak jaurtiki zituzten barrura. Ondorioz, mahai eta aulki batzuk erre ziren.

■ Sinadurak Uribarrin

(329/10.or.) 1996.7.19
Uribarriko erretiratu etxeok 710 sinadura bildu zituzten udal gobernari aurkezteko, euren egoitza berritzeko dirua eskatzeko. Hirukoak ez zuten onartu dirulaguntza ematea.

■ Txakolin izozkia

(329/25.or.) 1996.7.19
Eugeni Uribarren izozkigileak txakolin izozkia egitea erabaki zuen. Aurrez ere bazituen izozki bitxiak: patxaran izozkia, babarrun izozkia eta Idiazabalgo gazta zaporedun izozkia.

■ Albina Madinabeitia hil zen

(332/10.or.) 1996.9.20
Albina Madinabeitia biolinjolea hil zen 87 urte zituela. Madrigo Orkestra sinfonikoko bakarlari ibili zen Albina eta geroago, Gerra Zibila amaitu zenean, Bilboko Orkestra Sinfonikoan. Ondoren Espainiakoan sartzea lortu zuen eta 1979an erretiratu eta Arrasatera itzuli zen.



■ Iskanbila taldearen lan berria

(333/22.or.) 1996.9.27
Iskanbila taldeko Haritz Etxeberria bi aste lehenago hil zen auto istripuz. Abuztuaren hasieran Shot estudioan diskoa grabatu zuen taldeak eta laster kalean egongo zela aurreratu zuten.

■ Galindo “non-grato”

(334/9.or.) 1996.10.4
Ezker Batuaren, HBren eta EAren aldeko botoei esker, Galindo jenerala “persona non-grata” edo ez atsegina izendatzea erabaki zuten osoko bilkuran. EAjko zinegotziak abstenitu egin ziren eta PSE-EE eta PPkoek aurka bozkatu zuten.

■ Goio Etxaberi 9 urte

(334/12.or.) 1996.10.4
Goio Etxabe arrasatearrari bederatzi urteko kartzela zigorra ezarri zion Auzitegi Nazionalak: zazpi ETArekin kolaboratzeagatik eta bi armak edukitzeagatik. Irailaren 16an epaitu zuten eta 1995ean atxilotu zuten.

■ SPRIk Cerrajeraren zati bat erosi zuen

(335/13.or.) 1996.10.11
UCEM SAL enpresak Cerrajeraren zati bat saldu zion SPRIri. Honek EZB hor jarriko zuela erabaki zuen. 10.000 m²ko lurra saldu zion, 370 milioien truke.

Gazteendako unitate psikiatrikoa

(335/11.or.) 1996.10.11

Depresioa, eskizofrenia eta anorexia nerbiosoa bezalako gaisotasun psikikoak dituzten gazteendako unitatea zabalduko zutela adierazi zuten Aita Menni ospitaleko arduradunek. 12-16 urte bitarteko gazteentzako zerbitzua izatea aurreikusi zen, Euskal Herrian horrelako gaixoak zainduko litzuzkeen zentro bakarra.

Euskalan aurkeztu zuten


(335/9.or.) 1996.10.11

Euskararen erabilera lan arloan bultzatzeko jaio zen Euskalan eta AEDko lehendakariak, Joseba Ezpeletak, Jose Ramon Elortzak (Euskalane-

ko lehendakariak) eta Xabier Zubizarretak, alkateak, aurkeztu zuten. Enpresan euskara batzordeak eratuz hasiko zirela lanean adierazi zuten.



aurrez aurre



Krisi hau gertatu bazaigu, horrelako ondorio latzekin, nahiko ondo jokatu ez dugulako izan da. Denok. Goitik behera. Urte askoan uste dut inkontziente samarrak izan garela. Soldatetan gehiegi irabazi dugu, merezi baino gehiago. Produktibitatean 2 edo 3 puntu igotzen direnean, soldatak 6 puntu igotzen badira, horrek ez dauka beste ondoriorik langabezia baino.

JUAN MARI UZKUDUN


Copreciko gerentea
1994.3.11

AKElko langileak greban

(336/9.or.) 1996.10.18

Aste horretako astelehenean grebari ekin zioten AKElko erraustegiko langileek. Abenduaren lehenenean erraustegia itxiko zela eta, lan kontratua ere bertan behera geratuko zitzaielana esan zieten eta horregatik hasi zuten greba. Hamar langileetatik 7 finko zeuden AKEIn.

Bestalde, Lapatxara barik, zaborrak Sasietako zaborteigira eramango zirela baieztatu zen.



TXIRRITA
Taberna

Garagardo ona
Giro hobea

Gesalibar auzoa
Tel.: 943 79 10 35



ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK

Basabe Industrialdea 4, EQ- 11 • ARETXABALETA
Tel/fax. 943 79 01 51 • Mugikorra (908) 77 28 67 • Partikularra 943 79 74 26



Elizondo
kafetegia



Garagartza auzoa • ARRASATE • TEL.: 943 79 15 99


BASOLANAK

- Garbiketak
- Landaketak
- Inausketak...

Belatze Mendi S.L.

Tel.: 943 79 36 82 / 677 71 93 31
ARRASATE

aurrez aurre



Euskaldunon Egunkaria

Askok uste duen baino arazo gehiago konpondu ditu Arartekoak. Gertatzen dena zera da, konpondutako hainbat arazo askotan ezin ditugula argitara eman. Legeak esaten duena bete behar dugu, horregatik askotan ezin ditugu gauza batzuko argitaratu.

JUAN SAN MARTIN

Arartekoa
1994.5.6

Hiper Eroski zabalik

(341/11.or.) 1996.11.22

Azaroaren 17an inauguratu zuten Hiper Eroski, hainbat agintariren presentziarekin:

Roman Sudupe, aldu nagusia, Xabier Zubizarreta, alkatea eta Eroskiko arduradunak.

**Agustin Markaide***Eroski Kooperatibako zuzendari orokorra*

“Aurten Kooperatibak 30 urte bete ditu. Orain dela 30 urte elkar-tu zirenak Eroski zer bihurtu den ikusiko balute, ziurrekin ez lirake ohetik jaiki ere egingo. Hemendik 30 urtera zer izango garen, auskalo! Gure nahia elkarlanean aritzea da eta kontsumitzaileen beharrak asetzea. Nola edo hala, beste 30 urte barri ere horixe egiten ariko gara; ziur nago”.

Arrasate Press
1999.11.12

Sexualitate bulegoa zabalik

(340/11.or.) 1996.11.15 +iritzi

Gaske bulegoa dagoen Garibai etxean ireki zuten Sexualitate bulegoa. Astean birritan aholkularitza emateko zabaldu zen eta baita informazioa eta orientazioa ere.

Maitena Zubia*Sexologia bulegoko langilea*

“Jende ugari eta denetarikoa igaroda Garibai Etxetik. Hainbat ekimen eta ekintza ere egin dira elkarlanean: hitzaldiak, lantegiak, zinema emanaldiak...”

Gure lana errotzen eta sendotzen joan den neurrian, jendearen erantzunaren eta erakundearen babesari esker, gure zereginari buruzko ikuspegia ere zabaltzen joan da. Aldaketa nabarmenena Sexologia Zerbitzuaren helburuen ingurukoa izan da. Bulegoan eta telefono zerbitzuaz gain, garrantzitsua da komunitatean esku hartzea, gizarte lanaren bidez hezkuntza bultzatzea.

Orain artekoa modu positiboan baloratzen dugu eta ditugun perspektibak erronka atsegun moduan hartzen ditugu”.

Udalatxeko gurutzeak 25 urte

(335/21.or.) 1996.10.11

1971ko urriaren 2an ipini zuten Udalatx gaineko gurutzea. 70 gizonen artean egin zuten hori. Mendian hil ziren mendizaleen oroimenez jarri zuten, bai eta Angel Balzategi Iregi “Erregetxo” zenaren gogoia betetzeko. Bera 1971ko abuztuaren 28an hil zen eta bere omenez gurutze txikia jarri zen.

Aitor Lopez Rekarte Realean

(335/25.or.) 1996.10.11

Aitor Lopez Rekarte arrasatearrak 2000. urtera arteko kontratua sinatu zuen Realarekin.

Gesalibarko ospitalea monumentu

(336/21.or.) 1996.10.18

Bainuetxe bezala jaio zen San Juan ospitalea. Hango bezero izan zen Canovas del Castillo ere. Bainuetxea XIX. mendean eraiki zen eta 1898ko ekainaren lehenean inauguratu zen osasun etxe bezala. 1930ean izena aldatu eta Gaixotegi Psikiatriko izena eman zioten. 1996an eraikinetako bat monumentu historiko izendatu zuten.

Bai, Uribarriko erretiratu etxeari

(337/11.or.) 1996.10.25

Uribarriko erretiratuen etxea udalak Larrea plazan dituen lokaletan egingo zela

onartu zen eta 340 m²ko azalera izango zuela.

Leixargaratek 25 urte

(337/21.or.) 1996.10.25

Alabitta eta Degurixa arteko Leixargarateko aterpetxeak 25 urte bete zituen. Besaide eta UDA mendizale elkar-teek eraiki zuten eta 1971ko irailaren 5ean inauguratu zen.

Maala oinezkoendako

(338/13.or.) 1996.10.31

Maalako Errabala oinezkoendako izango zela erabaki zuten udalak. 40 milioiko aurrekontua onartu zuten horretarako.

Joxe Mari Pagoagari ongi etorria

(339/13.or.) 1996.11.8

Carabanchelgo espetxean igaro zituen azkenengo hilabeteak. 22 urte eman zituen Arrasatek kanpo, baina azaroaren 2an aske utzi zuten Joxe Mari Pagoaga.

Hondeamakinak San Juan de Diosen

(340/9.or.) 1996.11.15

San Juan de Dios eta San

Rafael pabilioiak bota zituzten parean eraikin berriak egin zituztelako.

Jose Luis Iñarra errepeidea zabalik

(340/12.or.) 1996.11.15

Sei urtez itxita egon ondoren, azkenean ireki egin zuten Jose Luis Iñarra kalea. Uarkapeko lanak zirela eta itxi zuten errepeidea.

Moises Micael jokalar berria

(340/21.or.) 1996.11.15

Urbina-Maltzaga taldeak beste amerikar bat fitxatu zuen, Moises Micael alegia. Santo Domingoarrak 21 urte zituen.



5000

**arrazoiengatik,
zorionak Arrasate.**

ZORIONAK ARRASATE PRESS!

iKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

SUKALDE ERAKUSKETA: Udala plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 943 79 00 43
BAINU ERAKUSKETA: Zarugalde kalea, 52 • ARRASATE • Tel.: 943 79 99 42

FAGOR 

aurrez aurre



ETBko programen tituluak ikusirik, iruditzen zaigu titulu asko daudela produktu erdaldunei garo usaina eman nahi diotenak. Hor dago kokka edo Ganbaran bai tituluak, adibidez, eta agian horrek telebistan funtzionatzen du baina zelofana ez da garrantzitsuen izaten, barrukoa baizik.

ANDONI EGAÑA

Bertsolari txapeladuna
1994.6.3

Al Andalusek egoitza berria

(342/26.or.) 1996.11.29

Abenduaren lehenean ireki zituen ateak Al Andalus elkar-tearen egoitza berriak. 930m²ko egoitza zen eta 86 milioko gastua izan zuen.

Inaugurazioan elkartu ziren alkatea, Jose Antonio

Maturana (Jauraritzako Herri-lan eta Garraio sailburua), Jose Mari Gonzalez (Euskadiko Andaluziar Etxeetako lehendakaria) eta Arrasateko Al Andalus elkateko lehendakaria, Rafa Gomez.

**Rafael Gomez**

Al-Andalus Elkarteko lehendakaria

"Umila ez banintz, esango nuke Al-Andalusek Arrasateko herria-
ren errespetua eta miresmena irabazi duela. Duela urte asko des-
agertu ziren herri honen izaera kulturean barneratzen asmatuko
ote genuen zioten zalantzak. Orain, sortzen ikusi gintuen herriko
kulturearen alde serioa lan egiten dugula irizten diote gurekin
harremana duten erakundeek ere, batez ere Andaluziako Batza-
rreko Kultura Kontseilaritzak. Gaur egun, eredu bezala jartzen gai-
tuzte hasi berri diren elkarte andaluziarren aurrean. Euskadiko
Elkarte Andaluziarren Federazioko garrantzi handiko partaideak
garela ere esango nuke, eta zentzu guztietan Federazio horretako
elkarte handiena garela orain."

Arrasate Press / 2000.4.19

Lagun-Arok 30 urte

(353/9.or.) 1997.2.28

Lagun-Arok bere 30. urteu-
rrena ospatu zuen otsailaren
20an. Jose Antonio Ardanza
lehendakariak ere hartu zuen
parte ekitaldian, bai eta Jabier
Retegi eta Patxi Ormazabal
sailburuek ere.

Itxieraren egunean ere ika-mikak

(342/12.or.) 1996.11.29

AKEIren itxieraren egunean
ere ika-mikak egon ziren lan-
gile eta sindikatuen artean.
Langileek greban segitzen
zuten. Izan ere, Dragados
enpresak 10 langileen lan kontr-
atuak bertan behera geldit-
zkeko eskaria bidali zuen Lan
Ordezkaritzara.

Kontuak-kontu, azaroaren
30ean azken zaborrak erre
ziren Akeiko labeetan. Eta egun
horretan ere langileek protes-
ta ekintzak egin zituzten.

Egun horretatik aurrera,
trasferentzia gune bat egin
zen, bertan zaborrak konpak-
tatu eta ondoren Sasietara era-
mateko.

Argia saria, ATBrentzat

(341/13.or.) 1996.11.22

Argia aldizkariak Arrasate
Telebista saritu zuen
"gainontzeko komunikabide-
tan albiste orokorre garrantzia
ematen dieten bitartean, ATBK
herri-informaziorako txoko bat
gorde duelako", bai eta
"arrasatearrek ATB ikusteko
ohitura zutelako".

Euskal Herriko itzulua Arrasaten

(342/21.or.) 1996.11.29

Euskal Herriko itzuliaren
bukaera Arrasaten izango zela
iragarri zuten bi urte lehenago
Arrasaten hasi zenean. Hori
dela eta, Legazpin hasi eta
Arrasaten amaitu egin zen urte

horretan Euskal Herriko
Txirrindulari Itzulua.

1997**Kontzeziñoko etxeak bota**

(348/9.or.) 1997.1.24

Urtarrilaren 18an bota
zituzten Kontzeziño inguruko
etxeak. Etxebizitza berriak
egitea zen asmoa.

"Portu" hil zen

(351/9.or.) 1997.2.14

Otsailaren 7an hilda
aurkitu zuten Eduardo Mancebo
"Portu". Bere familiako kideek
aurkitu zuten Ferrerrias kaleko
etxean. Besaiden eta
Lekeitikon zabaldu zituzten

bere errautsak otsailaren
15ean. Otsailaren 16an,
herriko musika taldeek
omenaldi-kontzertua eskaini
zioten Monterronen RIP
musika taldeko kide zenari.

Ikarus taldearen 10. urteurrena

(352/21.or.) 1997.2.21

Ikarus delta Hegoa eta
Parapente taldeak 10 urte
bete zituen. 1987an eratu
zuten taldea Juan Luis
Etxebarriak, Jesus Zuazubiska-
rrek, Jose Antonio Toledok,
Miriam Beltran de Herediak
eta Jesus Nafarreteak.

INEM zabaldu zuten

(354/9.or.) 1997.3.7

Martxoaren 3an ireki zen

INEMeko bulego berria, tren
geltoki zaharrean. Han zituzten
zenbakien arabera, Arrasaten
776 langabetu zeuden, 294
gizon eta 482 emakume.

Itziar Zabala, judo txapeladuna

(354/20.or.) 1997.3.7

Euskal Herriko judo
txapelketa irabazi zuen Itziar
Zabalak.

Jose Mari Lasagabaster hil zen

(356/9.or.) 1997.3.21

Aurreko asteko igandean
hil zen Jose Mari Lasagabas-
ter. Bihotzekoak jota hil zen
77 urterekin. Argazkilaria eta
sindikalaria izateagatik zen
ezaguna "Bentxes".

San Joan parrokia itxi egin zen

(356/10.or.) 1997.3.21

Berritze lanak zirela eta,
San Joan parrokia itxi egin zen
martxoaren 31n.

Ezker Batua kanpora

(357/8.or.) 1997.3.26

Ezker Batuak udal
gobernutik ateratzea erabaki
zuen. Ezker Batuak utzitako
postuak Herri Batasunak hartu
zitu; Gizarte eta Ongizate
Batzordea Joseba Ugaldek
betetzen zuen eta Isabel
Zuazubiskarrek hartu zuen.

Orkatz taldeak 25 urte

(359/8.or.) 1997.4.18

Orkatz Eskaut taldeak 25

Born Jay txirrindulari taldea sortu

(354/21.or.) 1997.3.7

18 txirrindularirekin sortu zen Born Jay afizionatu mailako txirrindulari taldea.

Honako txirrindulariek osatu zuten talde hura: Gorka Valgañon, Oscar Estevez, Iban Sastre, Sergio Frutos, Jabier Migel, Oskar Askasibar, Xabier Lizaso, Iagoba Arranz, Iñigo Mondelo, Marcos Gonzalez, Agustin Ulanga, Iñigo Carbalho, Joaquin Soler, Jose Ramon Aiastui, Jon Unamuno, Zuhaitz Herrero, Jose Sedano eta David Sojo.

San Juan Ospitalean berrikuntzak

(357/9. or.) 1997.3.26

San Juan Ospitale Psikiatrikoaren egoitza berriak bukatu zituzten, eta inaugurazio ofiziala astebete beranduago izan zen. Besteak beste, Jose Antonio Ardanza, lehendakaria, izan zen bertan. Lau eraikin berri egin ziren.

Mondra emakume taldeak hamar urte

(353/21.or.) 1997.7.28

Rosi Otaduy eta Roman Lopez-en bultzadaz Mondra elkarrean emakume taldea sortu zen

10 urte lehenago. 35 emakumek jokatu zuten denbora horretan taldean.



Roman Lopez

Mondrako nesken taldeko sortzaileetarikoa bat

"1986. urteko udaberria zen San Viator Ikastolako "Kakun"ek nigana jo zuenean Mondragoen emakumeen futbol talde bat sortzeko aukera behatzeko. Rosi Otadui "Katanga" rengana jo nuen laguntza bila, eta bien artean jarri genuen abian taldea.

Aurreselektzioan, Athletic talderako Lezaman egiten ziren proba fisiko eta tekniko ia berberak egin ziren. Proba horiek klub bizkaitarrak doan eman zuen ikastaro batean ikasi nituen. Hasieran, Oñati, Eskoriatza, Aretxabaleta eta baita Eibarreko neskaren bat ere aukeratu genituen".

aurrez aurre



Madrilen, lanean eta gainera apustu gogorra egiten.

Hasieran oso gogorra egin zitzaidan. Bakarrik nengoen pisuan eta egunero izaten nituen entseguak: dantzak, abestiak grabatu, bideoak ikusi... astuna da eta bakarrik sentitzen nintzen. Borondate handia izan behar da eta konfiantza nor bere buruarengan: Nik hau egin dezaket eta, gainera, oso ondo esan behar diozu zeure buruari.

ANNE IGARTIBURU

Telebista aurkezlea
1995.2.17

Zorionak Arrasate Press Segi aurrera!!



ARAOTZ Merenderua

Ingurune zoragarrian,
lagun artean
ondo pasatzeko aukera

Araotz auzoa, 2 • OÑATI
Tel.: 943 78 35 26



ARANTZAZU
ARAOTZ Merenderua
OÑATI

Etxebizitzak salgai Antzuolan

90m² erabilgarriak

20.000.000 PTA

Lehen mailako materialekin egina. Leku ezin hobea.
Informazioa eta salmenta: **KOROSTI INMOBILIARIA.**
Tel.: 943 73 05 25

aurrez aurre



Gara

Antzerkia eta telebista oso medio desberdina dira lan egiteko. Antzerkia zuzenagoa da, egunero ikus-entzuleria desberdina izaten da eta ikus-entzuleen kopuruaren arabera emankizun desberdina egin daiteke. Dena dela, antzerkia telebista baino gehiago gustatzen zaidala uste dut.

ELENA IRURETA

Aktorea
1995.4.7

Debarroko txapelketak 50 urte

(360/21.or.) 1997.4.25

Apirilaren 20an jokatu ziren Debarroko pilota txapelketak finalak Iturripen. 50. urtez egin zen hori.

Egun horretan urte horietan finalera iritsi ziren arra-

satearrei omenaldia egin zitzaizen. 50. urteurrenoko finalak: kadetetan bergararrak, gazte mailan plaentziarrak eta seniorretan elgetarrak izan ziren txapeldunak.

**Udalpe elkarteak 50 urte bete zituen**

(364/71.or.)

Eli Alzola eta Jose Rodriguez*Udalpeko zuzendaritzako kideak*

1947an 30 bazkiderekin sortu zen Udalpe. 1958an lekuz aldatu zen eta 280 bazkide zituen. Pablo Garai elkarteko sortzaileetatik bazkide izaten jarraitzen duen bakarra da, beste guztiak hil direlako. 97ko maiatzaren 25ean 50. urteurrena ospatu genuen eta ekintza ugari antolatu genituen hori ospatzeko.

Hainbat ekintza antolatzeagatik da nabarmen Udalpe: lehenengo Danborrada, Erretiratuari Omenaldia... SUDCen sortzaile izan zen, eta Gastronomía Lehiaketa askotan parte hartu izan du, emaitza bikainekin.

Gaur egun, 9 kidek osatutako Zuzendaritza Batzordea du. Jose Rodriguez jauna izan da lehendakaria azken 16 urteotan.

Enpresa Sustapenerako Zentroa zabalik

(373/10.or.) 1997.7.24

Debagoieneko mankomunitateak Zaldibarren antolatu zuen Enpresa Sustapenerako Zentroa (ESZ) ireki zen.

Hezkuntza ez arautuen esparruan ikasi dutenei zuzendu zen Zentroa; Lantegi Eskolako edo Lanerako Prestakuntzako ikastaroetan parte hartu dutenei, hain zuzen ere.

Irailaren 25ean inauguratu zen Enpresa eta Berrikuntza Zentroa. Ordura arte Saiolanek Eskolan zuen egoitzan kokatu ziren EBZtik aterako lehenengo lau enpresak. Orduetik aurrera, ordea, Cerrajeraren eraikinean jarri ziren. EBZren lehenengo eraikin honetan 27 milioiko inbertsioa egin zen.

Zentroa inauguratu zen egunean, ekitaldian agintari asko egon ziren; besteak beste, Roman Sudupe, Gipuzkoako Aldun Nagusia, Jabier Retege, Industria Sailburua eta Jose Mari Loiti, orduko Arrasateko alkatea egon ziren.

urte bete zituen. Garai batean mugimendu handia izan zuen talde honek herrian, gazteen aisialdian.

■ Aretxabaleta-Arrasate Institutua

(359/10.or.) 1997.4.18
Arrasate eta Aretxabaletako Institutuek bat egin zuten.

■ Bake epaitegiari eraso

(359/11.or.) 1997.4.18
Apirilean erasotu zuten Arrasateko bake epaitegia. Apirilaren 3koak 2.385.000 pezetako kalteak eragin zituen eta hildaren 11koak 1,5 milioi. Horrez gain, 200.000 pezeta kostatu ziren Txatxilipurdi eta AEDren kristalak konpontzea.

Urtea hasi zenetik, hiru eraso izan zituen epaitegiak. Azkenengoan bi kilo kloratitaz egindako lehergailuak egin zuen eztanda Pablo Uranga kalean.

■ Xabin Arrieta hil zen

(360/6.or.) 1997.4.25
Xabin Arrieta 82 urte zituela hil zen hilaren 21ean. Arrasate Pressen hasieratik parte hartu zuen informazioa ematen eta argazki zaharrak ekartzen.

■ McKinleyra espedizioa

(362/21.or.) 1997.5.9
Roman Ezeizak, Josu Peredak eta Mikel Aranak Alaskako McKinley mendira

joateko asmoa adierazi zuten. 6.200 metroko mendia zen eta maiatzaren 19an irten zen espedizioa.

■ Udalpe elkarteak 50 urte

(364/17.or.) 1997.5.23
1947ko maiatzaren 26an, 30 lagunek ofizializatu zuten Udalpe elkarteak. Denbora horretan, Toribi Agirre kalean lehenengo eta Iturripen gero Udalpek 50 urte bete zituen. San Joanetako danborrada Udalpek sortu zuen.

■ Udalako Arteta baserria erre zen

(367/9.or.) 1997.6.13
Ekainaren 8an sua piztu zen Udalako auzoko Arteta

baserrian. Suaren ondorioz, ganbara eta korta kiskali ziren.

■ Berdintasunerako plana abian

(368/9.or.) 1997.6.20
Osoko bilkurak Ekintza Positiborako plangintza onartu zuten. Emakumeei eta gizonezkoek aukera berberak eman nahi dien planaren berri prentsaurrean aurkeztu zuten Emakumearen batzordeko kideek.

■ CC00koek gose greba egin zuten

(370/9.or.) 1997.7.4
Astebeteko gose greba egin zuten CC00koek euskal presoen eskubideen alde. Ezker Sindikalista korronteko

12 kidek udaletxean egin zuten baraualdia.

■ RIPen omenezko diskoa kalean

(370/20.or.) 1997.7.4
Euskal Herriko 17 taldek RIPen kantuen bertsoak bildu zituzten "Versiones" izeneko diskoan.

■ Arrasate XX. mendearen erakusketa

(371/11.or.) 1997.7.11
Uztailaren 7an ireki zen Arrasate XX. mendearen izan duen bilakaera jasotzen zuten erakusketa. Harresi artean Eusko Ikaskuntza eta Arrasateko udalaren artean antolatuta, industrian oinarritutako erakusketa izan zen.

Ortega Lara Arrasaten aurkitu zuten

(370/10.or.) 1997.7.4

San Josepe auzoko Jalgi CB lantegian aurkitu zute Ortega Lara espetxeetako funtzionarioa. ETAk bahitu zuen. Hori dela eta, Josu Uribetxeberria arrasatearra, Xabier Ugarte oñatiarra, Jose Luis Erotegi antzuolarra eta Jose Migel Gaztelu bergararra atxilotu zituen goardia zibilak.

32 urteko espetxe zigorra eskatu zuen fiskalak Ortega Lara bahitzeagatik atxilotutako lau euskaldunentzat. Eta horrela onartu zuen epaileak ere: legez kanpoko atxilotagatik 20 urte eta hilketa konspirazio graduan delitu egiteagatik beste 12 urte.

MOBILIZAZIO UGARI

Blancó Garridoren hilketak mobilizazio ugari eragin zituen herrian.

Horrekin batera, Ajuria Eneko Itunak HB isolatzeko hartu zuen erabakiak Arrasaten ere eragina izan zuen. Aste horretako astelehen goizean ugentziazko osoko bilkura egin zen udaletxean eta hitz gogorak esan ziren HB eta alderdi horretako zinegotzien aurka.



Zentsura mozioaren alde

(373/11.or.) 1997.7.24

EAJk, PSE-EEk, EAK eta PPK zentsura mozia sinatu zuten eta Ezker Batuko bi zinegotziak abstenitu egin ziren. Hamahiru zinegotzik egin zuten mozioaren alde. Osoko bilkura aretoa jendez gainezka zegoela

aurkeztu zuten Xabier Zubizarretaren aurkako zentsura mozia abuztuaren 7an. Jose Mari Loitik alkate kargua hartu zuen egun horretan. Kalean zentsura mozioaren aurkako kale agerraldia egin zen.

aurrez aurre

Emakume eta gizonen, txurien eta beltzen desberdintasun horiek ez ditut ulertzen... ez diet kasurik egiten.

ALBERT PLA

Abeslaria

1995.4.12



parraldean baserri-giroak agintzen du. Horrekin ez dut esan nahi gure sentimenduak eta, ondorioz, gure literatura atzera begira ditugunik, baizik eta errealitate baten ikuspegi agertu nahi dugula.

DANIEL LANDART

Idazlea

1995.4.28

LAN ESKAINTZA

Zahar berri egitasmorako eragilea behar da

- Egun erdirako lan kontratua eskaintzen da.
- Hautaketa prozesuan parte hartu gura izanez gero, bidali kurrikuluma AEDra (Pablo Uranga, 4 Arrasate) ekainaren 30a baino lehen.
- Informazio gehiagorako deitu 943 71 21 17 telefonora edo etorri Pablo Uranga 6an ditugun lokaletara.



UDARAKO IKASTAROAK (UZTAILA - ABUZTUA - IRAILA)

Ingeniaritza

- Kalkulua I eta II
- Fisika I eta II
- Termodinamika
- Informatika
- Algebra I

Informatika

- Ofimatika ikastaro konbinatuak eta monografikoak (Windows, Word, Excel, Access)
- Internet
- Ordenadore bat ikasle bakoitzarentzat

Ikasketen egiaztagiria edo diploma

Eskola partikularrak

- LH • DBH
- LOGSE • BT

Mekanografia

- Ordenadore bidez
- Teklatuari begiratu gabe
- Minutuko 360 pultsazio



Garibai, 6 - B ARRASATE Tel.: 943 - 77 11 06

aurrez aurre



Telenorte, Teleberri eta Telenavarrako informatiboetan berdintasuna markatzen duten elementuak daude: agente modura instituzioak eta gai modura politika eta ekonomiak dute garrantzia. Jerarkia soziala oso markatuta dago, herritar normalak ez dira agertzen sekula ezer egiten, beti dira goitik datorren zerbaiten hartzaileak.

EDORTA ARANA
EHUko irakaslea
1995.7.21

Presoen euskal herriratzea eskatzeko

(388/12.or.) 1997.12.12

Sei arrasatearrek presoen Euskal Herriratzea eskatzeko plataforma eratu zuten: Joxe Ramon Elortzak, Luis Sagastak, Bittor Aranzabalek, Manolo Quevedok, Jose Antonio Altunak eta Agustín

Mondragonek.

Maiatzean Senideak elkartearen deia jaso zuten presoen Euskal Herriratzea lortzeko laguntza eskatzeko. Irailean sei lagunek plataforma eratzera erabaki zuten.



Ijitoen txabolak kendu zituzten

(391/9.or.) 1998.1.16

Aste horretako astelehenean hasi ziren udaleko langileak ambulatorio ondoko txabolak botatzen. Baina, hamar ijitoek ez zuten Arrasateetik joateko asmorik.



MU ofizialki inauguratu zen

(381/12.or.) 1997.10.24

Mondragon Unibertsitatea ofizialki inauguratu zen urriaren 22an.

Idoia Peñakoba
MUko idazkari akademikoa

XXI. mendeko gizarteak eskatzen duen hezkuntza eredu berrian lanean, ikasle, enpresa eta, orohar, gizarteak behar duen kalitatezko hezkuntza eta ikerketa zerbitzu eskaintza hobe eta zabalagoa eskaintzea da. MU egiten ari den azterketa estrategikoan jaso den erronketariko bat. Datozen 8-10 urteetan, hainbat dira landu beharreko esparruak: ikasketa berrien garapena, irakasleen hizkuntza politika, Unibertsitate Campusa, I+G (Ikerketa eta Garapena) eta hirugarren zikloko ikasketak, heziketa iraunkorra etab.

Jarrera proaktibo eta parte-hartzailea izango da, hain zuzen ere, ezarritako helburu handizaleak lortzeko oinarri garrantzitsua.

MUK 2.250 ikasle zituen bere sorreran, gaur egun 2.800tik gora ditu.

■ A-20ko hitzarmenak onartu ziren

(373/9.or.) 1997.7.24

Aurreko ostegunean egindako osoko bilkuran Musakolako A-20 guneko beste sei enpresarekin hitzarmena sinatzea erabaki zen, bigarren aldiko urbanizazio lanak eurek gestiona zituzten.

■ Garagartzako erretaula berriztu zen

(374/24.or.) 1997.9.5

Garagartzako erretaularik zaharrena berriztu zuen Donostiako Artelekuk. Erretaula XVI. mendekoa zen, hau da, errenazimendu garaikoa.

■ "Extra" kaleratu zen

(375/12.or.) 1997.9.12

Egunkari berria atera zen kalera Debagoienean. "Extra" izena zuen eta Debagoien osoko informazioa lantzen zuen. Bi kazetarik eta publizista, administrari eta maketatzaile banak osatzen zuten lan taldea.

■ "Linua, ehuna eta artilea" liburua

(376/8.or.) 1997.9.19

Jaione Isazelaiak, Bergaran bizi zen arrasatearra, egindako "Linua, ehuna eta artilea" liburua kaleratu zuen. Bergarako Udaletxean aurkeztu zuen.

■ Rafa Agirre hil zen

(377/11.or.) 1997.9.26

Rafa Agirre 47 urte zituela hil zen bihotzekoak jota, aste horretako astelehen goizean. Eskolan eta parrokiaiko koroan egindako lanagatik zen ezaguna Rafa.

■ Pako Robles itzuli zen

(379/12.or.) 1997.10.10

Herritik kanpo 16 urte egin ondoren, Arrasatera itzuli zen Pako Robles.

■ Bonba Taldieren lehen irteera

(380/21.or.) 1997.10.17

Bonba Taldiek, Aitor Lopez Rekarteren lagunek sortutako zaleen taldeak, bere

lehenengo irteera egin zuen Reala eta Celtaren aurkako partida ikusteko. 145 bazkiderekin sortu zen eta zuzendaritza hamar lagunek osatu zuten. Lehendakaria Saul Osinaga izendatu zuten.



■ "Euskara kartara" kalean

(382/13.or.) 1997.10.31

Debagunek, Debagoieneko euskara elkarteak batzen

dituen elkarteak, "Euskara kartara" jatetxe gida kaleratu zuen. 5.000 jatetxe gida banatu ziren 500 pezetan bakoitza eta Debagoieneko ehun jatetxe jasotzen zituen. Guztia euskaraz kaleratu zen eta hiztegia ere bazekarren.

■ Gune Press: publizitate agentzia.

(383/14.or.) 1997.11.7

Herriz-aldizkarietako publizitatea gestionatzeko sortu zen Gune Press. Arantzazu Lagunilla hasi zen horretan lanean.

■ Bake epaitegia

(384/12.or.) 1997.11.14

Urte batzuk lehenago bide judizialari ekin zion udalak

ARABA EUSKARAZ LAUDIO

Adi!!

Datorren ekainaren 22an Arrasate Irratian "Zeu be bai" saioan (12:00-13:00) bi opari sorta zozkatuko dira: Sudadera, metxeroa, pin-a eta giltzatakoa.

Parte hartzeko ostegunera arte 943 71 23 91 telefonora deitu besterik ez daukazu.



NOLA HELDU



Bolatokia

- 4.a**
- 12:00 Mara taldea
 - 13:30 Bide ertzean
 - 15:00 Mikel Urdangarin
 - 16:30 Imuntzo eta Beloki
 - 18:00 Alaitz eta Mainer

Pergola


- 4.b**
- 10:00 Zirkuitu irekiera
 - 10:30 Erakusketen irekiera
 - 11:00 Txistulariak
 - 11:30 Itzarkundia dantzak
 - 12:30 Untzuetak dantzak
 - 14:00 Bertsolariak
 - 16:00 Urrestieta konexioa
 - 17:30 Pailazoak.
 - Rokodromoa

Ikastola

- 3.**
- 10:30 ERAKUSKETAK
 - 11:00 Trikitixa eskolak
 - 12:00 Bertsolariak
 - 16:00 karmina Burana Opera Diaporama eta bideoak

Jose Arrue

- 2.**
- 11:00 Dantzak
 - 11:30 Umeentzako tailerrak
 - 12:30 Txan handia
 - 13:30 Detraka taldea
 - 15:00 Koldo Amestoy
 - 16:00 Goloka antzerkia
 - 17:30 Kukubiltxo
 - Mikologia erakusketa



Martin Deuna

- 1.**
- 10:30 Herri kirolak
 - 14:00 Lorelei
 - 15:30 Balendi balendi
 - 17:00 Ekon
 - 18:30 Hemendik at Gorritiren abereak



aurrez aurre



Gure egituran barne-antolakuntzak du garrantzia, ez sindikatuek. Egunen batean kontseilu sozialak planteamendu hori egiten badu, erantzun egin beharko zaio; baina, kontseilu sozialei, ez sindikatuei. Egitura berriak sortzen diren heinean, banaketa areagotu egiten da eta ardura hori badut, baina parte hartzeko tokia kooperatibak izaten jarraitzen du.

ANTONIO CANCELO
MCCko lehendakaria
1995.10.27

Elgearen aurka

(404/13.or.) 1998.4.24

Euskal Mendi Federakundea, Eki eta Eguzki taldeak Elgeako parke eolikoaren aurka agertu ziren.

Elgean 60 metroko luzera zuten 40 haize errota jartzekotan ziren. Hauetako bakoitzak 20 metroko hiru beso zituela iragarri zuten. Iberdrolaren errentagarritasunari baino ez zitzaizola begiratzen ere salatu zen.



Pedro Lasagabaster

Gipuzkoako Jarraipen Batzordeko kidea

“Ditxosozko zentral eoliko honen inguruan denetarik esan da azken urte hauetan. Nire ikuspuntutik han gertatu dena lotsagarria izan da. Energia alternatiboak bultzatzeko inposaketa, espekulazioa eta manipulazioa beharrezkoak badira, orduan jai daukagu. Euskaldunak hain folklorikoak ez garela uste dut.

Badaude datu batzuk etorkizunari begira baikorrak izateko. Gipuzkoako bailara honetan eztabaida aberasgarri bat sortu da. Baserritarrek indarra badutela ikasi dute eta lurak espropiatu bari geratu dira. Eskoriatzako Udalak energiaren sozializazioa eskatu du, garrantzi handiko urratsa emanez; Jarraipen Batzorde bat eratu da eta kalte batzuk murriztu egin dira. Bukatzeko, ezin dut ahaztu eztabaida honetan bailarako komunikabideek jokatu duten papera. Kasu honetan, behintzat, komunikabide handiek baino profesionaltasun gehiago erakutsi dute. Eta hori pozik egoteko modukoa da”.

AEDk 15 urte

(407/12.or.) 1998.5.15

“Ametsa eraikiz doa” jaia aurkeztu zuen AEDk bere 15. urteurrena ospatzeko. Asteburu bateko jaia izan zen. 1983ko azaroaren 29an eratu zen AED.

Joseba Ezpeleta

AEDko lehendakaria

1998an, mondragoetarrok 15 urte bete genituen AEDrekin elkarbizitzen. Ospakizunak udaberriko asteburu batera, maiatzaren 22, 23 eta 24ra, mugatu ziren batez ere, baina zelako asteburua!

Ostiral gauen hasi genuen amets asteburua. Larunbatean 1.200 gaztek gozatu zuten amets gauaz, kontzertuan; eta domekan, 5.000 lagunek hartu zuten parte amets egunean.

Hura oroituz, ohartzen gara Arrasateko herriarengandik jasotako onarpenak erraz gainditzeko duela egindako lan itzelak sortutako nekea.

Horrelakoak garelako, Ametsa Eraikiaz Doa leloan sinisten jarraitzen dugulako, Arrasate Euskaldun Dezagun bultzatzen jarraitu dugu, egitekoak egindakoak beste eta gehiago direlako

herriko bake epaitegia lehen instantziako epaitegi bihurtzeko, Bergarako epaitegia bezala. Epaitegi Gorenak, ordea, bake epaitegi bezala segituko zuela adierazi zuten.

■ Joseba Garitaonandia atxilotu zuten

(384/12.or.) 1997.11.14

Mexikon atxilotu zuten Joseba Garitaonandia iheslari arrasatearra. Garitaonandiak 1995ean egin zuen alde Mexikora. 31 urte zituen beste hiru iheslarirekin batera atxilotu zutenean.

■ Arizmendi Topaketa aurkezpena

(386/9.or.) 1997.11.28

Gizabidek Arizmendi Topaketak aurkeztu zituen, On Jose Mariaren omenez.

■ Leintzgain inauguratu zuten

(387/11.or.) 1997.12.5

Almenek Leintzgain natura etxea inauguratu zuen Galartza auzoan.

■ Etxeberria Peña eratu zen

(387/21.or.) 1997.12.5

Imanol Etxeberria Athletic taldeko atezainaren lagunak Etxeberria Peña eratu zuten. Agustin Arregi zen taldeko lehendakaria.

■ Gaizka Barandiaranen biogragia kalean

(389/15.or.) 1997.12.19

Jose Mari Velez de Mendizabalek Gaizka Barandiaranen biografia jasotzen zuen liburua idatzi zuen. Santamas egunean aurkeztu zen liburua.

■ Bi kartel santamasetan

(389/37.or.) 1997.12.19

Santamas Komisiñuaren kartela onartu ez eta udalak bere kartela atera zuen Santamasetan. Komisiñuaren kartela, beti bezala, Antton Olariagak egin zuen.

1998

■ Chernobil Lagunak elkarrekin sortu zen

(392/10.or.) 1998.1.23

Uda partean Chernobilgo haurrak etxean izan zituzten familietako kideek Chernobil Lagunak elkarrekin sortu zuten. Aurreko udan 12 neska-mutik izan ziren Debagoiengan; Arrasaten hiru egon ziren.



■ Birekurtze azpikoa bota zuten

(394/9.or.) 1998.2.6

Urtarrilaren 26an Moyua enpresaren makinak birrindu zuten Musakolako Birekurtze Azpikua baserria. XVIII. mendean eraiki zuten eta Muxikatarrak izan ziren han bizi izan ziren azkenak.

■ Juan Manuel Ozaeta hil zen

(394/9.or.) 1998.2.6

Hilaren 2an hil zen Juan Manuel Ozaeta, 60 urte zituela. 1963an ihes egin zuen herritik Juan Joxe Etxaberekin batera. 30 urte inguru egin zituen Iparraldean.

**eskerrik asko
irakurle, iragarle eta
kolaboratzaile guztiei
zuen laguntzagatik**



**zuekin beste
500 egingo
ditugu**



NACEX

Expres Zerbitzua

*Kalitatea da gure helburua,
konpromiso osoz.*



Nacex Zerbitzuak



943 79 92 77

Fax.: 943 79 99 21

<http://www.nacex.com>

email:nacex@nacex.com



NACEXNet

Nacexnet bidalketen jarraipen sistemarekin, uneoro, zure bidalketaren berri izango duzu gure web orrialdera kontsulta soil bat eginez:

<http://www.nacex.com>



ARRASATEKO

UDAL

EUSKALTEGIA

EGA

azterketa prestatzeko ikastaro trinkoa

- **Iraupena:** irailaren 4tik 29ra.
- **Ordutegia:** 08:00-13:00.
- **Matrikula epea:** Uztailaren 3tik 20ra.
- **Prezioa:** Matrikula: 14.000 pta.
Materiala: 2.500 pta.

Plaza mugatuak

Arimazuri plaza, 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan)
ARRASATE

Tel.: 943 79 70 77 edo 943 79 77 88

Faxa: 943 79 91 43

euskaltegi@arrasate-mondragon.net

Alkateak prebarikaziorik ez

(419/14.or.) 1998.9.14

SOS Arrazakeriak alkatearen aurka auzia jarri zuen Zaldispen bizi ziren nomadak zirela eta. Jose Mari Loitik, ordea, prebarikazioa ez zuela egin azaldu zuen.

Fernando Barreñok, bergarako epaileak amaitutzat jo zuen eta alkatearen aldeko epaia eman zuen. Epaian esaten zenez, "ijito portugaldarrek hiru aldiz eskatu zuten erroldan sartzea eta ukatu egin zitzaizaien udal arautegia ez zutelako betetzen".

Jabiloren lagunak lan eta lan

(423/15.or.) 1998.10.9

Jabiloren aldeko lagunak ekin-tza ugari egin zituzten Jabilok Aita Mennin behar zuen denboran zerbitzua ordaintzeko. Asko izan ziren Jabiloren alde

mugitu zirenak herrian. Jabi Mayorrek arazoak izan zituen biriketan, eta ondorioz, koman egon zen. Horregatik tratamendu berezia behar zuen.



aurrez aurre



U ne honetan Beloki da txapelduna, eta 21 urterekin aukera asko ditu nik lortutakoa lortzeko. Baina, egia esateko, ez dira urteak bakarrik behar, zortea eta osasuna oso ezaugarri garrantzitsuak dira.

JULIAN RETEGI

Pilotaria
1995.11.3

Zahar Berri aurkeztu zuten

(423/15.or.) 1998.10.9

ERDU-AEK, Udal Euskaltegiak eta AEDK, "Zahar Berri" proiektua aurkeztu zuen. Helburua euskara eskolatik kale-ateratzea zen, taldeetan euskaldun zaharra eta euskaldun berriak nahastuz. Arduradunen ustez Arrasaten gutxi ziren euskalduntzea bukatu eta euskaraz bizitza lortzen zutenak.

Eneritz Garro

Zahar Berriko eragilea

Astelehenetik ostiralera, urritik ekainera, egunero-egunero euskaltegiara joaten den arrasatear asko dago. Gehienek helburu bakarra daukate buruan: egunen batean euskaraz bizi ahal izatea. Hala ere, askok, bide horri gogotsu ekin arren, lortu aurretik amore ematen dute. Zer dela eta hau? Hona hemen berba gutxitan arazoaren muina: euskaltegian ikasitakoa euskaltegi-tako hormetatik kanpo, egunerokotasunean, erabiltzeko ikasle askok sumatzen duen aukera falta.

Euskara ikasle horiek guztiak gure hizkuntzaren etorkizuna errazterakoan izango duten garrantziaz jabeturik, AED, AEK eta Udal Euskaltegiak Zahar Berri jarri genuen abian, Arrasaten euskaldun guztiok euskaraz aritzeko bideak erraztu eta ateak zabaltzeko. Guztiok daukagu zer eskaini, guztiok daukagu zer ikasi!

■ Arruenako zubia

(394/9.or.) 1998.2.6

Eroskiren hipermerkaturia egiteko Arruena baserria bota zuten eta bere ordeztu. Arruenako zubia egin zuten. 23 metro luze eta 10 tonako pisua zuen zubiak.

■ Pedrotxo Martutenera eraman zuten

(397/11.or.) 1998.2.27

Arrasateko Udalak Pedro Guridi preso arrasatearrak bere ueste oneko medikua aukeratzeko eska zezan gestioak egiten zituen bitartean, herritarrek eskatuta, Martutenera ekarri zuten ebakuntza egitera.

18 urte zeramatzen orduan kartzelan, 90 urteko

zigorreakin. Zigorren hiru laurdenak beteta izan arren, Murtziako kartzelan segitzen zuten.



■ Ezker Sindikalak bulegoa zabaldu

(399/12.or.) 1998.3.13

Ezker Sindikalak Arrasaten bulego bat irekiko zuela adierazi zuen. Izan ere, ordura arte Debagoieneko CCOOko kide zirenak Ezker Sindikaleko kide egin ziren.

■ Alde Zaharra monumentu

(401/9.or.) 1998.3.18

Eusko Jaurlaritzak interes kulturalerako ondasun izendatu zuten aurreko urtean Arrasateko alde zaharra. 1998an, berri, multzo monumental izendatu zuen.

■ Unai Zubikarai mendizalea hil zen

(401/10.or.) 1998.3.18

Pirinioetan hil zen Unai Zubikarai mendizale gaztea. Gourgs Balnc gailurretik jaisten ari zela erori egin zen 80 metroko zulo batetik 24 urteko gaztea.

■ Mikel Otxoari omenaldia

(404/14.or.) 1998.4.24

Bonba Taldieren aurkezpenean Mikel Otxoari omenaldia egin zitzaion herriko plazan egindako ekitaldian.

■ Bidezko Merkataritza denda

(409/15.or.) 1998.5.29

Ekainaren lehenean Harreman denda ireki zuten Debagoieneko Gobernu Kanpoko Erakundeek. Bidezko Merkataritza denda izan zen eta Eroskin ireki zuten.

■ Lehengo harria Aita Mennin

(410/15.or.) 1998.6.5

Aita Menni ospitaleak egin

nahi zuen eraikin berriaren lehengo harria jarri zuen Roman Sodupe aldun nagusiak. Horrekin batera, Arrasateko Udalak seme-alaba kuttun izendatu zituen Aita Menni eta San Juan den Dios ordenak.

■ Eskola publikoendako autobusa

(411/12.or.) 1998.6.21

San Andres, Musakola eta Erguineko herri-eskolako neska-mutikoei doako autobusa lortu zuten.

■ Goikobalu eta Aita Madina

(411/15.or.) 1998.6.21

Goikobalu abesbatzak San Frantzisko elizan Aita

aurrez aurre



Ohituta gaude goi mailako politikan jarduten, baina etxetik hasi behar da elkarrizketa praktikatzen. Herrian ere, zurekin ados ez daudenekin elkarrizketak hastea garrantzitsua da.

BITTOR AIERDI

Elkarri
1996.2.23

SUDC desagertzeko zorian

(440/15.or.) 1999.2.19

Arrasaten horrenbeste lan egin duen SUDC elkateak garai txarrak bizi zituen. Ia desagertu egin zen zuzendaritza berrizteko boluntariorik ez zegoelako.

SUDC, Arrasateko elkarte gastronomikoak batzen dituen elkarte da eta orduan Jose Ramon Arkauz zen lehendakaria. Harekin batera zuzendaritzan, Roberto Zazo, Roberto Beltran, Jesus Mari Arze, Jesus Mari Egidazu eta Antxon Zumalde ari ziren. 1994-95ean ordezkatu behar zituzten, bai-

na 1999ko urtarilean oraindik ordezeko barik zeuden.

Azkenean SUDC elkarteak lortu egin zuen zuzendaritza berrizteko jendea eta krisia gainditzea lortu zuen. Kide berriak: Joseba Andoni Alzelai lehendakaria; Jesus Mari Egidazu lehendakari ordea; Juanjo Madinabeitia diruzaina; Roberto Beltran de Gebara idazkaria. Hauetaz gain, Antxon Zumalde, Jesus Mari Arze, Rafael de la Cruz eta Iñaki Arana ere zuzendaritzako kide izendatu zituzten.

Kemper-Arrasate

(459/15.or.) 1999.7.16




Kemper hiriko 70 lagun egon ziren ekainaren 16an Arrasaten. Bi herriak anaitzeko nahia aspaldian sortu zen, gerra zibi-

laren garaian, eta baita geroago ere, Hego Euskal Herriatik ihes egindako asko bizi izan ziren eta, Kemperren.

Antton Olariagak agur Santamasei

(436/3.or.) 1999.1.22



Antton Olariagak utzi egin zion Santamasetako kartelak egiteari. 1998ko Santamasetakoa izan zen bere azken lana.

Berak kontatu zuenez, "18 bat urtez egin ditut kartelak. Lehenago santamasetako jaiak antolatzen zituen komisioa desegin edo bertan behera gelditu da, eta batzorde hura zen, hain zuzen, niri hots egiten zidana. Niri inork ez dit ezer esan. Uste dut asmoa zela lehiaketa irekiren bat antolatzeko kartela egiteko. Pena izan da, lan hori oso gustura egiten bainuen".

Madinaren pieza bat eskaini zuen. Musikari ospetsuak "Kriskitin Kraskitin" izena zuen piezatxo bat idatzi zuen bere loba Arantxaren omenez.

EPEH Gazte Ekimena

(412/17.or.) 1998.6.19
Euskal Presoak Euskal Herrira Gazte Ekimena sortu zen. Herriko zortzi gaztek egin zuten taldearen aurkezpena.

Parrokiaren bedeinkapena

(412/19.or.) 1998.6.19
Jose Maria Setien gotzainak San Joan parrokia bedeinkatu zuen berritu eta bere ateak zabaltu zituen.

Mondragoe erre zela 500 urte

(412/25.or.) 1998.6.19
1448 urteko San Joan gauean erre zuten Mondragoe. Ganboatarrak su eman zioten Mondragoeri. Asmoa ez omen zuen herria erretzea, barruan zeuden guztiak hiltzea baizik. Herria errautsetan gelditu zen, erabat kiskalita.

Arrasate Musikalen 25 urte

(414/20.or.) 1998.7.3
Arrasate Musikalek zilarrezko ezteiak bete zituen. 1975ean onartu zituen estatutuak Union Cerrajerako Aprendizen Eskolan egoitza zuen herriko musika akademiak.

Emakumeen Asanblada kanpora

(418/11.or.) 1998.9.4
Arrasateko Emakumeen Asanbladak emakumearen Udal batzordea utzi zuen, Mari Angeles Inurrategi batzordeburuaren jarrera salatzeke.

Jose Mari eta Enrike Pagoaga atxilotu

(418/12.or.) 1998.9.4
Polizia frantsesak Jose Mari eta Enrike Pagoaga atxilotu zituen irailaren 9an, Hendaian. 20 urte baino gehiago zen bi anaiek Arrasatetik ihes egin zutela.

Eneko Allende hil zen

(419/12.or.) 1998.9.11
22 urte zituela hil zen

Eneko Allende. Sasoi batean ATBn *Buru Astinduz* musika saioa aurkeztu zuen Enekok.

Enrike Pagoaga aske utzi zuten

(419/15.or.) 1998.9.11
Aurreko asteko ostiralean aske utzi zuten Enrike Pagoaga, Madrilgo auzitegitik pasa eta gero. Kargurik barik irten zen Baionako polizia etxetik.

EHren aldeko sinadurak

(419/15.or.) 1998.9.11
Euskal Herriko beste herri batzuetan bezala, Arrasaten ere Euskal Herriarok sortzeko aldeko sinadurak batu ziren.

Omenaldia Enrike Pagoagari

(420/11.or.) 1998.9.18
Irailaren 11n ongi etorria egin zitzaion Enrike Pagoagari.

Jon Andueza saritua

(420/28.or.) 1998.9.18
"Bernar" filmak lehenengo saria eskuratu zuen. Elxko Nazioarteko Bideo eta Zine



lehiaketan. Jon Anduezak, Aitor Agorria eta Xabier

EH nagusi udal hauteskundeetan

(456/21.or.) 1999.6.18

EH taldeak zortzi zinegotzi lortu zituen ekainaren 13an egin ziren udal hauteskundeetan. Bigarren indar politiko bezala EAJ-EA koalizioa geratu zen sei zinegotzirekin. PSE-EEk 4 lortu zituen, PPK bi eta Ezker Batuak bakarra. 21 zinegotzik osatuko zuten udalbatzar berria. Bataz beste 44 urte zituzten. 9 berriak ziren, 5 EHkoak, 2 EAJ-EAkoak, 1 PSE-EEkoa eta 1 PPKoa.



Xabier Zubizarreta


Arrasateko Alkatea

Zaldibarren pilotalekua?, Gas naturala iritsi, Aukea sortu, Labeko Kobako aztarnategia, Gaztetxea Gurean, Etxebizitza arazo, Ertzantza Arrasaten, Lanbide Eskola sortu, Udal Azoka birmoldatu, Pilotalekua Ferixalekuan!, Tabernei buruzko Arautegi berria, I. Arte Hamabostaldia, Hiper Eroski, Goikobalu, Etxez etxeko laguntza zerbitzua, Euskara Jalgi Hadi Arrasatera, Akei Errauskailua, Intsumisioa, Abadia Urrustoi pastoralara Monterronen, Etxebizitza arazo, Euskararen aldeko Hitzarmana, Txikilandia, Uarkapeko hondamendia, I. Play back-a, Trikitixa Eskola, IMI, Iturripeko Kiroldegia, Harizpe pastoralara Monterronen, Sergio, Herri Aldizkarien I. Jardunaldiak, Hiesa, Astore, Inurategitarrak Everestera, Ibaiarte, Arrasate Greban, Bosniarrak gure artean, Ludoteka, Zerrajera hilzorian?, Tunantes del Norte, EPP-k urrezko etzeiak, Sorgin Punky Opera, Parrokia berrizta-

tzen, Maltzaga/Urbina bai ala ez? (IGP-ak), AED-k 10 urte, Lanuzte Orokorra, Hilerrri berria, Euskara Elkarteen Jardunaldiak, Roneo krisian, Egitasmo Orokorra, Euskadiko Itzulia Arrasatetik, Epeleko Saihesbidea, Zerrajera langileen esku?, Abiadura Handiko Trena?, Errekak garbituko ote?, Punk not dead / RIP, Euskadiko judo txapelketa, Egunkariaren jaia, Arrasate-Kemper, Euskal Presoak Euskal Herrira, Intsumisioak 10 urte, Gaztetxearen geroa?, 11. Korrika, Sudc-ek 35 urte, Arrasate Kirol Proiektua, Lezetxiki zain dezagun, Zaitegi / 20. Urteurrena, Elgean Haizerrotak, Aita Menni-k 100 urte, Etxebizitza arazo, Pilotalekua Uarkapen.

Kostata ere, ez dugu dena konpondu. Jakina!. Beste 10, jarraitzeko??. Denok jakinaren gainean gaude. In-forma-zioa! Hemengoa!, Egungoa!

aurrez aurre



an egun gogor baten ondoren etxera iristen naizenean, nahiago dut filosofia irakurri beharrean, liburu erraza-goak hartzea. Horregatik, niretako funtsezkoa da nik idatzitakoa ere erraz irakurtzekoa izatea.

JOSE MARI VELEZ DE MENDIZABAL

Idazlea

1996.3.29

egizabal

Oinetakoak eta poltsak

Olarte, 14 • ARRASATE • 943 79 66 01
Bidekurutzeta, 13 • BERGARA • 943 76 12 28

aurrez aurre



Nire ustez, hemengo enpresen eskuetatik etor daitezke inbertsio garrantzitsuenak. Orain arte Euskal Herrian izandako esperientzia ere horrelakoa izan da; lantegi gehienak hemengo enpresen bidez etorri dira. Arrasateko alor horretan badu abantailarik, kooperatibak bertan daudelako eta indartsu gainera.

JABIER RETEGI

Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailburua
1996.5.10

Gudari eguna istilutsua

(465/12.or.) 1999.10.1



Irailaren 27ko Gudari Eguneko kale agerraldia istilutsua izan zen oso. Hiru zauritu, atxilotu bat eta hainbat auto gurutzatu zituzten.

Zaurituak, Ino Galparso-ro alkate ordea, Agustin Ibarluzea "Txispas" eta Aitor Etxabe izan ziren eta atxilotua Ezekiel Fernandez "Marmi".

Txispasi belarri ondoan ertzainek botatako gomazko pilota batek jo zion eta Inori masail hezurrean jo zion. Txispas ia ordu erdi luzez egon zen lurtean etzanda, burua

joanda, anbulantziak ospitalera eraman arte.

"Marmi" epailearen aurretik pasa ondoren askatu egin zuten eta Txispas ere aste horretako asteartean ekarri zuten etxera.

UDALAREN ERANTZUNA

Istiluen ondoren, udalak gaitzetsi egin zuen Ertzaintzaren jarrera.

Mozio baten bidez egin zuten hori eta PSOEren aurkako botoekin onartu egin zen. PPko zinegotziak ez ziren bertan izan.

Portugaldarrak arrasatear

(451/11.or.) 1999.5.14

Arrasateko erroldan sartu ziren ordura arte Zaldispén bizi ziren bi familia portugaldarrak. Maiatzaren Sean izan zen hori.

Ados Elgean

(467/12.or.) 1999.10.15

Eolicas de Euskadi eta Elgeako mendilerroko abeltzainak ados jarri ziren, zentrala egiteko lurra alokatzeko.

Pedro Lasagabaster abeltzainak adierazitakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzatik, lurra alokatu ezan desjabetu egin zitzutela adierazi zitzaizen. Hau ikusita, lurjabeek hitzarmena sinatzea erabaki zuten. Hala ere, zentrala egiteko lanak kontrolatuko zituzten ordutik aurrera Gipuzkoako Jarraipen Batzordean parte hartuz.

Batzordeak jaso zuen bere lehenengo kexua: Elgearaino igotzeko ireki zen bidea larregiko handia zela.

Alberdiren laguntza izan zuen film hori egiteko. Hiru lagun hauek "Udalatz filmak" elkarteko kideak ziren.

Udaletik joan ziren emakumeak

(422/12.or.) 1998.10.3

Emakumeen Asanbladak eta Egizanek udaleko Emakumeen Batzordetik alde egin zuten. Hiruko gobernuak egindako gobernuarekin bat ez zetozela azaldu zuten emakumeok.

Takolo inauguratu zuten

(423/11.or.) 1998.10.9

Urriaren 3an inauguratu zuten Takoloko biribila. Ekitaldira Antton Jaime Garraio

eta Errepide diputatua etorri zen. Biribila 155 milioi kostatu zen.

**"Samurai berria"**

(423/11.or.) 1998.10.9

Jose Mari Velez de Mendizabalek "Samurai berria" eleberria aurkeztu zuen.

Sindikatu berria

(424/11.or.) 1998.10.16

Ezker Sindikalak eta ESK-CUIS sindikatuak batu egin ziren eta Ezker Sindikatuaren Konbergentzia sindikatua eratu zuten. Juan Ramon Garai izendatu zuten Debagoieneko ordezkari.

Kontzeziño zubia bota zuten

(424/11.or.) 1998.10.16

"Puente de la Rana" izenaz ezagutzen zen Kontzeziño zubia bota egin zuten. Zubia estua zenez, ur handiak zeudenean arriskutsua zen.

Idazkari berria udaletxean

(425/12.or.) 1998.10.23

Ainhoa Goenaga izendatu zuten Arrasateko udal idazkari. 24 urte zituen eta Iñaki Txintxurreta ordezkatu zuen.

Pedro Guridi eta Josu Arkauz

(426/11.or.) 1998.10.30

Langraitzeko espesxera ekarri zuten Pedro Guridi, iragarri eta bi aстера. Josu Arkauz ere espesxerz aldatu zuten, Soto del Realetik Alcalá Mecora.

Herri-Komunikabidek III. Jardunaldiak

(427/12.or.) 1998.11.6

ARKOK Herri Komunikabi-

deen III. Jardunaldiak antolatuta zuten.

Angel Iturbe ihes eginda

(428/11.or.) 1998.11.13

ETAK bi egunkaritan jakinarazi zuenez, Angel Iturbe iheslari arrasatearrak eta Belen Gonzalezek ihes egin zuten Santo Domingotik. Angel Iturbek 9 urte eta erdi egin zituen Santo Domingon. Hara joan zen Aljerreko elkarrizketek porrot egin zutenean.

Jabier Retegi MCCra itzuli zen

(428/12.or.) 1998.11.13

Jabier Retegik industria sailburu izateari utzi zion eta MCCra itzuli zen.

Berango
ALTZARIAK

LOGOS
ALTZARI INTEGRALAK

AENOR
ER
Empresia
Registrada
ER - 0528/2/98

amc
Bazkide

**Mila esker arrasatearro!i
orain artean bezala elkarrekin jarrai dezagun**

ERAKUSKETA

Legarre Pabilioia, z/g • Gipuzkoa etorbidea • ARRASATE • Tel.: 943 79 01 92

IKASTARO TRINKOAK

ETA ERREKUPERAZIO-IKASTAROAK

UDA HONETARAKO



MULTIMEDIA-SISTEMA

- 9.00etatik 21.00etara etengabeko ordutegia
- Mintzapraktikako eskolekin
- Ikasteko ordu-mugarik gabe
- 18 urtetik gorakoentzat

2 ORDUKO IKASTARO TRINKOAK TALDEETAN

- Goiz eta arratsaldeko ordutegia
- Haurrak, gazteak eta helduak

ingeleza,
frantseza eta
alemana



bai&by

Arrasate-Mondragón Avda. Alava, 4 • Tel.: 943 712055
Donostia-San Sebastián Zubieta, 26 • Tel.: 943 433102

Oñati Olakua, 14 • Tel.: 943 716000
Vitoria-Gasteiz Florida, 8A • Tel.: 945 150155

6 HILERAKO EKIPAJEA.



2000/08/21ra arteko promozioa

6 HILERAKO UKIPEN-LENTEAK 14.900 PEZETAN BAKARRIK

Eta oparizat **GURPILDUN MALETA** eder bat.

MultiPack honako hauek ditu: hileru aldatzen diren MultiLens lentine bi kaxa, Multisoluzio Bakarraren edo Multibio Plusaren 2 pote eta lenteentzako bi kutxatila.

BAUSCH & LOMB CIBA Vision



R.P.S. 16499 zku.

MULTIOPTICAS **LARRAÑAGA**

Ibargarai, 16 - Tel. 943761575 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 943792995 - ARRASATE
J. M. Barandiaran Enp - Tel. 943889988 - ORDIZIA

Born Jay desagertu zen

(464/29.or.) 1999.9.24

Born Jay afizionatu mailako txirrindulari taldea desagertu egin zen. Horrela erabaki zuen Arrasate Txirrindulari Elkar-teak. Diru eskasiak eta laguntza ezak eraman zuten horretara, sortu eta lau urtera. Eneko Garai izan zen azkenengo urtean taldeko zuzendari.

Eneko Garai

Born Jayko zuzendaria

"Aurten azken denboraldia izango da, dirurik ez dagoelako, nahiz eta emaitzetan talde handien artean ibili. Baina, geuk dugu aurrekontu txikiena. Bi babesle ditugu: Born eta Jay, bata holandarra eta bestea galiziarra. Bailaran badaude diru asko mugitzen duten enpresak, baina guk ez dugu lortu euren laguntza. Urte txarra da. Gipuzkoan eta Bizkaian bina talde desagertuko dira. Kalku taldea, esaterako. Afizionatu mailari ez zaio jarraipenik egiten komunikabideetan, batez ere telebistan, eta horrek eragina du. Harrobia ez da zaintzen behar bezala."

Arrasate Press / 1999.9.24

Mundukide sortu zen

(459/14.or.) 1999.7.16



Ekainaren 1 In sortu zen Mundukide Fundazioa, Hirugarren munduari laguntzeko elkarte.

Debagoieneko sei Gobernu Kanpoko Erakundek sortu

zuten, MCCren laguntzarekin, Anelkar (Antzuola), Hiruhatz (Aretxabaleta.), Harreman (Arrasate), FISC (Bergara), Atxorrotx (Eskoriatza) eta Barroiak (Oñati).

Leire Muxika

Mundukideko partaidea.

"Kanpoko herrietako jendeari atea ireki nahi diogu, kooperatibismoaren baloreak ikas ditzaten eta ondoren hemen barneratutako esperientzia beren herrialdeetan baliatzea. Bidenabar, hango baliabide eskasekin beren herrietan egindako aurrerapenak ere nolakoak diren ikas ditzake hemengo jendeak. Guk haiengandik eta haiek gugandik ikasteko modua da."

Arrasate Press

2000-3-17

aurrez aurre



Lehen soinujole eta panderojole bikoteek baino ez zuten jotzen erromerietan; orain, berriz, hori apenas ikusten da. Bikoteari baxujole edo bateriajole bat gehitu zaio. Erreperetoria ere nahiko aldatu da: lehen, batik bat, euskal kantuak jotzen ziren, baita pasodobleak eta tangoak ere; orain, berriz, horiek ez dira hainbeste jotzen.

MAIXA LIZARRIBAR

Trikitilaria

1996.10.25

Uribarriko erretiratuen etxe berria

(431/9.or.) 1998.12.4

Larrea etxeetan estreinatuta zuten Uribarriko erretiratuen etxea. Aste horretako astelehenean ireki zuten. Erretiratuen lehendakaria Joakin Iria zen.



Andoni Frutos hil zen

(433/18.or.) 1998.12.18

Andoni Frutos eskalatzaila mondrogoetarra hil egin zen.

Auto istripuz hil zen, 22 urte zituela.

Penintsulako espexteetara

(434/8.or.) 1998.12.24

Jon Agirre, Gabriel Urizar eta Jesus Mari Zabarte mondrogoetarrak penintsulako espexteetara ekarri zituzten. Agirre Tenerifetik Huelvara; Urizar Tenerifetik Jaenera eta Zabarte, Las Palmasetik Huelvara.

1999

Xabier Lazpiur bizikletara itzuli

(438/30.or.) 1999.2.5

Etxabarrak Banestora

eraman zuen, baina 25 urterekin bizikleta uztea erabaki zuen. Hiru denboraldiz geldirik egon ondoren, berriz ere afizionatu mailan hasi zen.

Futbolari sarituak

(439/29.or.) 1999.2.12

Aitor Lopez Rekartek "Taldearen hauspoa" saria eta Imanol Etxebarriak "Jokalarri seguruena" ren saria eskuratu zituzten. Sariok Radio Euskadik eman zien.

Fagor Industrialek 25 urte

(441/14.or.)

Fagor Domestico utzi zuen 1972an eta 1999an zilarrezko etzeiak bete zituen Fagor Industrialek. 1960an

Ulgorreko departamentu txiki bat zen, 1999an 290 langile zituen eta Zubillagan 5.000 m.ko beste lantegi bat zabaldu zuten. Jose Luis Lizarbe zen enpresako gerentea.

Paco Garcia begirale, El Salvadorren

(442/15.or.) 1999.3.5

PSE-EEko zinegotzia El Salvadorreko hauteskundeetan izan zen nazioarteko begirale bezala. El Salvadorreko FUNDASPAD elkarteak Euskal Fondoari begiraleak eskatu zituzten joan zen martxoaren 7an presidentea aukeratzeko hauteskundeetara.

Zaldispetik ihesi

(443/12.or.) 1999.3.12

Zaldispent bizi ziren bi familia portugaldarrak Arrasatetik joango zirela adierazi zuen SOS Arrazakeriak taldeak.

1994an iritsi ziren Arrasatera eta 1997az gero Zaldispent bizi izan ziren. 1998an Arrasateko erroldan sartzeko eskatu zuten eta hilabete luzeak gatazkan ibili ondoren, udalak onartu egin zuten erroldan sartzea.

Arizmendi kooperatiba

(443/18.or.) 1999.3.12

SFX, San Viator, Almen eta Umezaintza ikastolek Arizmendi bigarren graduoko kooperatiba eratu zuten.

aurrez aurre



ATBn oso ondo pasatzen nuen eta niretzat, gainera, eskola bat izan zen. Oso esperientzia polita izan zen.

Telebistan agertzen garen guztioi uste dut gustatzen zaigula ezaguna izatea, Nirea bezalako lan batek horixe eskaintzen dizu. Baina, agian jendeak nire lana mirestea dut atseginen.

ANUSKA LASA

Aktorea
1998.9.8

FGHZ kolokan

(471/12.or.) 1999.11.12

Ez zen ikasturtea hasi FGZHn. Kutxa Fundazioak arazoak zituen zentroarekin. Gizarte Segurantzak ez omen zuen dirurik jaso FGHZetako irakasleen eskutik. Hauek Kutxako langileak zirela zioten eta berari zegokiola ordaintzea. Fundazioak,

ordea, langileek autonomo moduan jardun zutela zioen.

Abenduaren 13ko epai-ketaren ondoren Donostiako Auzitegiak erabaki zuenez, FGZHko begiraleak Kutxa Fundazioko langileak ziren. Kutxak errekurritu egin zuen erabakia.

**Kanporatutako begirale taldea**

Mota honetako zentro batek eskaintzen duen gertuko tratua, giza-tiarra, ez da beste leku batzuetan ematen. Hezkuntza eta heziketa pertsonala uztartuz, elkarkidetzeta eta elkarren arteko harremana lantzen dira, bereziki.

Familia eta Gizarte Heziketako Zentroaren azkenengo urtean, 690 pertsonak izena emana zuen. Orain, aldiz, Kutxa Fundazioarekin izan ditugun arazoan ondorioz, begirale barik dago zentroa; jende gutxiagok eman du izena; gainera, irteerak eta antzekoak egiten dituzte bakarrik.

**Goiena
Komunikazio
Zerbitzua**

(478/11.or.) 1999.12.10

ARKOk 99an egin zuen Batzar Orokor berezian aurkeztu zuen Goiena Komunikazio Zerbitzua. Goiena bezela aurkeztu zuten eta proiektu horretan Debagoieneko herriguztiak eta Aramaio sartuko lirakeela azaldu zuen Mikel Irizarrek.

Mikel Irizar

Goienako bateratzailea

"Lehen, bailaran herri-komunikabideen arloan egin den lanari segida ematera datorren egitasmoa da Goiena. Bailaran lan handia egin duten sei aldizkari, bi irratia eta hiru telebista daude (...). Ez dugu proiektu estandar eta ideal bat sortu; herri bakoitzak bere nortasuna izango du eta horrek emango dio Goienari aberastasuna, errotuta egongo delako herri bakoitzaren historian eta izaeran."

Arrasate Press
2000.3.10

**DVren ordezkari
berria**

(444/99.or.) 1999.3.18

El Diario Vasco egunkariak ordezkari berria ireki zuen Otalora kalean. Arrasate, Bergara, Oñati, Aretxabaleta eta Eskoriatzako berriemaileak hasi ziren bertan lanean.

**Iragarko: ARKoren
publizitate agentzia**

(445/12.or.) 1999.3.26

Arrasate Komunikabideak elkarteak publikitate agentzia sortuko zuela iragarri zuen. Iragarko izena jartzeko asmoa agertu zuen urteko batzar orokorrean.

**Erasoa Ignacio
Jimenoren etxeari**

(446/10.or.) 1999.3.31

Ignacio Jimeno, PSE-EEko zinegotzia zen udaletxean; Ingurumen batzordeburua zen eta bere alderdiaren bozeramaile. Marxoaren 19an bere etxearen aurka 5 molotov koktel jaurtiki zituzten.

Trefasa Legutiora

(449/9.or.) 1999.4.30

Trefileria Arrasate SA enpresak Legutiora alde egingo zuela esan zuen. Garai batean Nito izena izan zuen enpresak eta Uribarriko eta Legutioko negoziok bat egitea erabaki zuten, Uribarrikoa itzea erabaki zuten.

**Jimenok talde
sozialista utzi**

(450/11.or.) 1999.5.7

Ignacio Jimenok bere talde sozialista utzea erabaki zuen Paco Garica alderdikidearekin izandako liskarrak tarteko.

**Epaileak Mertzanen
kaleratzea salatu**

(450/13.or.) 1999.5.7

Pedro Mertzanen aurkako auziak hilabeteak iraun zituen. Gelma enpresak kalera bota zuen langilea eta honek hilabeteak egin zituen bere lanpostuaren alde lanean eta bidegabeko kaleratzea izan zela salatuz. Sinadura bilketa, itxialdi, kale agerraldi, kanpaldi eta beste hainbat mobilizazioen ondoren, epaileak bere

kaleratzea bidegabekoa zela esan zuen.

**Jabier Retegi MUKO
errektore**

(451/11.or.) 1999.5.14

Jabier Retegi Mondragon Unibertsitateko errektore izendatu zuten. MU bi urte lehenago sortu zen eta ordutik Ignacio Lakunza izan zen errektore.

**SJBren Batzorde
Eragilea**

(451/14.or.) 1999.5.14

San Joan Bataiatzailearen berritze lanak bultzatu zituen Batzorde Eragilea aurkeztu zuen Arrasate Pressek. Hamalau lagunek osatu zuten. 1990eko uztailaren 24an hasi

ziren elkartzen.

**Ikerianek 25 urte**

(452/16.or.) 1999.5.21

Ikerlan enpresak 25 urte bete zituen. Jose Mari Ormaetxea, Jabier Retegi eta Manolo Quevedo egon ziren enpresaren sorreran. 1999an 152 lagun ari zen Ikerlanen lanean.

“Putz” aldizkari berria

(474/3.or.) 1999.12.3

Arrasateko gazte talde batek euskarazko bihilabetekaria eratu zuen Euskal Herri osoan zabaltzeko. “Putz” izenarekin Iker Barandiaran, Diego Martiartu, Balen Tramon, Joxe Otadui, Jon Ruiz de Zarate eta Ramon Ugalde hasi ziren lanean aldizkarian, kultura, musika eta gizarte gaiak lantzen.

Baserriko plastikoak jasotzen

(481/10) 2000.1.28

Mendi Nekazaritzako Elkar-tea, Debagoieneko baserrietan lanetarako erabiltzen den plastikoa batzen hasi zen. Herri bakoitzean hainbat gune ezarri ziren plastikoak jasotzeko, 25 guztira.

Legazpiko Remaplas enpresara eramanziren birziklatzeko.

Garaia proiektua aurkeztu zen

(476/10.or.) 1999.12.17

MCCk Garaia proiektua aurkeztu zuen. Olandixoren maldan 400.000 m²ko berrikuntza zentroak jartzea eta 1.250 lanpostu sortzea aurreikusten zuen proiektuak.

5.000 milioi pezetako inbertsioa egingo da hasie-

ran. Ikerkuntzarako 20 zentrotan 500 langile arituko dira. MCCren ikertegiek (Ikerlan, Ideko eta MTC) 200 ikertzaile gehiago hartuko dituzte. Aldi berean MUK 200 irakasle berri izango ditu 2. eta 3. zikloetan.

Uarkape inauguratu zen

(478/46.or.) 1999.12.24

Santamas bezperan inauguratu zen Uarkape Udal Pilotalekua. Itxaro Zubillagak eta Jon Anduezak aurkeztu zuten ekitaldia. Herriko pilotari beteranoei omenaldia egin

zitzaien Uarkapen eta Xabier Zubizarretak egin zuen oho-rezko sakea. Bitxikeria: bi sake egin behar izan zituen, eta bietako bat bera ere ez zen balekoa izan.



aurrez aurre



Etorkizun ona aurreikusten diet Euskal Herriko film laburrei. Hala ere, beldur naiz ez ote den bolada iragankorra izango. Arlo horretan lan egiten segitu beharko dugu. Errespetu bera zor zaio film laburrari zein luzeari. Jendeak uste du film laburrak gazteen jokoak baino ez direla, eta hori ez da egia. Badira film luzeak baino hobeak diren film laburrak.

TINIEBLAS GONZALEZ

Zinema zuzendaria
1998.11.27

■ Pilar Mondragon gose greban

(452/17.or.) 1999.5.21

Pilar Mondragon iheslari arrasatearrak gose greba hasi zuen. Maiatzaren 21ean kartzela zigorra bete eta kalean utziko zutela eta, Espainiara bidaliko zutela salatu nahi zuen Pilarrek. Gose grebaren 26. egunean 13 kilo galduak zituen.

■ Brutal Melody, Villa de Bilbaoko irabazle

(452/30.or.) 1999.5.21

Brutal Melody taldeak Villa de Bilbao sariketa irabazi zuen. Taldea Aner, Pako, Juanra, Txemi eta Juanek osatzen zuten eta 1994an eratu zen.

■ “Soo Bitxo” komikia

(452/33.or.) 1999.5.21

Hibai Garai oñatiarrak egin zuen “Soo Bitxo” komikia. Hies Ekimena taldeak kaleratu zuen komikia eta Jose Inazio Telleriak idatzi zuen.

■ Bizikleten Jardunaldiak

(453/12.or.) 1999.5.28

Bizikletentzako Azpiegiturei eta Bidegorri buruzko I. Jardunaldiak egin ziren Arrasaten maiatzean. Arrasateko Lurrats eta Donostiako Kalapie ekarteak antolatuta zituzten.

■ Eluska Zabalo, Ruta Quetzalen

(454/22.or.) 1999.6.4

Margolari arrasatearra Ruta Quetzal egiteko aukeratu zuten. Vasco Nuñez de Balboaren erretratu bat egitearren aukeratu zuten eta ekainaren 16an irten zen Panama aldera.

■ Harrobien aurka

(455/12.or.) 1999.6.11

Ekologistak Martxan-Eki taldeek harrobien aurkako kanpainari ekin zitoten.

■ Broak Peak espedizioa

(455/20.or.) 1999.6.11

Mikel Arana, Jose Luis Martin, Josu Pereda, Xabier

eta Pablo Rozas eta Joxemiel Aranzadik osatu zuten Broad Peak mendira joateko espedizioa. Ekainaren 13an abiatu ziren Karakorom mendilerroa.

■ Musakolako astoa

(457/10.or.) 1999.7.2

Ekainaren 18an erakutsi zuten Musakolako astoa, Arruenako parkean. 300 kilo pisatzen ditu eta astoaren



azpian, besteak beste, JMA enpresako giltzak, auzoko jaietako egitaraua, urrezko astokiloa eta Arrasate Presseko azken alea sartu zituzten.

■ Ane Lpz. de Bergara Espainiako txapeldun

(458/22.or.) 1999.7.9

Igerilari mondragoetarrak Espainiako Hegats txapelketa irabazi zuen, ur gaineko 1.500 eta 800 metroetan.

■ Mondrak maila galdu zuen

(459/23.or.) 1999.7.16

Mondrako futbol talde nagusiak preferente maila galdu eta lehen erregionalera jaitsi zen.

aurrez aurre



Gauza asko gertatu dira azken hamar urteotan euskararen kalitateari dagokionez. Ekarri nagusienetakoak izan dira jendea interesatzen zaizkion gaiak euskara jator eta hurbilean aurkitzea eta baita herri-euskarari prestigioa ematea ere. Hau oso garrantzitsua da: zaharrak konturatzen badira beren euskara hor dagoela, txukun eta zuzen, harro sentituko dira. Hori opa da euskara estandarrentzat

JOSUNE ARIZTONDO
1998.12.4

Cerrajera botatzen

(480/13.or.) 2000.1.21

Cerrajera inguruak urbanizatzeko Cerrajerako eraikina botatzen hasi ziren. Tartean, 312 etxebizitza berri eraikitzeko asmoa dago: 220 etxebizitza pribatu eta 92 babes

ofizialekoak. San Andresko Maiatzaren Bata plazaren inguruan hasi ziren lanak, Araba Etorbideraino segitzeko asmotan; urbanizazio osoa egiteko asmoa ere badago.



Harrobiari azalpen eske

(480/14.or.) 2000.1.21

Urtarrilaren 3an San Josepen leherketa egin zen eta handik irtendako harriek uste baino urrutirago ihes egin zuten: Fagor Arrasate, Fagor Automation eta Umezaintzaraino. Kaltetuek salaketak jarri zituzten, baina, horrez gain, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak espedientea ireki zion harrobiari.



Bittor Guridi hil

(479/10.or.) 2000.1.14

Urtarrilaren 2an hil zen Bittor Guridi Agirreurreta mendizalea Oskako Anayet mendian. Mendi-eskia egiten ari zela hil zen 39 urteko arrasatearra.

Gaztetxe berria aurrera

(490/12.or.) 2000.3.31

Arrasateko Udala gaztetxe berria egiteko aurreneko pausoak ematen hasi zen; horretarako, proiektua egiteko arauak onartu zituen. Gaztetxeke egitasmoa idaztea enkantera atera zuen, 8.400.000 pezetako mugarekin. Uarkape frontoiaren atzealdean egin beharko da, 1.500 metro karratuko eraikina izango da eta 1.000 metro karratuko lur zatia urbanizatuko da bere inguruan. Erabakia maiztzean hartu zen, eta Donostiako URMA enpresak irabazi zuen. AGAKOk, bestalde, galdeketa egin zuen herriak nola-ko gaztetxea nahi duen jakiteko.

■ "Zilarrezko Q", Copreciri

(460/14.or.) 1999.7.23

Coprecik kalitatearen

ziurtagiria jaso zuen, Josu Jon Imaz industria sailburuaren eskutik. Jose Miguel Arregi gerenteari eman zion "Zilarrezko Q" ikurra.

■ Goikobaluk 10 urte bete zituen

(460/16.or.) 1999.7.23

Goikobalu abesbatzak hamar urte bete zituen 1999an. Hori ospatzeko Mozarten Requiem eskaini zuten Arrasaten.

■ Martutenera eta Langraitzera

(462/16.or.) 1999.9.10

Goio Etxabe Ocañako

espexetik Martutenera eta Joseba Garitaonandia Madrildik Langraitzera ekarriko zituztela iragarri zuen Espainiako gobernauak.

■ Golfean txapeldun

(463/25.or.) 1999.9.17

Fernando Praderak, Mikel Etxabek, Pako Zabalok eta Marce Gonzalezek "El Mundo" egunkariak antolatutako golf txapelketa irabazi zuten.

■ "Artzai" txakurra, azpitxapeldun

(463/28.or.) 1999.9.17

Jesus Mari Plazaola eta

bere "Artzai" txakurra bigarren sailkatu ziren Abadiñoako Euskal herriko txapelketan.

■ Zaldispeko zubia

(464/15.or.) 1999.9.24

Irailaren 17an jarri zuten Zaldispe Osinaga izeneko pasealekuko alde biak lotzen dituen zubia. Ia 55 milioi erabili ziren zubia egiten.



■ Omenaldia On Jose Mariari

(465/7.or.) 1999.10.1

Irailaren 24an omenaldia

egin zioten On Jose Maria Arizmendiari. Ekitaldia Goikobaluk ireki zuen eta Maria Arizmendiareta ere, On Jose Mariaren arreba, Barinagatik etorri zen omenaldira.



■ San Juan de Diosek 100 urte

(465/13.or.) 1999.10.1

San Juan de Dios

ospitalean 100 urteko historia jasotzen zuen liburua aurkeztu zuten irailaren 29an.

■ Aita Demetrio hil zen

(465/13.or.) 1999.10.1

1955ean San Frantzisko

eliza ireki zuen Aita Demetrio. Berrobin jaioa, Arrasatera Garaialderekin batera etorri zen. Zeruko Argian eta Goiz Argi aldizkarietan idatzi zuen eta azkenaldian Arantzazuko egutegirako idazten zuen. 90 urte zituela hil zen eta Arantzazun lurperatu zuten.